

XIX. Jagon jardunaldia: Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan

Donostian, 2014ko azaroaren 14an

Euskera. 2014, 59, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

ALEMAN, Sagrario
Sustapen batzordeko burua

Euskaltzaindiak Iker eta Jagon sailen bidez egiten die aurre bere eginkizunei. Besteak beste, euskara sustatzea eta babestea dagokio Euskaltzaindiari eta lan hori Jagon Sailaren barneko Sustapen batzordeak hartzen du bere gain.

Gizartean hizkuntza normalizazioan ematen ari diren urratsei eta aldaketei so egoten da bada, Euskaltzaindia, eta euskararen erabileraren nondik norako horiek aztertzeko, gogoeta egiteko, urtero, Jagon jardunaldia egiten du.

2014an, euskarak Euskal Herriko hiriburuetan izan duen bilakaera aztertu nahi izan da. Horretarako, hainbat adituren hitzaldiak izan dira. Bukarako ekitaldian ostera, hiriburuetakoko udal ordezkariak beraien iritziak elkar-trukatu dituzte mahai-inguruan.

Euskera agerkariko ikerketa zenbaki honetan, jardunaldian eman ziren hitzaldiak artikulu akademiko gisa argitaratu ditugu. Horrekin batera, jardunaldiak eman zituen ondorio nagusiak ere bildu dituzte Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko buruak eta idazkariak.

Lehenbiziko artikuluan, Jon Aizpuruak Euskal Herriko hiriburuetakoko bilakaera soziolinguistikoa azalduko du eta hirietan bizi diren euskaldunen zenbait ezaugarri adierazi.

Jarraian, Eduardo Apodakaren artikulua nabarmendu nahiko du hiriek nazio-estatuen kultura- eta hizkuntza-koreografia komunak eraikitzean izan duten garrantzia, bai eta azaldu prozesu horiek nola eragin dioten euskarari.

Euskera. 2014, 59, 2. 465-466. Bilbo
ISSN 0210-1564

Xabier Aierdik euskarak hirietan daukan erronka azalduko digu. Gaur egungo egoera deskribatuz, euskararen biziraupenerako estrategikoak diren eskualdeak eta gizarte sektoreak identifikatzen ahaleginduko da.

Aitor eta Pedro Zuberogoiak, lehenbizi euskara eta hiriaren arteko harremana aztertu dute ikuspegi diakroniko batetik. Hasi industrializazioarekin eta gaur egun hiri jakin batzuetan ematen diren hainbat ekimen eta esperientziak deskribatu dituzte. Bukatzeko, hurrengo hamarkadetan, ekosistema hiritartu berrian euskararen indar gidari izan daitezkeenak aktibatzeke norabide posible batzuk irudikatu dira.

Euskal Herriko hiriburuetakoko bilakaera soziolinguistikoa

Evolución sociolingüística de las capitales
del País Vasco

Evolution socio-linguistique des capitales
du Pays Basque

Sociolinguistic evolution of main Basque towns

AIZPURUA, Jon

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlan Zerbitzuko arduraduna

Noiz jaso: 2015-04-20

Noiz onartua: 2015-07-20

Euskera. 2014, 59, 2. 467-476. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hiru euskal herritarretik bat (1.019.823 pertsona) Euskal Herriko zazpi hiriburuetakoko batean bizi da. Euskararen ezagutzari dagokionez, baina, gure hiriburuak nahiko erdaldunak dira oro har. Hiriburuetakoko euskaldunen portzentajea % 40 inguru da kasurik onenean (Donibane Garazin eta Donostian), eta hortik beherakoa gainerako guztietan. Hala ere, ehunekoei baino, kopuruei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu euskaldun asko bizi direla hiriburuetan. Izan ere, euskaldun guztien laurdena hiriburu batean bizi da. Euskaldun horien zenbait ezaugarri azaltzea eta hiriburuaren artean dauden aldeak ezagutzea da artikulua helburua.

Hitz-gakoak: hiriburu, euskaldun, euskara, ezagutza, erabilera, jarrera.

Uno de cada tres ciudadanos vascos (1.019.823 personas) vive en una de las siete capitales de Euskal Herria. En cuanto al conocimiento del euskera, nuestras capitales son en general poco euskaldunes. El porcentaje de vasco parlantes en las capitales es en el mejor de los casos cercano al 40 % (Donibane Garazi y Donostia), e inferior a este porcentaje en el resto. Pero, si en vez de fijarnos en los porcentajes nos centramos en números absolutos, nos daremos cuenta de que en las ciudades vive un gran número de vascohablantes. De hecho, una cuarta parte de los vasco parlantes viven en una ciudad. El objetivo del artículo es analizar algunas características de estos vasco parlantes urbanos y conocer las diferencias que hay entre las diferentes ciudades.

Palabras clave: ciudad, vascohablante, euskera, conocimiento, uso, actitud.

Un citoyen basque sur trois (1.019.823 personnes) vit dans l'une des sept capitales du Pays Basque. En ce qui concerne la connaissance de la langue basque, nos capitales sont en général peu bascophones. Le pourcentage des bascophones dans les capitales est, dans le meilleur des cas, proche des 40 % (Saint-Jean-Pied-de-Port et Saint-Sébastien), ailleurs ce pourcentage est inférieur. Pourtant, si au lieu de considérer les pourcentages nous observons plutôt les quantités, nous constaterons que la plupart des bascophones vivent en ville. L'objectif de cet article est d'analyser quelques-unes des caractéristiques de ces bascophones urbains, pour connaître les différences qui existent entre les différentes villes.

Mots-clés: ville, bascophone, langue basque, connaissance, usage, attitude.

One out of every three Basque citizens (1,019,823 people) lives in one of the seven main towns of the Basque Country. Nevertheless, our major cities are relatively non Basque speaking. At most, the percentage of Basque speakers in the main towns is about 40% (in Donibane Garazi/St. Jean Pied-de-Port and Donostia/San Sebastian), and below that in the rest. However, if we consider absolute numbers rather than ratios we observe that a substantial number of Basque speakers live in towns. In fact, a quarter of Basque speakers lives in one of those major towns. A number of features of those speakers and the differences between towns are discussed.

Keywords: town, Basque speaker, Basque, knowledge, use, attitude.

1. Sarrera

Euskara nekazaritza-munduko gertakaria izateari utzi, eta aspaldi hiritartu dela esan dezakegu. Hiritartze hori bi modutara ulertu behar da: batetik, euskaldun gehienak gune urbanoetan bizi gara; eta, bestetik, euskaldun gehienon bizimoldea hiritarra da. Lana, aisialdia, kontsumo-ohiturak, hau da, bizimodua oro har mendebaldeko edozein eremu urbanotan egin daitekeena da. Euskarak eremu hori irabazi beharko du. Lekua bilatu, aurkitu eta beste hainbat erdarekin bizitzen ikasi.

Euskal Herriko gune urbanorik handienak hiriburuak dira. Beraz, honako artikuluko honetan euskarak Euskal Herriko hiriburuetan gaur egun bizi duen egoeraren eta azken urteotan izan duen bilakaeraren berri eman nahi da. Horretarako, eskura ditugun hizkuntza-aldagai nagusien emaitzak azalduko dira.

2. Biztanleak


Hiru euskal herritarretik bat (1.019.823 pertsona) Euskal Herriko zazpi hiriburuetakoko batean bizi da. Hegoaldekoak biztanle gehien biltzen dituzten hiriguneak dira, eta Iparraldekoak, askoz txikiagoak izanda ere, haien lurraldeetako hirigunerik handienak dira. Beraz, hiriburuak garrantzitsuak dira biztanleen zati handia bertan bizi delako. Aldi berean, baina, kontuan izan behar da zerbitzu-gunerik handienak ere badirela, eta horren ondorioz, bertoko bizilagunez gain, jende-kopuru handia dabilela joan-etorrian egu-nero-egunero.

Hiriburuetakoko biztanleen pisua desberdina da bakoitzaren herrialdearekin alderatzen badugu. Bilbon, Donostian eta Gasteizen EAeko biztanleen % 35,4 bizi dira, Iruñean, aldiz, Nafarroako biztanleen % 30,6 eta Baionan, Donibane Garazin eta Maule-Lextarren Iparraldeko biztanleen % 21,6.

Hegoaldeko hiriburuak dira, esan bezala, Euskal Herriko hirigunerik handienak. Biztanle-kopurua 180.000tik gorakoa da Iruñean eta Donostian, 200.000 biztanletik gorakoa Gasteizen eta 300.000 biztanletik gorakoa Bil-

bon. Baionak 44.300 biztanle ditu, baina Angelurekin eta Miarritzerekin batera Euskal Kosta-Aturri aglomerazio-elkargoa (BAM) osatzen du, eta bertan 124.000 biztanle bizi dira. Maule-Lexarre aglomerazioa (5.700 biztanle) eta Donibane Garazi (1.400 biztanle) oso bestelako neurriko hiriak dira.

Euskal Herriko hiriburuetakoko biztanleen pisua biztanleria osoarekiko, 2011 (%)



Iturria: EUSTAT, IEN eta INSEE.

3. Hizkuntza-gaitasuna

Euskararen ezagutzari dagokionez, gure hiriburuak nahiko erdaldunak dira oro har. Hiriburuetakoko euskaldunen portzentajea % 40 inguru da kasurik onenean (Donibane Garazin eta Donostian), eta hortik beherakoa gainerako guztietan: hiru biztanletik bat baino gutxiago da euskalduna Maule-Lexarren, hamarretik bi Bilbon eta Gasteizen, eta hamarretik bat Baionan eta Iruñean.

Hala ere, ehunekoei baino, kopuruei erreparatzen badiegu, berehala ohar-tuko gara euskaldun asko bizi direla hiriburuetan. Izan ere, 220.600 euskaldun bizi dira Euskal Herriko hiriburuetan, euskaldun guztien laurdena.

Euskaldun gehien Bilbon (73.700) eta Donostian (69.000) bizi dira. Gasteizen 48.600 bizi dira eta Iruñean 21.300. Lau hiriburu horiek dira euskaldun-kopururik handiena dituzten udalerriak, Getxoren (20.600) eta Irunen (19.700) aurretik.

Iparraldeko hiriburuetan euskaldunen kopurua askoz txikiagoa bada ere, azpimarratzekoa da Baionan 5.500 euskaldun bizi direla, eta BAMEn 8.500etik gora.

Azken 30 urteotako bilakaerari begiratzen badiogu, euskaldunen ehunekoak gora egin du Hegoaldeko lau hiriburuetan. 1981 eta 2011 bitartean, Donostiako eta Gasteizeko euskaldunen ehunekoak 18 puntu egin du gora eta Bilbokoak 16. Iruñean ere hazi egin da euskaldunen portzentajea: 8 puntu 1991 eta 2011 bitartean.

Iparraldeko hiriburuaren bilakaerari dagokionez, BAMEko datuak baino ez ditugu eskura. 1991 eta 2011 bitartean, BAMEko euskaldunen ehunekoak 5 puntu egin du behera. Hala ere, esan behar da azken hamabost urteotan galera eten egin dela eta euskaldunen portzentajeak bere horretan dirauela, % 9aren bueltan.

4. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Adinaren araberako azterketa eginez gero, hiriburuetan antzematen diren joerak euskararen eremuan oro har ematen diren berberak dira. Lehenik eta behin, Hegoaldeko eta Iparraldeko hiriburuak bereizi behar dira, batzuen eta besteen joerak desberdinak baitira gaur-gaurkoz.

Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean, adinak behera egin ahala gora egiten du euskaldunen ehunekoak. EAEko hiru hiriburuetan hazkundea areagotu egin da 25 urtetik beherako gazteen artean, eta bereziki 15 urtetik beherakoen artean. Izan ere, 16 eta 24 urteko gazteen artean euskaldunen ehunekoa % 40tik gorakoa da Bilbon eta Gasteizen, eta % 65ekoa Donos-

tian. 5 eta 15 urteko gazteen artean euskaldunen ehunekoa % 85,6 da Donostian, % 70,9 Bilbon eta % 69,2 Gasteizen. Iruñean, adinak behera egin ahala euskaldunen ehunekoak gora egin du, baina hazkundea ez da hain handia izan: 16 eta 24 urteko gazteen artean euskaldunak % 18,8 dira.

Iparraldeko hiriburuetan joera bestelakoa da. BAMEko datuei erreparatuz gero, zaharren artean dago euskaldunen ehunekorik handiena (65 urtetik gorakoen artean % 12,1) eta adinak behera egin ahala, behera egiten du euskaldunen portzentajeak (25 eta 34 urtekoen artean % 4,6). Hala ere, azken hamarkadan joera-aldaketa gertatzen ari da, eta 25 urtetik beherakoen artean hazi egin da euskaldunen ehunekoa (16 eta 24 urtekoen artean % 8,3).

5. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Hizkuntza-gaitasunari buruzko atalaren hasieran esan da Euskal Herriko hiriburuak nahikoa erdaldunak direla oro har. Beraz, euskararen biziberitzea etxetik kanpo (eskolan edota euskaltegian) euskara ikasi dutenen eskutik gertatzen ari dela gehienbat, hau da, lehen hizkuntza euskara ez duten euskaldunen eskutik.

Gasteizeko euskaldunen % 76,4k eta Bilboko euskaldunen % 70,4k erdara dute lehen hizkuntza. Iruñean lehen hizkuntza erdara duten euskaldunak % 58,2 dira. Donostian eta, batez ere BAMEn, lehen hizkuntza erdara duten euskaldunak askoz gutxiago dira (% 41,9 eta % 17,4, hurrenez hurren).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara, biak, hamar euskaldunetik batek ditu BAMEn, Gasteizen eta Bilbon; Donostian % 15,1 dira eta Iruñean % 17,6.

Azkenik, lehen hizkuntza euskara dutenak % 13,2 dira Gasteizen eta % 17,7 Bilbon. Donostiako errealitatea oso bestelakoa da. Izan ere, euskaldun donostiarren % 43k du euskara lehen hizkuntza.

Iruñeko euskaldunen laurdenak (% 24,2) du euskara lehen hizkuntza, eta BAMEko euskaldunen % 73,3k. Euskaldun horietako gehienak zaharrrak eta aspaldi gune euskaldunetatik bertara bizitzera joandakoak dira.

6. Euskaldunak erraztasunaren arabera

Euskararen erabileran eragiten duen faktore nagusietako bat erraztasuna da. Euskal Herriko hiriburuetan bizi diren euskaldun gehienek erraztasun handiagoa dute erdaraz euskaraz baino.

Bilbon eta Gasteizen, lau euskaldunetik hiru dira erdaraz mintzatzeko erraztasun handiagoa dutenak, Iruñean % 69,5 eta BAMen eta Donostian euskaldunen erdia.

Euskaraz erraztasun handiagoa dutenak, aldiz, % 6 inguru dira Bilbon, Gasteizen eta Iruñean, eta % 15 inguru BAMen eta Donostian.

Gero eta gehiago dira euskaraz eta erdaraz antzeko erraztasuna duten euskaldunak. Gertakari hori hiriburuetan ere antzeman daiteke. Hizkuntza bietan erraztasun bera duten euskaldunak % 18,6 dira Gasteizen, % 20,1 Bilbon eta % 24,5 Iruñean. Donostian eta BAMen hiru euskaldunetik batek du erraztasun bera bi hizkuntzetan.

7. Euskararen erabilera

Euskararen erabilera aztertzeko, lehenik eta behin Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak landutako indizearen arabeko datuak ezagutuko ditugu. Indize hori lantzeko, honako erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan: etxea, lagunak eta eremu formala (publikoa eta pribatua).

Euskararen erabileraren tipologiaren arabera, beraz, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 3 edo gutxiago dira Bilbon, Gasteizen, BAMen eta Iruñean. Donostian % 17,7 dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 4 dira BAMen, % 6 inguru Bilbon, Iruñean eta Gasteizen, eta % 14 Donostian.

Hortaz, erabat nagusi dira beti edo ia beti erdaraz mintzaten direnak: hamarretik bederatzik BAMen, Iruñean, Bilbon eta Gasteizen; eta % 71,3 Donostian.

Etxeko erabilerari begiratzen badiogu, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean % 6 inguru dira etxean euskara erabiltzen dutenak, eta % 21,4 Donostian.

Azken 20 urteotan euskararen erabilerak ia ez du aldaketarik izan. Igoera txikiak izan dira Hegoaldeko hiriburu guztietan, baina igoera horiek ez dira esanguratsuak.

Euskal Herriko hiriburuetakoko kaleetan egiten den euskararen erabilera ere txikia da. Soziolinguistika Klusterrak egiten duen Euskararen Kale Neurketaren arabera, Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Baionan % 3koa edo txikiagoa da, eta Donostian % 15,9koa. Kaleko euskararen erabilerak oso gorabehera txikiak izan ditu azken bi hamarkadetan.

8. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera

Hegoaldeko hiriburuetan gehiago dira euskara sustatzearen alde daudenak, aurka edo ez alde ez aurka daudenak baino. Donostian % 61,5 dira eta Bilbon % 51,8, hau da, jarrera nagusia da. Gasteizen eta Iruñean % 42 dira euskara sustatzearen alde daudenak.

BAMen, aldiz, euskara sustatzearen alde daudenak % 29,3 dira, eta nagusi dira (% 43,9) ez alde ez aurka daudenak.

9. Laburbilduz

- Hiru euskal herritarretik bat (1.019.823 pertsona) Euskal Herriko zazpi hiriburuetakoko batean bizi da. Hegoaldekoak biztanle gehien biltzen dituzten hiriguneak dira, eta Iparraldekoak, askoz txikiagoak izanda ere, haien lurraldeetako hirigunerik handienak dira.
- Euskararen ezagutzari dagokionez, gure hiriburuak nahiko erdaldunak dira oro har. Hiriburuetakoko euskaldunen portzentajea % 40 inguru da kasurik onenean (Donibane Garazin eta Donostian), eta hortik beherakoa gainerako guztietan.
- Hala ere, Euskal Herriko hiriburuetan, euskaldun guztien laurdena bizi da.

- Azken 30 urteotako bilakaerari begiratzen badiogu, euskaldunen ehunekoak gora egin du Hegoaldeko lau hiriburuetan. BAMen euskaldunen ehunekoak bere horretan dirau azken 15 urteotan.
- Hegoaldeko lau hiriburuetan, adinak behera egin ahala gora egiten du euskaldunen ehunekoak. Euskaldunen portzentajerik handiena gazteen artean dago. Iparraldekoetan, aldiz, zaharren artean dago gaur-gaurkoz euskaldunen ehunekorik handiena.
- Euskal Herriko hiriburuetan erdara da euskaldun gehienek lehen hizkuntza, Donostian eta Iparraldeko hiriburuetan izan ezik.
- Hiriburuetan bizi diren euskaldun gehienek erraztasun handiagoa dute erdaraz euskaraz baino.
- Euskal Herriko hiriburuetakoko euskaldunen ehunekoa oro har txikia izateak (hau da, dentsitate txikiko harreman-sare euskaldunak izateak) eta euskaldun gehienek erdaraz euskaraz baino errazago jarduteak eragin zuzena dute euskararen erabileran. Izan ere, euskararen erabilerak ia ez du aldaketarik izan azken 20 urteotan.
- Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerari dagokionez, Hegoaldeko hiriburuetan gehiago dira alde daudenak aurka daudenak baino. BAMen, aldiz, nagusi dira ez alde ez aurka daudenak.

Bibliografia

EUSKO JAURLARITZA (2013). V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

——— (2014). V. Mapa Soziolinguistikoa 2011. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2012). Hizkuntzen Kale-erabileraren V. Neurketa 2011. <http://www.soziolinguistika.eus/>

EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua 2011. <http://eu.eustat.eus>

INSTITUTO DE ESTADÍSTICA DE NAVARRA. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua 2011. <http://www.navarra.es/>

INE. Censo de Población y Viviendas 2011. <http://www.ine.es/>

INSEE. Recensement de la population 2011. <http://www.insee.fr/>

Hizkuntza-praktikak hiri-mundu eta mundu hirietan

Prácticas lingüísticas en las grandes urbes
y en las ciudades del mundo

Pratiques linguistiques dans les grandes zones
urbaines et dans les villes du monde

Language praxis in conurbations and cities
around the world

APODAKA, Eduardo

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2015-04-20

Noiz onartua: 2015-07-20

Euskera. 2014, 59, 2. 477-502. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hiriak itxuraz eta egituraz aldatzen ari diren honetan, hiri-bizimodua erruz ari da edonora hedatzen. *Posthiria* bezalako kontzeptuek bizimodu haren hegemonia hiri forma klasikoaren ezaugarri batzuen galerarekin batera datorrela dioskute. Testuinguru hartan, artikulua nabarmendu nahi du hiriek nazio-estatuen kultura- eta hizkuntza-koreografia komunak eraikitzean izan duten garrantzia, bai eta azaldu prozesu horiek nola eragin dioten euskarari. Modernitatean euskara hiri-eremu fisiko eta sinbolikoetatik erauzia izan da, eta «larre-paradigma» baten logikan esplikatu eta ulertua, baina gaur egun euskaldun gehienak aski urbanoak direnez gero, paradigma aldaketa berariaz landu beharko da, esatez eta egitez, euskarak hiri-bizimodu hipermodernoan zentzurik eta lekurik izan dezan.

Hitz-gakoak: euskara, hiria, hiri-bizimodu hipermoderno, larre-paradigma, nazio-paradigma, hizkuntza-koreografia, polikronia.

En estos tiempos en que las ciudades cambian de forma y estructura, el modo de vida urbano se extiende a todas partes. Conceptos como la *Postciudad* nos dicen que la hegemonía de la vida urbana viene acompañada con la pérdida de algunas características de la forma clásica de ciudad. En este contexto, el artículo quiere subrayar la importancia que ha tenido la ciudad en la construcción de la cultura de las naciones-estado y la coreografía lingüística común, y analizar como esos procesos han afectado al euskera. En la modernidad el euskera ha sido expulsado de los lugares físicos y simbólicos de las ciudades, ha sido tratado desde un paradigma rural. Pero hoy en día la mayoría de los vascoparlantes son urbanitas, por lo tanto habrá que impulsar un cambio de paradigma, con dichos y hechos, para que el euskera tenga sentido y lugar en el estilo de vida urbano e hipermoderno.

Palabras clave: euskera, ciudad, estilo de vida urbano e hipermoderno, paradigma rural, paradigma nacional, coreografía lingüística, polikronia.

En ces temps où les villes changent de forme et de structure, le mode de vie urbain s'étend partout. Des concepts comme celui de *Postville* nous montrent que l'hégémonie de la vie urbaine s'accompagne de la perte de certaines caractéristiques de la forme urbaine classique. Dans ce contexte, cet article veut souligner l'importance qu'a eue la ville dans la construction de la culture des nations-état et la chorégraphie linguistique commune. L'article analyse comment ces processus ont touché la langue basque. A l'époque moderne, la langue basque a été expulsée des lieux physiques et symboliques des villes, il a été considéré avec un paradigme rural. Mais de nos jours la majorité des bascophones sont urbains, il faudra par conséquent provoquer un changement de paradigme, avec des paroles et des actes, pour que la langue basque ait un sens et une place dans le style de vie urbain et hypermoderne.

Mots-clés: langue basque, ville, style de vie urbain et hypermoderne, paradigme rural, paradigme national, chorégraphie linguistique, polychronie.

In these times when the appearance and structures of cities are changing, the city life-style is spreading everywhere. Concepts like the *post-urban era* remind us that the hegemony of urban life is accompanied by the loss of certain features of the classical city form. In this context the importance the city has had in the construction of the culture of nation-states and common linguistic choreography is stressed and the effect of those processes on the Basque language analysed. In the modern period Basque has been expelled from physical and symbolic city space and explained and understood from the logic of a rural paradigm, but since most Basques are nowadays city-dwellers, paradigm change must be sought in word and deed, so that Basque can have a meaning and a place in this hypermodern urban life-style.

Keywords: Basque, town, urban, hypermodern life-style, rural paradigm, national paradigm, linguistic choreography, polichrony.

1. Sarrera

Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan gaiaren haritik egin-dako gogoeta dituzue testu honetako esanak. Benetan funtsezko gaia dela uste dut, euskararen biziberritzea nonbait jokatzeko badugu hirietan delako. Ez soilik, ostera, hiriburuetan. Gero eta agerikoagoa da: egun euskaldun gehienak hirietan bizi dira, eta zehatzago ere, hiriburuetan edo hiriburuen eremu funtzionaletan bizi dira; eta hirietatik kanpo bizi diren gehien-gehienak hiri-bizimoduari atxiki zaizkio honezkerok.

Esandakoa egiaztatzen duguten hainbat ikerketa argitaratu dira aspaldi honetan: *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011: Euskal Herria*, EAEko *V Mapa Soziolinguistikoa*, Nafarroako *Mapa Soziolinguistikoa 2011*, edota Gaindegiak UEMArentzat eginiko *Hego Euskal Herriko Lurgune Euskaldumaren Azterketa Soziologikoa*. Bada, hortaz, zertaz egin gogoeta¹. Baina, ni ez naiz arituko datu horietan aztarrika, ezta horiei adigarritasunik eman liezaiekeen azalpenen bat taxutzen. Gaiari beste ertz batetik ekingo diot: hiri-bizimoduaren aldaketa izango dut hizpide, betiere, aldaketa hark euskararen bizitza erruz aldatu(ko) duelakoan. Eta hartara atzera egingo dut, euskara hiritik zertan egotzi eta iraitzi zuten jakin guran. Iritzi edo tesi nagusi bat dut buruan: euskara hirietan ez bada, hiri-bizimoduaren hitza eta adierazpidea ez bada, ez da izango. Aski arrunta den iritzia, ene idurikoz.

Aurrez ohar bat egin nahiko nuke. Bistan da hiri-bizimodua ez dela barkarka diharduen eragile bat, ezta aldagai independente bat ere. Hiria eta euskara batera pentsatzen ditugunean, hark honi nolako eragina dakarkion pentsatzen dugunean, ezin dugu ahaztu hor hiri-kultura, hiri-bizimodua edo hiri-jokaera beste eragile askorekin ari direla euskararen bizitasuna batera edo bestera horretaritzen. Ez da, esaterako, hiriburuetan euskarak duen edo izan lezakeen bizitasuna ulertzen lege-markoen eragina kontuan hartu barik. Ezta jendeen ideologiak eta erakundeen politikak alde batera utzita. Ez

¹ Ezarian gorpuzten ari da hirigintza, lurralde-politikak eta euskaren arteko loturei buruzko jakintza-arloa. Horren zantzu, Euskaltzaindiaren XIX. *Jagon Jardunaldia* bera, eta aurretiaz, 2014 eta 2015ean egin diren *Lurraldea eta Hizkuntza* Jardunaldiak, edo BAT aldizkariak argitaratu duen «Lurralde-antolaketa eta hizkuntza» izeneko dosierra, BAT, 2014 (1) 90.

nuke nik, hortaz, inork pentsa dezan euskararen bizitasuna eta bizitza hiri-bizimoduaren gorabeheretan oso-osorik jokatzen dugunik. Baina, nahiko nuke, hiri-bizimoduari behar duen kontsiderazioa eman diezaiogun eta batez ere, kontzientzia har dezagun bizimodu hori nolakatzeko dugun aukeraz.

2. Hiriak, Modernitatetik hona

Hiriaren definizio *transhistoriko* bat egin beharko banu, hiria kontzentrazioa edo biltzea izan dela esango nuke. *Jendeak, zerbitzuak, harremanak, bi-deak* eta abar gune batera biltzea izan da historian zehar hiri ororen eginkizuna eta izana. Gune horiek fisikoak ziren, jakina. Garai batean, jendeak, baliabideak eta zerbitzuak biltzen ziren segurtasun eta ziurtasunen babespean: harresi baten barnera usu. Erdi ahaztuta badugu ere, lauzpabost belaunaldi baino ez dira pasa Euskal Herriko hiriburuen harresiak bota zirenetik. Hiribilduaren irudi itxi eta kontzentratuaren ordez, lau aldeetara zabaltzen den hiri orojale eta noranahikoa nagusitu zaigu. Alde horretatik ere funtzio asko izan dituzte hiriek, eta egun funtzio horiek gehienek ez dute kontzentrazio fisikoaren beharra. Agian hori da hiria birpentsatzeko behar dugun abiapuntua: gune fisikotik ari dira hiriak askatzen. Edo hobee esan, gune fisikotik ari dira kontzentrazioak askatzen, eta lehengo hiri trinkoak despopulatzen, haien ordez munduan zehar jositako hiri-sare birtualak eta hiri-bizimodu globalak ari omen dira zabaltzen.

Modernitatea deritzogun aro eta prozesu historiko sozial larriaren agertoki nagusia hiriak izan dira. Are gehiago: modernizazioa urbanizazioa izan da². Baina, modernizazioaren areagotze eta bizkortze garai honetan, hipermodernizazioaz ari garen honetan, hiriak lehengo forma zehatzak galtzen ari dira. Sortu zirenetik hiriak harreman-fluxuen kontzentrazioak izan dira. Gaur egun ere hala izanagatik, aldaketa ugari izan dira hiri-biziguneetan. Aldaketa horien kontu emateko bi muturreko kontzeptu osagarri erabiltzen dira: *posthiria* (edo eremu *posturbanoak*) eta *mundu-hiria*, hiri-soziolo-

² H. Lefebvre, *La revolución urbana*, Alianza Editorial, Madrid, 1980; M. Castells, *The Urban Question*, E. Arnold, London, 1977.

gian edo hirigintzan ohikoak eta sobera ezagunak diren kontzeptuak, biak ala biak.

Labur esan, posthiriak edo eremu posturbanoak *hiri sakabanatua* deritzonetik hiri izaera galtzeraino barreiatzen diren hiriguneak dira. Hiri lausoa, mugagabea edo aldiriko hedapena (*suburban sprawl*) ere esan zaio maiz. Eredu horretako hiriguneek kritika ugari jaso dituzte ondorio psikosozial, soziokomunitario, ekonomiko eta ekologiko larriak dituztelako³.

Aurreneko kontzeptuak hiri-formatik aztertzen du hiriaren bilakaera eta hiri-bizimoduaren antzaldatzea. *Mundu-hiri* kontzeptua, berriz, zuzenean doakio bizimoduari, hiriguneetan egiten denari, hain zuzen; eta bizimodu urbanoari globalizazioak zelan eragin dion azertu gura luke. Ildo horretan, Saskia Sassen soziologoak hiri globalen amaraunaren ideia zabaldu zuen, hainbat hirik ekonomia eta finantza-sare global bat osatu dutelakoan. Hiri horiek, euren artean estuki konektaturik, gune bereziak dituzte ingurune fisikoarekin deskonektaturikoak baina botere-kontzentrazio handikoak (informazio eta diru fluxuen eta trafikoen zaindariak dira, nonbait)⁴. Baina bada mundu-hiria ulertzeko beste era bat, G. Lipovetskyren *mundu-kultura* ideia gisakoa: mundu-hiria, batetik, globalizazioaren biziguneak edo eskarmentu guneak dira, hots, globalizazioaren eraginak jasotzeko sentiberatasun bereziko guneak; baina bestetik, aurrekoarekin batera, mundu osoa bere baitan, apal edo larri, biltzen dituzten guneak. Alde horretatik, gure hirigune gehienak globalizazioaren orduan bizi dira⁵.

Posthiritiaz hitz egiten badugu ere, horrek ez du esan nahi baserritartze berri batera goazenik, ez lehengo landa-mundura itzultzen ari garenik. Posthiria hiriaren gainezkatzea da. Bere baitan kabituko ez balitz bezala, hiria jariakin zabalkorren antzera noranahi hedatu da eta bizimodu urbanoa edonora eraman du... Horretarako, jakina, ezinbestekoak dira espazioa eta

³ Askok dira kritika horietan jardunikoak, ikusi, besteak beste: D. MacCannell, *Lugares de encuentro vacíos*, Melusina, Barcelona, 2001; R. Sennet, *Vida urbana e identidad personal*, Península, Barcelona, 2001; M. Davis, *Planet of Slums*, Verso, New York, 2006.

⁴ S. Sassen, *The Global City: New York, London, Tokyo*, Princeton Univ. Press, 1991.

⁵ G. Lipovetsky eta J. Serroy, *La Culture-monde*, Odeile Jacon, Paris, 2008.

denbora gainditzeko teknologiak: Internet, autobideak, logistika-sistemak, AHTak, edota aurrekozinatuak eta mikrouhinak... Eta halaber, hainbat zerbitzu eta baliabide-iturri hiri edo herrietatik kanpora eramane behar dira eta eskualde baten eskura jarri funtzio bakarreko gune berezietan: merkataritza-guneak, logistikako eremu zabalak, lantegi-parkeak, parke teknologikoak... Eta, gainera, hiri horiek eskusioaren eta bazterketaren hiriguneak izan ohi dira; bai herrialde aberatsetan, bai herrialde txiroetan, *esklusiboak* eta *eskluituak* bereizten dituzten hormatzarrak altxatu dira.

Horiek denak nahiko ezagunak zaizkigu dagoeneko, gure paisaia arruntena dira. Hortaz, mundu-hirietan bizi al gara honezkero? Euskal Herriko hiriak urrun daude hiri globalen ligatik, baina badira, zentzu askotan, globalizazioko mundu-hirien sortakoak. Eta hartan azertu behar dugu nola ari diren izaten, zer bilakatzen. Gure hiri-ingurua ulertze aldera, interesgarria da Olivier Monginek egin bereizketa, zeren eta berak *hiri globalizatu*a eta *metropolia* bereizten baititu: aurrenek bizkarra eman omen diote inguru lokalari eta mundu-fluxuei konektaturik bizi dira; halako moldekoak dira hirigune erraldoi asko edota haietan topatu daitezkeen harresidun auzo oparoak (arrunki, pobreziaz inguratutik). Metropoliak, ordea, globala eta lokala uztartzeko ahaleginetan bizi omen dira, eskusibotasunari eta eskusioari aurre egin nahian eta, inguru sozial, komunitario eta ekologikoa baztertu gabe⁶. Euskal Herriko hiriak ez dira, bistan da, hiri globalizatuak: ez dira guztiz ingurutik eta lurraldetik askatu eta lokatu; baina badute euren baitan globala eta badaude globalizazioaren fluxuetan sartutik.

Bestalde, gogora dezagun, egitura eta azpiegitura urbanistikoez gain, hiriak bizimoduak antolatzeko dispositibo soziopolitikoak izan direla. Areal ere, hiri jendea eta haren bizimodua moldatzeko eta meneratzeko dispositiboa izan da; bai eta jendeek askatasuna lor zezaten bidea ere. Alegia, kontzentrazioak berak eta hura antolatzeko izan diren sistemek ikaragarri arautu dituzte hala hiritar jendearen bizimodua nola hiriz kanpokoekin izan dituzten harremanak. Kontzentrazioarako logikak hainbat eta hainbat izan direnez gero, arautze moduak ere anitz izan dira. Ez dira beti logika eta ondorio berberekin antola-

⁶ Olivier Mongine, *La Ville des flux: L'envers et l'endroit de la mondialisation urbaine*, Fayard, Paris, 2013.

tu, ez arautu ere, hiritarren bizi-praktikak. Garai luzean hiriek elkarretaratze-ko sinkronia kolektibo behartuak ezartzen zituzten, maiz, elkarren ondoan (baina ez elkarrekin) bizi ziren hiri-ataletan ezarriak. Euskal Herriko hiriak ere halako puzzleak izan ziren Erdi Aroan, hor dugu ondo ezaguna den Iruñearen adibidea. Modernitatean, arian-arian, erritmo bakar batera batu ziren atal horiek eta koreografia bakar batera bildu ziren bizimoduak eta praktikak, hizkuntza-praktikak barne. Hilzorian dugu batze hori.

Baina, bilakatze horren kontu emateko, koreografiaren metafora lagun, bi hiri mota (analitiko) erabil ditzakegu: *inperio-hiria* eta *nazio-hiria*. Biak izan dira botere gune bereziak eta bietatik antolatu dira koreografia politiko eta soziokultural eskergak. Zeinek bere modura egin du:

- Inperio-hiriak, *metropoliak* inperio koloniarretan, kultura bat guztiz hegemonikoa izan arren, inperio zabal baten erritmoak eta sinkronia partikularrak biltzen saiatu dira. Neurrian, *polikronikoak* izan dira: hainbat erritmo eta koreografiatarako agertokiak⁷. Horrez gain, gaurko kultura-aniztasuna deritzogunaren eredu dira.
- Nazio-hiriek, berriz, erritmo edo sinkronia bakar batera bildu nahi izan dituzte estatu-nazioaren mugetan barna izan zitezkeen diferentzia guztiak. Alegia, nazio-batasuna hirietan gauzatu beharreko programa zelarrik, *nazio-monokronia* edo, *nazio-sinkronia* hiritarra da gehienbat, nahiz eta hartarako, askotan, landa aldeko jatortasun sinbolikoa ustiatu.

Esan gabe doa: inperio-hiri asko biziki nazionaldu dira, izan ere, Modernitateko eredu nagusia nazio-hiria izan da. Ondo dakigunez, nazio-estatuak hiri baten edo hiri-sare baten inguruan sortu eta trinkotu ziren: hiritarrak (burgesak, jakina) dira lehendabiziko nazio-klasea. Bai Euskal Herriko hirietan ere. Eta hirietan jazo eta jaso dira nazioaren sinkroniak. Alde hone-

⁷ *Polikronia* Edward T. Hall antropologoak asmatu zuen kontzeptua da. Antropologoak buruan zuen kultura batzuek aldi berean hainbat ataza egiteko gaitasuna irakasten dutela. Hemen, gaitasun hura bizimodura eraman dut: inguru sozial batzuetan zenbait erritmo ezberdin antolatzen dira, elkarren ondoan edo elkarren segidan edo elkarren artean nahasirik antolatu ere, polikroniak dira; beste batzuetan, berriz, erritmo sozial bakarra ezartzen da, monokroniak dira, eta ondorioz, koreografia bakar batean biltzen dute bizitza sozial osoa. Ikusi: Edward T. Hall, *The Silent Language*, Anchor Books, 1990, jatorrizkoa 1959koa da.

tatik, hiriaren bizimodu edo psikologia formal eta abstraktu batekin estropezu ez egiteko, uste dut begi aurrean izan behar dugula, bistatik galdu gabe, ezagutu ditugun hiriak nazio-estatuaren hiriak izan direla.

Hiriak jende, zerbitzu, baliabide eta eginbeharren kontzentrazioa diren aldetik, botere-sorguneak dira. Kontzentrazio eta antolakuntza hark sortzen baitu boterea, edo larri esanda, eragimena⁸. Zentzu hartan, elkarrengandik urrun ziren baliabideak erdigune boteredun batekin lotzea izan da inperio ororen zeregina. Erdigune horiek gorte-hiriak izan dira halako inperioak agertu zirenetik. Eta, esan bezala, gorte-hiri handiek inperio osoko bazter-jende nabarrak batu dituzte euren kaleetan. *Metropoliak* izan dira: inperioaren koreografia orokorraren igortze gune nagusia.

Hizkuntzak direla eta, bistakoa da inperio kolonialen hondarretan metropoliaren erritmoek zein bizirik dirauten eta, halaber, nondik sortu diren gaurko mundu-hizkuntza gehienak. Hala ere, Modernitatearen hastapenertara joan beharko genuke, hizkuntza-batasunaren ideia argi bat aurkitzeko: estatu modernoaren sortzaileek batasun linguistikoaren beharra ikusi baitzuten *naziogintza* deritzon aginte-programa zabalaren hasikeran. Programa hori inperio izan nahi zuten erresumetan hasi zen:

... que siempre la lengua fue compañera del imperio; y de tal manera lo siguió, que junta mente començaron, crecieron y florecieron, y después junta fue la caída de entrambos (...) nuestra lengua castellana (...) se extendió después hasta Aragón y Navarra y de allí a Italia, siguiendo la compañía de los infantes que embiamos a imperar en aquellos Reinos(...) En la fortuna y buena dicha de la cual, los miembros y pedaços de España, que estavan por muchas partes derramados, se reduxeron y aiuntaron en un cuerpo y unidad de Reino. La forma y travazón del cual, así está ordenada, que muchos siglos, iniuria y tiempos no la podrán romper ni desatar.

1492ko urte esanguratsuan idatzi zituen Antonio de Nebrija hitz horiek *Gramática Castellana* delakoaren hitzaurrean. *Cuerpo y unidad de Reino*, ez artean nazioarena, omen zuen helburu. Baina gorputz batu hori izango zen, hain justu, etorriko zen naziogintzaren ernamuina. Izan ere, naziogintza-

⁸ Boterearen kontzepzio hartaz: Michael Mann, *Las fuentes del poder social*, I, Alianza, Madrid, 1991.

programa nazio-koreografia gauzatzeko egitasmoa baino ez da: mintzoak, legeak, botere guneak, gastronomiak, dantzak, neurriak, egutegiak, erritu erlijiosoak, oroimena, izenak... Hitz batean: bizimodua, arrunta eta berezia, zertzen duten zernahikoak biltzeko, batzeko, eta hala behar izanez gero, uniformatzeko ariketa diziplinatua. Labur, espazioa (hala nazio-lurraldea, nola espazio publiko nazionala) sortzeko eta han eszena bakarra (nazioaren bizitza, alegia) antolatzeko jardun saiatua.

Zer eginkizun izan dute hiriek programa horretan? Modernitatearen has-tapenetan hiri mota asko zegoen Europan. Komun zuten zerbait seinalatu behar badugu lehen aipatu dudan kontzentrazioa izango litzateke: botere guneak ziren; baina bakoitzak zein botereri eusten zion beste kontu bat da. XV, XVI eta XVII. mendeetan Europako botere guneak batzen eta trinko-tzen joan ziren, estatu absolutisten sortze-prozesuan, gehienetan Inperioaren proiektu eta legitimazioarekin: subiranoa Koroa zelakoan haren inguruan ezarri zen legitimazio pertsonalez ehundutako sare hierarkiko eta zentripeto bat. Tituluen arabera antolatu zen sarea: zenbat eta altuagoa titulua orduan eta hurbilago errege gunea. Estamentuka sailkatu zen jende guztia: tituluek eta estatusek mugatutako estamentuetan. Eta ondo ezaguna da jende gehiena jaiotzez titulurik gabea zela.

Estatu horiek bertikalak izanagatik, alegia, boterea goitik behera ezarriagatik, estamentu-kideek euren arteko bizitza horizontala egiten zuten zinkronia propioa sortzen joan ziren. Hau da, ezarian koroarekiko zuzeneko lotura bertikal eta pertsonal hori zeukatenek euren arteko lotura horizontalagoak sortzen hasi ziren. Nobleak edo tituludunak alde batetik. Hiriko biztanleak, burgesak, bes-tetik. Eta, jakina, harreman horiek tokiko harreman bertikalen gainetik, beste-lako elkartasun bat ernatu zuten, koroa baten mende estatus bera zutenen arteko elkartasuna. Merkataritza-sareetan ibilitako hiritarrek eratu zuten, hala edo nola, elkartasun hura. Eta beraiek ere, dirua eta boterea eskuratu arau, titulurik gabeko botere-legitimazio bat bilatzen hasi ziren. Eta topatu zuten estamentu horizontal hari begira: gure artean jaiotza-tituluek ez dute zereginik, hemen jaiotzez denak gara kondizio berekoak, jaiotza hutsak batzen gaitu⁹.

⁹ Ondo ezagunak dira ideia hauek. Kontzentrazioari dagokionez, ikus: Norbet Elias, *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*, F.C.E., México, 1987; eta bertikal versus

Kontuan hartu behar dugu garai hartan *nazioa* jaiotzez parekoak edo jatorri berekoak taldekatzeko erabiltzen zela. Inperioen arragoetan, beraz, hiritarrak hasi ziren lotura bertikalen gainetik lotura horizontalak lehenesten eta, hartarako, *nazio* kontzeptua erabiltzen hasi ziren. Inperioek lana egina zuten estatua batzen eta populazioak homogeneizatzen, baina langintza hori, berariazko programa bilakatuko zen, legitimazio pribatuaren orde (subiranoarekiko lotura pertsonalaren orde) legitimazio publikoaren ezarri zenean (subiranoa herria zen, hortaz, estatuak nazioarena behar zuten: publikoa, bakarra eta orokorra). Programa, XIX eta XX. mendeetan burutuko zen.

Nabarmendu behar da historia honetan Koroaren azpiko estamentu eta jendeak batzeko eta hala *nazio-gorputzarte* bakarra sortzeko ahalegina hiritarrena izan zela gehienbat, burgesena, eta kasu askotan gainera gorte-hirietakoena. Hiri horietan, hots, inperioen hiriburuetan, administrazio zentral bakarra antolatzen zen neurrian edota merkataritza-sareak egituratu ahala, sortu ziren nazio-sinkroniak. Ez aurrekaririk gabe, burgesek gortearen moduak kopiatu baitzituzten eta modu horietako bat, guztiz garrantzitsua, hitz egiteko modua zen. Kasu batzuetan, beraz, jarraipen bat ikus daiteke gorte-hizkera, estatu-hizkuntza eta nazio-mintzoaren artean (Frantzia, Ingalaterra, Espainia...), besteetan, berriz, gorte-hizkera arbuiatu eta hiritarren mintzoari helduko zioten naziogileek (batez ere, naziogintza berantiarren kasuan: Italia, Alemania...). Horrela, bada, sarritan burges- eta herri-mintzoen eta gorte-hizkeren arteko tentsioa lagun zuela hedatu zen naziogintzaren sinkronia.

Horrenbestez, esan daiteke estatuen eta hizkuntzen historia batera doa zela eta historia hori gehienbat hirietan egin dela: gorte-hirietako hizkuntzak landu eta gaitu ziren estatu osoko hizkuntza ofizialak izan zitezen. Gorte zentralizaturik izan ez zutenen kasuetan, ordea, burges-hirietan egin

horizontalari buruz: Ernest Gellner, *Naciones y nacionalismo*, Alianza, Madrid. 1995. M. Weberen tesi zahar bat da burgesak hiritarren estamentua izatetik klase izatera iragan zirela kapitala eta estatua aliatu zirenean. Orduan hiritarren elkargo juridiko berezia (tokian tokikoa) erresuma edo jaurgu politiko osoko klase bihurtu zen. Ikus.: Max Weber, *Historia económica general*, FCE, Mexico, 1942.

behar izan zen lan hura, geroago, estatua eta merkatua batu zirenean; batzuetan industrializazioaren ateetan, besteetan industrializazioaren eskutik. Gaur egungo hizkuntza ofizial eta estandar bat ikusten dugun tokian, estatu-hizkuntza bat ikusten dugun tokian, gorte- edo merkatari-hiri bat izan zen.

Labur bilduz, nazioak sortu, hiri baten inguruan sortu ziren. Eredu kanonikoan hiri hori gorte-hiria izanda ere, burges boteretsuen hiria zen; eta iraultza egin, erregearen burua moztu eta haren tokian nazioa jarri ostean, *Hiriak* bere neurrira antolatu zituen Koroaren mendeko herri eta jende guztiak: mendeko biztanleak populu bihurtu zituen, esan nahi baita, nazio bereko populazio. Modernitatean koreografo nagusia estatua izan zen, berak ezarri zituen *naziogintzako dispositibo* nagusiak: eskola, armada, zerga zentralizatuak, eta abar... Horrela irakatsi zion jendeari nazio-kidea, hots, hiritarra izaten.

Euskarak, ondo dakigunez, ez zuen naziogintzako dispositiboetan leku handirik izan, edo bestela esan, ez zuen hiri-gizartean leku eroso topatu. Industriarekin batera urbanizazio orokorra hasi zenean euskara baserritar-tuta zegoen. Praktikan hala ez bazen ere, diskurtsoan zalantza barik agertzen da euskara hiritik kanpo. Hiriak, estatu modernoan eta gizarte modernoan sorgune eta biziguneak, aspaldi eman zion bizkarra euskarari. Baina hori jarrera ideologiko bat izan zen; ezarian horrela izan bazen, horrela heldu bazaigu, ideologia edo paradigma batengatik izan da: paradigma horrek, esango nuke nik, ezkutatu egin du euskararen errealitate kaletarra, ezkutatu, ostendu eta ezabatu.

Aurrera jarraitu aitzin, ohar bat egin nahiko nuke. Faltsukerietan dabil hiria eta herria, askatasunak eta loturak, aniztasuna eta bakantasuna, zibilizazioa eta basakeria, modernitatea eta tradizioa... kontrajartzen dituen Hiriaren ideologia¹⁰. Faltsukeria horietan zutitzen eta legitimatzen du bere

¹⁰ Ideologia horren sorgunea Europako borroka historikoak izan daitezke (ikus, Claude Lefort, «L'Europe: civilisation urbaine», *Esprit. La ville à trois vitesses : gentrification, relégation, périurbanisation*, mars/avril, 2004), baina nik ez dut irakurketa baikorregirik egin nahi, ideologia hori estatugintzan kokatuko nuke zalantza barik. Ideologia haren aldarrikapen harroa irakurri nahi duenak badu non, esaterako: Manuel Delgadoen *El espacio público como ideología* liburuan Antonio Mi-

burua estatu-hirigintzak eta horrela ere ezkututzen du nola hiriburuek, estatugintzako sorgune izan diren hiriek, antolatu, egituratu, arautu, ustiatu eta, hitz batez, kolonizatu dituzten inguruko herrialdeak eta jendeak. Hori da, hain zuzen, euskararen historian ahaztu ezin duguna. Euskal Herriko hiriek bat egin zuten ez modernizazio orokor eta abstraktu batekin, ezta hemengora egokitutako modernizazio batekin ere, baizik eta estatuen erdal modernizazioarekin. Hiri zibilizazioa (edo, bestela esan, modernizazio urbanoaren proiektu ideologikoa) nazio-estatuetan garatu da, ez haien kontra. Euskarari historia urbanoa ukatu zitzaion, egitez eta hitzez, euskara ez zelako estatu-hizkuntza.

3. Larre-paradigmatik guztiz irten ezinik

Euskara hirikoa baino basokoa zelakoa aspaldiko kontua izan daiteke, erro sakonekoa. Erdi Arotik aurrera euskara, Europako hizkuntza ez latindar askoren kasuan bezala, «gorte-usantza finduetatik» baztertu zuten. Hizkuntza sakratua eta eliztarra, botereduna eta legitimoa latina zen, eta harengandik abiatuta hedatu ziren ezaugarri horiek erromantzeetara. Hor hasi zen, nonbait, bazterketa zahar hau. Bereizketa eta bazterketa hauek ondo ezagunak dira European, batez ere, zuzen-zuzenean Erromaren eta Elizaren zibilizazioaren moldera guztiz egokitu ez ziren herrien kasuan¹¹.

randak eginiko hitzaurrea, non modernitatea, arrazionaltasuna eta unibertsaltasuna Hiriaren baitan hirutasun santuaren gisa bildurik aurkezten dituen. (Manuel Delgado, *El espacio público como ideología*, Los libros de la Catarata, Madril, 2011, 9-17). Zein da ideologia horren (mendeko) Gaizto osagarri eta erabilgarria? Baserria, tradizioa, komunitatea, irrazionala, partikularra...

¹¹ Germaniar hizkuntzen lurraldeetan, esaterako, latina ez zena adierazteko *deutsch* hitzaren etimologia eta latindar atzizki bat erabili zuten: *theudisk* (*diutisc*), «herriarena», edo «herri-erara». Goi-hizkuntza, sakratua, jakintzazkoa, estatu-administratiokoa, latina zelarik, germaniar mintzoei *herri-erakoa* zeritzen. Euskal Herrian ez da arrotza izendapen hura: *lingua navarronum*, *lingua rusticorum*, *lingua ruralis*, *rusticum vocabulum*, *que vulgariter dicitur Aldea*, eta abar. Eta *theudisk* egiten zutenek beste erara hitz egiten zutenei izen bakarra ezarri zieten: *wal(a)hisc* edo *walesc*, atzerritarra bainoago «erdalduna» esan nahi duena (handik ei datoz Welsh, Wallonia, Valais, Wallachia...); bazter hauetan: *vascónice*, alegia, baskoien erara, versus *romanice* edo erromatar erara, bereizi zituzten bezala.

Paradigma orokor baten aurrean gaude: Hiria, ziutatea, da zibilitatearen sorlekua, Erroma da Hiri Santua eta Betierekoa, Inperio eta Elizaren bihotza. Haren taupadek eta mintzoek kristautasun osoan zabalduz, arima kristau guztiak harmonizatu behar dira. Hiri Sakratua sekularizatu zelarik, eta bihotza estatu-hiriburura lekualdatu zelarik, paradigmak bere horretan jarraitu zuen gehienetan¹². Aldaketa bakarra: estatu-mintzoak ordeztuko zuen latina. Eta esan bezala, estatu-mintzoa XVI. mendearen inguruan egituratu ziren estatuen kasuan, Inperioaren gorte-hiriaren mintzoa izango zen.

Paradigma honi herri-mintzoen *larre-* edo *basa-paradigma* deitu ahal diogu. Euskara paradigma orokor horretan herri-mintzo basatia baino ez zen izan Erdi Aroan: *rusticum vocabulum*. Errenazimentuan, edo hobe esan Europa modernoa sortu eta eratuko zuten erlijio-gerren garaian izan zuen aukera bat: gorte bateko korridoreetan ibili zen estatu modernoak sortzen eta trinkotzen hasi ziren garaian. Gorte hura guztiz periferikoa zen, ordea, eta euskara periferia horren periferia xume bat besterik ez. Harrezkero, ez du aukerarik izan, besteak beste, hemengo botere guneek eta erakundeek euren eginbeharretan ez zutelako behar berezirik izan inperio-hizkuntzetatik aldentzeko; euskara, eginkizun sinbolikoetarako behar zuten, besterik ez. Eta boteredunek komunikazio-beharrik baldin bazuten kanporakoa zen, garai hartako mundu-hizkuntza behar zuten (frantsesa edo gaztelera, bistan da) euren negozio eta harremanetarako.

Horrenbestez, euskarak ez zuen paradigma zaharretik irteteko modurik izan Modernitate osoan. Alderantziz, paradigma horretan errotzen joan zen eta paradigmaren moldera egokitzen: euskara basarteko mintzaira da, ahozko hizkuntza landu gabea (idatzi ez delako), tokikoa eta antzinakoa (baserritarren mintzoa izan delako), egia sakon eta arkaikoen gordelekua (historiarik

¹² Kasu batzuetan, galesaren kasuan esaterako, sekularizazioak kaltetu egin zuen bitartekariarena egiten zuen herri-mintzoa. Euskarak ere antzeko egoera bat ezagutu zuen. Norvegian, oraindik ere, estatu-mintzoa eta herri-mintzoa bereizten dituzte: aurrenekoa Danimarkaren administrazioak ezarri zuen hizkuntza da, *rismål* (erresuma-hizkuntza; gaur egun, *bokmål* edo liburu-hizkuntza), eta atzena *ladnsmål*, baserri-hizkuntza, baina izatez, baserri-hizkuntzak batzeko egitasmoa dena (gaur, norvegiara berria edo *nynorsk*). Ikus: O. Bandle et al. (arg.), *The Nordic Languages*, II, De Gruyter, Berlin, 2005, 1.918 or.

ez duelako, historiaurrekoa delako), adierazpide bereziko (linguistikoki, eta kognitiboki apartekoa delako) eta abar... Hala da eta hala behar du.

Larre-paradigmak bi aurpegi ditu: *euskalfobia* eta *euskalfilia*. Euskalfobia hiriko airearekin zabaldu eta hedatu zaigu, hango atmosfera naturala izango balitz bezala; euskalfilia, berriz, erreakziotzat jo dezakegu eta aurrekoa bezain kaletarra dela esango nuke. Baina erroak, batez ere diskurtso landuen aldetik, foru-eliteen apologietan topatu beharko genituzke. Biak ala biak, euskalfobia eta euskalfilia, beraz, eliteen diskurtsoak eta jarrerak izan dira. Hirikoak gehienak, baina landa-eliteek ondo erabili eta baliatu dituztenak.

Esan nahi du honek guztiak euskaldunek eta batez ere, euskal baserritarrek ez dutela euskarari buruzko paradigmatik sortu? Euskaraz bizi izan dira eta euskarari atxiki, eta euskararen alde borrokatu eta lan egin ere bai, baina lotura guztiz praktikoa izan dute euskararekin, euskara sano erabili duten artean. Erabilera trakestu zenean, oztopoak eta gutxiespenak topatu zituztenean, orduantxe hasiko ziren euskarari buruzko paradigma bat sortzen eta horretan erdal mundutik zetozen ideiei eusten. Erregimen Zaharrean Elizaren dotrina biblikoetatik elikatu ziren euskararen aldeko ahaleginak. Geroago, berriz, giza zientziek eta diskurtso politikoek emango zieten argudio eta pentsabide zenbait.

Larre-paradigma zahar horretan bertan jaio zen, ordea, euskaltasunaren paradigma modernoa, han sortu zen ezinbestean eta han, diskurtso eta praktika sinboliko horietan bizi izan da. Han sortua izanagatik, hasieratik zioena eta sentiarazten zuena oso bestelakoa zen. Paradigma modernoa, esan bezala, *nazio-paradigma* da: larre-hizkuntza nazio-hizkuntza bilakatu behar da, hala delako sortzez, baina ahaztu egin da *oro mintzo* izan daitekeela. Horrenbestez, euskara hiritartu edo modernizatu behar zuten. Lizardik eman zigun paradigma honen aldarri ezin hobea; gogora dezagun, *Eusko Bidaxtiaren* hitzak, *Oro mintzo* izeneko olerkian:

*Baña nik, izkuntza larrekoa, nai aumat ere noranaikoa: jakite-egoek
igoa; soña zar, berri gogoa, azal orizta, muin betirakoa.*

Hori zen egitasmoa euskaltasunaren paradigma politikoan: euskarari dagokionez, interesik izan zutenek *nazio-hizkuntza* mailara igo nahi zuten,

beherago zioen moduan (*Amets-bideetan barna*) «*baserriz landa nai aumat ager-arazi, bazterrik-bazter*». Eta, jakina, baserriz landako eremu hura hiri da:

Iri nagusi, giza-erlauntza: zorapenezko aruntz-onuntza, sumabearra, yagintza, sal-eros ekurugaitza, gure elkar-indarrak itzuli bitza!

Hiria beraz, erbestea da, exo-lurraldea euskara eta euskaltasunarentzat. *Gure elkar-indarrak* irauliko ditu hiri-joerak: jende-dentsitate handia, abiadura eta ibilera zoroak, merkatu orojalea... Bistan da, euskalfilia honek modernizatu nahi zuen euskara, aro modernora ekarri, haren legeen neurrira, eta hori zerbait bada, euskara nazio-hizkuntza bihurtzea da; edo bestela esan, hiri-hizkuntza bilakatzea.

Aberri-paradigma, hala ere, larre-paradigmaren ondorengo fidela izan zen luzaro. Ondo elikatu zuen euskararen baserritartasuna, eta baztertu modernizatze aldera sustatu beharko zuen kale-arteko euskara. Gauzak horrela, hizkuntza nazionala, modernoa eta hiritarra egiteko egitasmoa nahikoa kamutsa izan zen, gutxienez 60 hamarkadara arte, orduan hasi ziren gauzak apur bat aldatzen. Arestiren garaietatik eta Atxagaren *Ziutateaz* argitaratu zenetik, iduri du euskarak baduela lekurik hirian eta hiriak euskararen. Ohikoak dira, horrezkero, New York, Bilbo edo Martutene euskal literaturan. Ez da ia-ia inor harritzen, ez zur eta lur geratzeko moduan bederen, Barakaldoko gazteen euskarazko hip-hopak entzutean. Iraultza kultural handi eta ez oso ondo ulertua gertatu zen Frankismoaren hondar urteetan eta ondoren etorri ziren autonomi erakundearen garapen aroan. Euskarak leku propioa zabaldu zuen hirian, hiri-irudikapenean eta hiri-azpikulturetan. Aberri-paradigmaren oldar berantiarren eskutik, euskarak jauzi egin zuen *ohituratik modara*¹³. Bazirudien euskara kaletarra ez ezik, hiritarra ere izan zitekeela, eta areago, kutsu *underground* modernoa zuela berez.

¹³ Alegia, Gabriel Tarderi jarraituz, tradiziozko imitaziotik imitazio modernora. Moda da, nonbait, testuinguru modernoetan praktika baten hedapen fenomenoak, zeresanik gabe doa zer gertatuko den testuinguru hipermodernoetan, baina bistan da euskara modakoa izan dadin modako kontuekin artikulatu beharko dugula, horiek zernahitakoak izanda ere. Ikus: Gabriel Tarde, *L'opinion et la foule*, Du Sandre, Paris, 2006, jatorrizko 1901ekoa.

Asko lortu zen, lortu da. Baina aberri edo nazio-paradigmaren altzoan euskara bere burua modernizatzen eta iraultzen ari zelarik eta nazio-koreografia baten bidez euskal sinkronia berri bat berpizten ari zelarik, bestelako agertoki bat antolatu digute munduko jaugin nagusiek. Honezker, Hipermodernitateak harrapatu gaitu, eta euskara hiri moderno nazionalera ekarzea ez da aski.

4. Hiriak bizitzeko logikak Hipermodernitatean

Nazio-estatuko hiriak, nazioaren fraktal gisa eraikita, sinkronizazio nazionalaren motorrak izan dira. Gaur, berriz, badugu inperio-hiriaren bertsio berri bat: mundu-hiria edo hiri globala deritzona. Han, kultura-artekotasuna eta kultura-askotasuna omen ditugu aukeran. Nazio-hirien sinkronizazioa puskatu egin da. Sinkronia bakarra zen tokian, gero eta zatikatuagoa iruditzen zaigun polikronia dugu. (Hala ere, nazio-hiriak buruan ditugulako pentsatu ohi dugu egungo hiriak polikronikoak direla, baina arestian azaldu legez, hori ez da guztiz berria, Erdi Aroko Lizarra bat esaterako aski multikulturala zen.)

Egun, beraz, hirietan nazio-kultura orokorraren orde, hiri-kultura eta azpikulturak deritzenak topatzen ditugu. Modernizazioaren eskutik etorri da aldaketa hori, ez da guztiz berria¹⁴. Baina modernizazioa globalizatu arau, hiri-bizimodu eta hiri-kultura unibertsal antzeko bat existitzen delako iritzia sortu zaigu. Dena den, hiriek bizigune egonkor bateratzailea izateari uzten badiote ere, elkarretartzeko bilgune espaziala izateari eutsi diote. Hori bai, elkartzeko horiek gero eta *hautazkoagoak* direlarik, eta gero eta *sarbide bereziagoa* dutelarik.

Aldaketak ulertze aldera, hiria bizitzeko eta sentitzeko logika zabalduenei erreparatuko nieke, sentitu ere, hiria bizigune (gisan) edo pasabide (gisan) senti dezakegu eta. Ikus ditzagun sentierok.

¹⁴ Hiri-bizimodu horren hastapenetan deskripzio ezin ederragoak eman zizkigun Simmelek halako bizigune batean behar ziren izaera eta gaitasunez. Aniztasuna eta askotasuna kudeatzeko, nonbait, psikologia berezia behar da, besteekiko lokarriak hausten eta soraio jokatzeko jakin behar da. Ikus: Georg Simmel, «Las grandes urbes y la vida del espíritu», *El individuo y la libertad*, Península, Bartzelona, 1986.

Lehendabizikoa, *egote logika* da. Hari jarraikiz, hiria bizigunea dela sentitzen dugu, bizitzaren habitata dela, auzotasun nabar eta zail baten agertokia, gestionatu eta borrokatu behar den bizitokia. Hiria, kasu honetan, identifikazioa sortzen duen harreman gune publikoa da. Hirian bizi gara, hiria gara. Hiritarra izatea bizigune berezi bateko biztanlea izateaz gain, eskubide eta betebeharez ehundutako identitate soziala da. Integrazioa da, logika honetan, hiritarrei eskaintzen eta eskatzen zaiena.

Bigarrena, *igarotze logika* da. Haren arabera, hiria pasabide bat da, aukerak eskura jartzen dituen zerbitzugune bat, kontsumitu eta bisitatzeko dagoen agertoki hutsal bat. Trafikoa da hiri honen eredia, turistaren eta bezeroaren hiria da. Eta hiri hori identitate sorgunea baino, diferentzien sorgunea eta erakusleihoa da. Hiriek euren arteko lehietan kontsumorako *branding* bereizgarria behar duten moduan, hirietan bertan diferentzien (hots aukeren eta bereizketen) joko zabaltzen da. Hemen eskumen eta betebeharren arragoa ez da integrazioa, mugikortasuna baizik. Bistan da, logika hau da fluxuen hiriarena¹⁵.

Horrenbestez, hiria sentiera batetik zein bestetik eraiki, gauzatu eta bizi ahal da. Biek dituzte arazo espezifikokoak: habitatari dagokionez, jendartea zatikatzea edota zatiak ere ghetifikatzea...; eta pasaerako hiriari dagokionez: gentrifikazioa, urbanalizazioa edota desozializazioa...¹⁶ Baina hemengo honetan hiri-logiken bilakaerari erreparatu nahi nioke. Oro har *polikronia deslokalizatueta* ari gara jotzen, hau da, hirietan bizi arren, ez dugu lehenengo bizimodu trinko, dentsu eta tokian tokikoa, ezta nazio-erritmokoa ere. Haren ordez, arian-arian gero eta lokatuago dauden harreman eta praktikak ditugu: bilguneetatik eta euren artetik lokatuago. Hiria zatikatu dela diogu-

¹⁵ Aurrez aurre, bi ildo horietaz: Manuel Delgado, op. cit., eta François Archer, *Les Nouveaux Principes de l'urbanisme*, Éditions de l'Aube, Paris, 2004. Aurkaritza hori da ez-lekuen gaineko gogoetan agerian jartzen dena, ikus: Marc Augé, *Los «no lugares». Espacios del anonimato*, Gedisa, Barcelona, 1996. Ikuspegi baikorrago batean, ez-lekuetan korritzen duten fluxuen jario dentsuan bizi-energiak sor litezke, ikus: Karl Schlögle, *En el espacio leemos el tiempo*, Siruela, Madrid, 2007, 288 or.

¹⁶ Horretan sakontzeko, ikus: Eduardo Apodaka & Mikel Villarreal, «Los retos psicosociales de la ciudad», Manuel Gonzalez Portilla et al. (arg.) *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea*. UPV/EHU, Bilbo, 2011.

nean, erantsi beharko dugu zatikatze horren ondorioz bizigune itxi eta ha-residunak agertu diren bezala, auzo pribatu esklusiboak ugaldtu diren bezala, bilgune eta plaza publikoak husten ari direla. Ez da soilik urbanismoaren kontua, orokorrean, nork bere harremanak hautatzeko kontrolaren desioa nagusitzen ari zaigu: atomizazioa, norberaren hautamena, harremanetarako teknologiak, sare telematikoak... Segituan doaz herrestan.

Hiriak zeharo aldatzen ari dira, baina teknologia berriak lagun, gehiago ari dira bizi-praktikak eraldatzen. Hirigune modernoak ez dira, dagoeneko, sinkronia berrien agertoki pribilegiatuak. Tamainagatik edota telekomunikazioengatik, hiriak ere lokatu eta polikronia ez-sinkronizatuen agertoki bihurtu dira. Hori dela eta esan daiteke hiriak bere buruaz *gain* egin duela: edonora zabaldu da hiri-bizimodu hipermodernoa. Kasu, gero eta jende gehiago bizi da bakarrik, elkarrekin bizi direnek gero eta denbora eta espazio gutxiago partekatzen dute, eta partekatzen dutenek ere zein bere dispositiboetan murgilduta egiten dute... Eta horrelako tenorean, konexioak, loturak, harremanak edota praktikak leku eta topagune fisikotik lokatu egin dira. Berdin da inguruan hiria edo baserria dugun, aldiriko auzoa edo basarteko herrixka, bizimodu berbera eraman ahal dugu sare telematikoetan sartzeko ahalmen ekonomiko eta kulturala izanez gero.

Hala ere, harreman gune eta uneen zatikatzeak baditu mugak, edo bestela esan, hiri hipermodernoan logika modernoak, neotradizionalak edota hipermoderno hutsak nahasten dira eta hala denez gero, bakoitzak ikasi egin behar du nola ahal duen harremanak kudeatu. Hura da, beharbada, hipermodernoen. Esan legez, hiri hipermodernoan igarotze logika nagusitzen ari da, ez soilik hara-hona ibili behar dugulako etengabe, harremanetan eta eguneroko praktketan jauzika ibili behar dugulako ere: antza denez, aldi berean egon beharra dugu bai sare telematikoetan bai leku fisikoetan (eta behar hau gero eta nabariagoa eta naturalagoa izango zaigu, erabat osagarriak dira dagoeneko), eta horrez gain, leku edo egonaldi behartuek behartutako harreman ez-hautazkoetatik hautazkoetara igarotzen saiatzen gara.

Hiri-bizimoduetan, beraz, nahasten ari dira hiria bera bizitzeko eta bizimodu horiek antolatze logika ezberdinak. Elkarren segidan topatu ahal ditugu, edo hobe esan, *igaro* ahal dugu irizpide ekonomikoen arabera altxa-

tutako hautazko urbanizazio pribatuetatik sustraiduntzat jotzen ditugun jende pilatuen auzotegietara, eta geroago, haietatik irten eta arrazoi politiko edo ideologikoak direla medio sortzen diren neokomunitateen bilguneetara jo dezakegu, edo bizi-estiloen kontura agertzen diren modako praktika esan-guratsuen pasealeku eta erakustokietara hurreratu.

Hizkuntza-praktikak ere saski berean sartu behar ditugu. Hiri-bizipenak bezala, leku jakin batean bizi beharrez sortzen den jendartekoak bainoago, hizkuntza-praktikak fluxuetakoak bilakatzen ari dira. Oraingoz, hala ere, hizkuntza praktikak egote eta igarotze logiken bizipenak mutur banatan izango lituzkeen *continuum* batean paratuko bagenitu, hara-hona genbilzke: alde batean bizi-komunitateei loturik dauden praktiketan eta bestean, berriz, fluxuei loturikoetan. Horregatik batzuetan bizigunearen erritmo kolektiboetan babestu ahal gara eta besteetan, berriz, norberak hautatu dituen erritmoetan aritu. Bizi-komunitateetan hizkuntzaren funtzioak (eta bera bizitzeko erak) norberaren adierazpena eta komunikatze (gatazkatsu eta) komunitarioa izan ohi dira, fluxuetan, ordea, trukea eta jokaera instrumentala nagusitzen dira. Zeinetan da errazago asmoz aldaketarik eragitea? Eta hirien aldaketak ikusita, zeinetan du euskalgintzak eragiteko aukera handiagorik?

5. Eginkizun dugun paradigma hipermoderno eta lurraldegitza

Euskarak paradigma berri bat behar du gaurko eta biharko erritmoetara egokitzeko. Eta bizirik denez, ez dut dudarik, bizitzetik bertatik azaleratuko da. Gogora dezadan, hala ere, paradigmatik, (ideiak, irudikapenak, sentimenduak, eginbideak, asmoak, motibazioak...) eragiten dituzten aldetik, bizitresna eta bizi-eragileak direla. Beraz, lanean hasi behar da asmo esplizituz. Orain, izan ditugun paradigma horiek, hots, larre-paradigma sasi-tradizionala eta aberri-paradigma tradiziozale eta modernoak, paradigma berri batekin nahastu behar ditugu. Ez ditugu ez ahaztu ezta alboratu behar, paradigma berri batean biziberritu baizik. Zein nolakoa izango den paradigma hori ez dut nik esango, egiteke dagoen neurrian ezin esan larregizko ausardia

barik, baina inguru hipermodernoetarako bada, bistan da, hiri-bizimoduaren fluxuetan taxutu behar dela.

Alde horretatik, dilema (sasi-dilema ote?) baten aurrean gaudela esango nuke: badirudi hizkuntzaren bizi-kemena indartze aldera hiztun-erkidego trinkoak behar ditugula, baina aldi berean, hiztun kopurua eta batez ere praktika kopurua zabaldu eta hedatu beharrean gaude. Gaurko baldintzetan trinkotzeari ekiten diogunean neokomunitate horretako bat sortzen dugu maiz. Hiriburuetan (Donostia salbuespena izan daiteke) agerikoa da fenomeno hori: euskaldun aktiboek halako talde, elkarte, sare, komunitate edo topaguneak sortzen dituzte, eta praktika berezietan batzen dira, usu aisialdirako eta berriaz atondutako ekitaldietan, eta aldi berean, eguneroko jardueretan erdal fluxuetan sakabanaturik bizi behar dute. Badute, han-hemenka, euskal babestoki zenbait, baina hiriburuetan euskarak ezin dio egote logika huts bati eutsi. Kontrara, nire ustez gero eta argiago dugu fluxuetan behar dugula euskara, *eguneroko* fluxuetan ahal delarik: hirian barrena egin beharreko praktika arruntetan, hain zuzen, eta ez babestoki mugatu eta ohiz kanpoko jarduera berezietan.

Agidanez, euskalgintzak badu bertute soziogenikorik, alegia, harreman eta elkartasun loturak sortzeko gaitasunik, zeren eta euskaldunak batzeko ahalgintetan dabilenak nahita edo nahi gabean harremanak sortu, landu eta ugaltu egiten baititu. Alde horretatik ere, badirudi euskalgintzak Hipermodernitatearen jaugin nagusi batzuen kontra diharduela: atomizazioari elkarrekin kontrajartzen dizkio, ondare komunak balio gabetzeari mintzo eta kultura komunak balioeste, harreman fluxu telematikoari lurreko harremanak....

Hor dugu berriro ere dilema antzo aurkezten zaigun bidegurutzea: esan bezala, hiriburuetan erruz aldatzen ari da bizimodua, gero eta gehiago biziko gara sare telematiko ez-kokatuetan eta espazio multimedia birtualetan; horiek izango dira, hain zuzen, hirietan gertatzen ari den desinkronizazioari aurre egiteko tresna, haietan berregingo ditugu bizibeharrez josi behar ditugun lagunarteak eta harremanak. Hori bai, hautazko sinkronia iragankorrak izango dira horiek.

Horrez gain, bizimodu hipermoderno hori hiritik kanpora zabaltzen ari da eta horrela hiri-aldiriak ere aldaratzen ari dira (zer ez da lurraldean hiriburu

baten aldiria?). Herrigune dentsorik gordetzen dutenetan ere bizimodu lokatua eta desinkronizatua topatuko dugu. Hiriburuek oraindik ere eusten diote zerbitzu eta elkartzeko gune izateari, erdigune funtzionalak dira bizitzaren arlo gehienetan. Oraindik dira gune erreferentzialak, bai ekonomian, bai kulturean, bai soziabilitatean, gune sendo eta oparoak. Baina, erraz suma dezakegu hiria ez dela lehen bezain beharrezkoa, besteak beste, bere buruaz gain egin duelako.

Azken horretatik tira eginez, eta Euskal Herriaren tamaina dela eta (batez ere, EAEko barne-egiturari begira), *euskal hiria* kontzeptua zabaldu zaigu. Hiri bat izango omen da Euskal Herria; eta ideia gauza dadin lanean ari dira hainbat eta hainbat¹⁷. Ideiak berak badu kutsu politiko neoliberal argia, edo hala nahiago izatera postmodernoa, eta badu halaber Hiriaren Ideologiaren bertsio zaharberritu baten antza. Badirudi Euskal Herria *hiri* bihurtuz, azkenik, modernoak izango garela eta bizkar gainetik kenduko dugula base-ri-hatsa. Alabaina, hau dena ez da nahitaez bete behar den etorkizun bat. Ez dago Historiaren lege baten mendean. Gaurko politikek asko egin ahal dute biharko lurraldea, biziguneak eta bizi-erritmo kolektiboak batera edo bestera hartaratzeko.

Hiriaren Ideologiaren molde hipermodernoetan herriak ez du leku handirik, politikoki kargatuegia delako, eta kulturalki erabat atzeratua. Hiria sistema konplexu gisa irudikatzen zaigu, adituek kontrolatu eta gestionatu behar dutena, eta gehienon atxikimendua lortzeko gobernantza postpolitikoaren eredu gardenak eta parte-hartze bide irekiak eskaintzen dituena. Lurralde-antolamenduari begira, halako pentsamoldeak bat egiten du alderdi askotan posthiria eta hiri barreiatua deritzon harekin. Eta ondorio argi bat antzeman dakiok: lurraldeak kontzentrazioarako tokiko biziguneak galduko ditu ezarian. Udal askok egin nahi dio aurre galera horri, biziguneak berariaz antolatzen eta paratzen ibiltzen dira eta jendeak berez betetzen eta animatzen ez dituen hartarako amuak prestatzen dituzte: ikuskizunak, azokak, jaialdiak... Politika absurdoa: kale-arte dentso eta nabarrak hustu,

¹⁷ Unai Fernandez de Betoñok dioen moduan, ez da metafora bat, hirigintzarako eta lurralde-antolakuntzarako megaproiektu bat baizik. U. Fernandez de Betoño, «Hirigintza eta euskara: marko orokorra», *BAT. Lurralde-antolaketa eta hizkuntza*, 2014 (1), 11-24.

jendea bezero eta ikus-entzule bilakarazi eta ondoren lehengo bizi-dinamikak pizteko esku-hartze bereziak antolatu.

Horregatik ere, euskalgintza ezin da izan bizimodu edo errealtate sozial baten gainean mintzoa, oihal bat izango balitz moduan, zabaltzen duen eskua, ezin da izan errealtatea hizkuntzaren kolore hutsez antzaldatzen duen brotxa. Euskalgintzak ez du lan egiten euskararen corpusean, baizik eta euskararen gorputz sozialean. Eta lan egiten du gorputz hori desartikula ez dadin.

Horiek horrela, dilema deitu diot Hipermodernitatearen bidegurutzeari bitara jo behar delako beti: batetik, euskalgintza eta lurraldegintzaren intersezioan komunitatea bera landu behar baita, baina, aldi berean hiri-bizimoduaren barreiatze fluxu mota guztietan ere ekin behar delako. Aurrenaren adibidea, *arnasguneak* ditugu. *Hizkuntz Parkeraren tentazioa* deituko nioke: abaro seguru bat, hiriaren uholdeak hareazko euskal guneak desegin ez ditzan. Bigarrenaren joera, sareetan jo eta ke ari diren euskal ekintzaileen lana dugu. Honi deritzot interesgarriagoa, *arnasguneak* bestela ulertzeko bide ematen didalako.

Arnasguneen (psiko)geografiak bat egiten du larre-paradigmaren ildoarekin: euskarak atzera egiten du erdal hiri-oldarraren aurrean, baserrialdean beroki bila, horrela *lurgune euskaldunaren* zerrenda irudikatzen da, itsasertzetik hurbil eta paraleloan korritzen duen zerrenda bat. Baina nik esango nuke ondorioetan biziki hipermodernoa dela. Ez soilik kultur parke tematiko baten antzera babesten duelako lurgune hori, baizik eta ondo zonifikatzen duelako jardun-eremu hura ere: hirigune barreiatuaren amarauna osatzen duten gainerako zonalde monofuntzionaletan beste bat¹⁸.

Baina nekez iraungo dute hizkuntza-babesleku horiek hango jendeek ez badute bizitza osoa bertatik bertara egiten. Eta gainera ondorio kal-

¹⁸ Honetaz, adigarri diren bi testu hauek gomendatuko nituzke: D. MacCannell, *Empty Meeting Grounds*, Routledge, 1992, eta J. Comaroff & J. L. Comaroff, *Ethnicity, Inc.*, University of Chicago Press, 2009. Bestalde, askotan begitantzen zait eremu libreen gerrilla-estrategia dugula buruan, alegia, gotorlekuetatik igorriko dela euskalduntze orokorra. Hartan ere, euskararen galeraren urratsak oso modu linealean ulertzen ohi ditugunez, maiz euskalduntzea ere garapen lineal eta zentrifugo baten bidez lortuko dela irudikatzen dugu. Uste dut esperientzia nahikoa dugula jakiteko euskalduntzea polizentrikoa, nahasia, ez-lineala edota aurrera eta atzerakoa dela.

tegarriak izan litzake aipatu psikogeografia horrek, handik kanpo bizi direnak euskara *besteguneko* kontua dela irudikatzen hasiko balira. Ez dut, hala ere, babesgune eta arnagunearen ideia guztiz baztertzen, baina *gunea* toki edo zonalde batzuekin identifikatzeari uko egitekotan. Arnasguneak bestela ulertu beharko genituzkeela uste dut, *gunearen* tokian *fluxua* edo *elkarrekintza-jarioa* edo antzeko zerbait jarri beharko genukeela. Milaka mikro-arnasaldiz bilbatutako amarauna begitantzen zait era kargarriagoa. Era berean, utzi beharko genioke jendea eta haren hizkuntza-gaitasunak itxitura geografiko-administratibo estankoetan sailkatzeari eta ekin euskal praktikak, jarduerak, aukerak eta beharrak zenbatzeari.

Hizkuntza-koreografiak, areago euskal koreografiak, ez dira besterik gabe aldi eta toki berean egotearen ondorioz artikulatuko, berariazko lana beharko dute. Euskaldun komunitatea (sare, amaraun edo nahikara deitu) gauzatzeko eta zentzuz janzteko ariketa koreografikoak ugaltu eta indartu beharko dira. Eta ezaugarri berriak izan beharko dituzte: maiz, komunikatzeko teknologiak lagun, aldi eta toki ezberdinetan daudenak uztartu beharko dituzte, lokala eta globala artikulatu beharko dituzten moduan, hartara koreografia irekiak izan beharko, eta hizkuntza aldetik sarri hainbat hizkuntzaren nahas-mahasak izango dira (etengabeko translazio eta itzulpen ariketetan arituko dira hiztunak).

Panorama orokorra, globalizazioak dakarrenari hemendik egindako erresistentziak eta asistentziak gehituta ere, polikronia zabal batena izango da, han atonduko dira euskal koreografiak, aski desinkronizatuak, zeren euskararen erabilera nekez izango da nazio-hirien elebakartasunarena. Aurrean duguna aniztasunaren kudeaketa da. Ondo dakigunez ere, aniztasuna hierarkizatua izaten da usu, halakoetan hizkuntzen arteko desoreka sozialak berdinduko badira, erruz behar dira erabaki eta esku-hartze politikoak. Hiri-bizimoduan, *sinkronia anitzeko espazio* zabal hartan, euskarak aldi berean izan beharko luke koreografia sinkronizatuen doinua eta sare desinkronizatu zein elkartze iragankorren osagai egoskorra. Horrela esanda dilema dirudi, ez da ordea: praktika komunak josiz egitura sozialak sortu behar baitira eta hartatik praktika indibidualizatuak kolonizatu behar baitira.

Bibliografia

- AUGÉ, M., 1996. *Los «no lugares». Espacios del anonimato*. Barcelona: Gedisa.
- APODAKA, E. eta VILLARREAL, M., 2011. «Los retos psicosociales de la ciudad», Manuel Gonzalez Portilla et al. (arg.) *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea*. Bilbo: UPV/EHU.
- ARCHER, F. 2004. *Les Nouveaux Principes de l'urbanisme*. Paris: Éditions de l'Aube.
- BANDLE, O. et al. (arg.), 2005. *The Nordic Languages, II*. Berlin: De Gruyter.
- BAT soziolinguistika aldizkaria, 2014. «Lurralde-antolaketa eta hizkuntza» izeneko dosierra, BAT 90 (1).
- CASTELLS, M., 1977. *The Urban Question*. London: E. Arnold.
- COMAROFF, J. eta COMAROFF, J.L., 2009. *Ethnicity, Inc.*, University of Chicago Press.
- DAVIS, M., 2006. *Planet of Slums*. New York: Verso.
- DELGADO, M., 2011. *El espacio público como ideología*, 9-17. or., Madrid: Los libros de la Catarata.
- ELIAS, N., 1987. *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*. México: F.C.E.
- FERNANDEZ DE BETOÑO, U., 2014. «Hirigintza eta euskara: marko orokorra», BAT. *Lurralde-antolaketa eta hizkuntza*, 2014 (1), 11-24.
- GELLNER, E., 1995. *Naciones y nacionalismo*. Madrid: Alianza.
- HALL, E. T., 1990 (jatorrizkoa 1959). *The Silent Language*. Anchor Books.
- LEFEBVRE, H., 1980. *La revolución urbana*. Madrid: Alianza Editorial.
- LEFORT, C., 2004. «L'Europe: civilisation urbaine», *Esprit. La ville à trois vitesses : gentrification, relégation, périurbanisation*, mars/avril.
- LIPOVETSKY, G. eta SERROY, J., 2008. *La Culture-monde*. Paris: Odeile Jacon.
- MACCANNELL, D., 1992. *Empty Meeting Grounds*. Routledge.
- , 2001. *Lugares de encuentro vacíos*. Barcelona: Melusina.
- MANN, M., 1991. *Las fuentes del poder social, I*. Madrid: Alianza.

MONGINE, O., 2013. *La Ville des flux: L'envers et l'endroit de la mondialisation urbaine*. Paris: Fayard.

SASSEN, S., 1991. *The Global City: New York, London, Tokyo*. Princeton Univ. Press. 1.

SCHLÖGLE, K., 2007. *En el espacio leemos el tiempo*, 288 or., Madrid: Siruela.

SENNET, R., 2001. *Vida urbana e identidad personal*. Barcelona: Península.

SIMMEL, G., 1986. «Las grandes urbes y la vida del espíritu», *El individuo y la libertad*. Barcelona: Península.

TARDE, G., 2006 (jatorrizkoa 1901). *L'opinion et la foule*. Paris: Du Sandre.

WEBER, M., 1942. *Historia económica general*. Mexiko: FCE.

Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbivalentziaren presentzia

Prácticas lingüísticas en las grandes urbes y en las ciudades del mundo: la presencia de la ambivalencia

Pratiques linguistiques dans les grandes zones urbaines et dans les villes du monde : présence de l'ambivalence

Language praxis in conurbations and cities around the world: the presence of ambivalence

AIERDI, Xabier

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2015-05-13

Noiz onartua: 2015-07-20

Euskera. 2014, 59, 2. 503-544. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hirietan erronka handia dauka euskarak, baina are garrantzitsuagoa egungo eskualde euskaldun estrategikoak mantentzean, eurak dira-eta euskararen biziraupenaren bermea. Beste batzuen artean, Donostialdea eta Donostia bera ezinbestekoak dira. Euskararen etorkizuna anbibalentziaz josia dago, eremu, lurralde edo gizarte-egoera bakoitzean erabakiak hartu beharko direlako, gero eta erabaki espezializatu eta zatikatuagoak. Hazkunde handia ezagutu du euskarak hiriburuetan, bereziki tasa oso txikietatik abiatzen zirenetan. Tasa hori altuagoa izan denean, hazkundera moteldu egiten da eta sabaia dagoenaren irudikapena sortzen da. Nolanahi ere, hirian euskararen alde eta kontra dauden gizarte sektoreak nabarmenago nabaritzen dira, baina orain arteko erronka historikoak handiak izan badira, handiak izaten jarraituko dute. Hutsune eta ezintasun guztiekin azken 35 urteotan oro har asmatu egin da eta horrela jarraitu beharko du izaten.

Hitz-gakoak: hiria, modernotasuna, gizarte-taldeak, kapital kulturala, anbibalentzia.

El euskera tiene un gran reto en las ciudades, pero más importante puede resultar el consolidar las zonas euskaldunes estratégicas, porque son estas la garantía de la supervivencia de dicha lengua. Entre otras, Donostialdea y Donostia son imprescindibles. El futuro del euskera está lleno de ambivalencias, debido a que habrá que tomar decisiones en zonas, territorios y contextos sociales muy diferentes. Decisiones cada vez más concretas y parciales. El euskera ha conocido un gran crecimiento en las capitales, particularmente en aquellas que partían de unos índices de conocimiento muy bajos. Donde esos índices eran más altos el crecimiento se ha ralentizado, dando la sensación de que se ha tocado techo. De todos modos, en las ciudades se reflejan más nítidamente los sectores que están a favor y en contra del euskera, pero si hasta ahora los retos históricos han sido grandes, en el futuro lo seguirán siendo. Aún teniendo en cuenta todas las carencias e incapacidades que ha habido, en los últimos 35 años en general se ha acertado y así tendrá que seguir siendo.

Palabras clave: ciudad, modernidad, grupos sociales, capital cultural, ambivalencia.

La langue basque est un grand défi à relever dans les villes, mais il peut être plus important de consolider les zones bascophones stratégiques car elles sont la garantie de la survie de la langue basque. La zone de Saint-Sébastien et la ville de Saint-Sébastien sont en particulier indispensables. L'avenir de la langue basque est plein d'ambivalences, car il faudra prendre des mesures dans des zones, des territoires et des contextes sociaux très différents. Des mesures de plus en plus concrètes et partiales. La langue basque a connu une croissance importante dans les capitales, en particulier dans celles qui sont parties de niveaux de connaissance très bas. Là où ces niveaux de connaissance étaient les plus élevés la croissance a ralenti, donnant la sensation qu'elle avait atteint son maximum. De toute façon, dans les villes on discerne plus nettement les secteurs qui sont favorables et défavorables à langue

basque, mais si jusqu'à ce jour les défis historiques ont été importants, dans l'avenir ils vont continuer de l'être. Malgré les carences et les difficultés du passé, ces 35 dernières années elle s'est consolidée et continuera à le faire.

Mots-clés: Ville, modernité, groupes sociaux, capitale culturelle, ambivalence.

Basque faces a major challenge in the towns but an even greater one in maintaining today's strategic Basque speaking areas, since these are a bulwark for its survival. Among other areas, Donostia and its surrounding district are essential. The future of Basque is riddled with ambivalence, as decisions need to be taken in each area, district or societal situation, at ever more specialized and fragmented levels. Basque has grown substantially in the major towns, particularly in those where initial levels were very low. Where the level is higher, growth slows down and gives the impression that a ceiling has been reached. In any case, social sectors for and against Basque in the city are increasingly visible. If the historical challenges have been substantial until now, they will continue to be so in the future. In spite of the failings and limitations of the past 35 years the process has on the whole been successful and must continue to be so.

Keywords: city, modernity, social groups, cultural capital, ambivalence.

Euskarak gizarte-mugak ditu, batez ere hiri-mugak, eta horren ondorioz badugu zer aztertua eta baita estrategiak berrikusi eta berritu beharra ere. Antzeko iritzia eragile eta aztertzaile askok du, hala adituek nola erakundeek, eta urrunago joan gabe Euskara XXI ponentzia ideia honexetan oinarritzen da.

Ez naiz soziolinguistikan jantzia, baina gizarte-prozesuen oinarritzko ezagutza batek jarreraz sosegua eta teorikoki gure oinarrien berrikuspena eskatzen dutela esaten dit. Esan ohi da ez dagoela ezer praktikoagorik teoria on bat baino, baina azken hiru hamarkada eta erdietako hizkuntza-praktika(k) eta -politika(k) ikusita, agian geldiuene bat eskatzen dutela nabaritu daiteke. Ez luzeegia, noski, ez dugu-eta behar den astirik. Ito ere, ez genuke egin beharko. Objektiboki, duela hiru hamarkada zegoen egoerarekiko, aurrerakuntza espontziala ezagutu du euskarak. Edonola ere, euskararentzako eredu propio bat sortu behar dela gero eta argiago dago. Ez da Katalunia gure eredu, ez euskararen, ezta beste kontu ugaritan ere. Ekar daitezke handik adibide batzuk, baina hobeto geure errealitateak hasita eta gure masa kritikoz baliatuz bide propio bat bilatzeari ekitea. Ez dago munduan gurea bezalako hizkuntza errealitate bat, estaturik gabe, ingurukoekin zerikusirik ez duen hizkuntza txiki bat bizi zibilizazio-hizkuntzen artean garatu beharko duena. Gainera, frantsesaren – dotoreziaren nazioarteko hizkuntza– eta gaztelaren –mundu hizkuntza– azpian desagertu ez izanarekin pozik egon beharko luke, eta bere transmisioa bermatu dutenek eta beronetara inkorporatu direnek harrotasunerako esku-bidea irabazia dute. Ospatzekoa, lehenengo eta behin!

Edonola ere, eginiko ibilbidearen ostean, aditu asko teoria eta praktika berri bat sortzearen aldeko posiziora heldu da. Teoria egokirik ezean fenomenoaren kausa beste nonbait bilatzen da, gehienetan borondatean: pertsonalean edo politikoan. Borondatea argudio eskasa izaten da, ez baitago inon gizarte baldintzak eta posizio aurkariak edo etsaiak suntsituko dituen borondate nahikorik¹. Egoerak argitzeko eta azaltzeko gizarte prozesuetara jo

¹ «Borondate politikorik balego» esaten den bakoitzean gertakariak laborategi batean gertatzen direnaren irudia ematen da. Errealitate soziopolitikoan edo kulturalean borondate bati beste bat kontrajartzen zaio, eta hori ez da borondate kontua, botere kontua baino. Maila pertsonalean hitzunari zama astuna eta erantzukizun handia egotzen zaizkio, euskararen egoera bere bizkar gainean eramango balu bezala.

behar da; ez testuingururik gabeko borondatera. Gizarte-asmoak gizarte-testuinguruetan garatzen dira, eta hauetan zenbait helburu egingarri da eta beste hainbat ez². Marxek ere jendarteak historia egiten zuela esan zuen, baina ez nahiko lituzketen aukeraturiko baldintzetan. Historiaren ikuspegi kontrafaktikoari³ jarraituz sekula ezingo dugu jakin gauzak beste modu batera eginda zeintzuk izan zitezkeen fruituak. Beraz, baldintzapen soziologikoak arakatzea egokiagoa da, sozialki egin ezin dena ezin da praktikan ekoiztu eta.

Euskararen berreskurapenari ondoko konstanteak dagozkie.

1. Hasierako eta egiturazko eskasia: ez dugu izan eta ez dugu gizarte ereduak inposatuko dituen burgesia nazionalik. Euskal Herrian, egotekotan, egon izan den burgesia espainolista izan da; oro har, oligarkia industrial ezjakina.
2. Historikoki, inon egin ez den saiakera batean aritu gara. Ezagutza zenbaki oso eskasetatik abiatuta, gizarte oso bat berreskuratu nahi izan diogu euskarari, eta hori seguruenik ezinezkoa da.
3. Kultura, euskara eta instituzionalizazio politikoaren inguruko borroka ideologiko basatia eta antzua 80. hamarkadan indar politiko abertzaileen artean.
4. Abiapuntu teoriko itxaropentsu eta inozoa: ezagutzak ezinbestez erabilera dakar.
5. Eta esan den moduan, ez dugu munduan inportatu dezakegun eredurik.

Hirietara etorrira, ezaugarri hauek ditugu:

1. Dilema praktiko bat dute euskal hiriek: euskaldun ehuneko ez nahikoa alde batetik baina bestetik euskaldun kopururik handiena.
2. Hizkuntza-nahikotasun praktikaezina.

² Aurrerago aipatuko den moduan, euskaltasuna ez da posible izan gure historia eta proposamen etniko-politikoan, eta hutsune nabarmen bat da.

³ «Zer gertatuko zen beste hau gertatu izan bazen» galderari erantzuten dio historia kontrafaktikoak.

3. Inon euskara beharrezko ez den gunerik egotekotan, hori hiria da.
4. Aurkari oso indartsuak daude hirietan. Aldeko batzuk, ordea, eta oro har, ahulezia estrukturalaz jota ditugu: kapital sozial eta kultural eskasekoak dira.

Hortik aurrera, hirietan zer egin? Pazientzia, belaunaldi pare bat, nahikotasuna ziurtatu, euskara praktikagarri egin eta, orokorrean, presaz eta ezinbestez, desagertzen doazen belaunaldi euskaldunen ordezkokoak bilatu/bilakatu/sortu hala hiri nola landaguneetan. Euskararen etorkizuna eta bilakaera seguruenik errealitate urbanoarekin lotuta dago, batez ere hiriburuarekin eta hauei dagozkien eskualdeekin, berauetan bizi da eta euskaldun eta biztanleria gehiena. Gainera, errealitate urbanoa eta landagunekoa bereiztea ezinezkoa da Euskal Herrian, kulturaren ikuspegitik lurralde osoa praktikan ia *continuum* urbanoa delako.

1. Taula. Biztanleria eta euskaldunak hiriburu eta hiriburuen eskualdeetan (%)


Dagokion herrialdeko zenbateko biztanleria (%)		EAEko euskaldunetatik zenbateko %	
Eskualdeak	Bilbo Handia	75,4	25,9
	Arabako Lautada	80,0	7,2
	Donostialdea	45,7	17,6
		50,7	
Hiriburuak	Bilbo	30,1	10,0
	Gasteiz	74,6	6,6
	Donostia	25,5	9,1
		25,7	

Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Biztanleriaz aparte ere, euskaldun kopuruak erakusten du lau euskaldunetatik bat Bilbo Handian bizi dela eta Bilbon bertan, euskaldun gutzietatik

%10. Donostialdean ia bost euskaldunetatik bat bizi da (%17,6) eta euskaldunen kopuru absolutuei dagokienean, Donostia Bilboren parean dago. Araban, azkenik, euskaldunen %7,2 bizi da eta eurretatik ia gehienak Gasteizen (%6,6). Hiriburuetakako eskualdeetan euskaldunen %50,7 bizi da eta hiriburuetan %25,7.

1. Grafikoa. Hiriburuen eskualdeetan euskararekiko harremanaren arabera bizi den biztanleria, 2011, (%)



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Kokatzeko balio diguten datu batzuk hartuta, hiriburuen eskualdeetan biztanleria osoaren bi heren bizi da (%66,7), euskaldunen erdia (%50,8), ia euskaldunen %72,7 eta erdaldunen %78,6. Nolanahi ere, hiru eskualde hauetan euskaldunen presentzia oso nabarmena da eta datuek uste den baina fenomeno urbanoagoa dela erakusten dute, nahiz euskararen inguruko erretorika gehienak nekazari eta landa eremura lotuta ikusi.


Dena dela, alde batetik, biztanleriak euskararekin duen harremana hartzen badugu eta, bestetik, udalerrien tamaina, udalerrien tamaina handitu ahala euskararen ezagutza txikitu egiten dela ikusiko dugu. Ezagutza kopuru handienak 20.000 biztanle arteko udalerrietan agertzen dira eta udalerririk horietan populazioaren erdiak edo gehiagok euskara daki. Hortik gora, biz-

tanleria gehiagoko udalerrietan heren batetik (%33,6) laurden batekora artekoa (%26) da ezagutza.

Dinamika beherakor honetan, badago egon salbuespenen bat Gipuzkoa-ko udalerrri txiki eta ertainen artean, 5.000 eta 7.500 eta 10.000 eta 20.000 biztanledunekoetan, ezagutza zenbakiak oso esanguratsuak dira eta: hurrenez hurren, %58,1, %53,4 eta %51,3.

Datu hauetan oinarrituta, herri euskaldun txikiagoak eredutzat hartzen baditugu, badirudi praktikoki herrietatik hiriak setiatu behar dituela euskarak. Nola? Astiro eta metaketa kuantitatiboekin. Kopuru hazkuntza toki guztietan beharrezkoa da, baina metaketak ekarriko ditu aldaketa kualitatiboak? Auskalo! esan liteke alde batetik. Ez dago beste biderik!, bestetik.

2. Grafikoa. Euskararen ezagutza udalerrien tamainaren arabera (%)



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Etor litekeena aurreikusteko, azken hiru hamarkadetako bilakaeraren azterketa ezinbestekoa da. Gainera bilakaera ondo neurtzeko Erkidegoko

lurraldeetatik egin beharra dago, berauetan baino ez du euskarak zeukan erronkaren neurriko hizkuntza-politikarik. Nafarroako eta Iparraldeko ereduak liberalismo kulturalak eta asimilazio politikoak dakartzan ondorioak erakusten dizkigute. Horrela, hurrengo taulan lurraldeek eta erkidegoak bizi izan dituzten ezagutza kopuruen hazkundera ikus liteke, 2. taula.

2. Taula. Euskararen ezagutzaren bilakaera lurraldeka eta EAEn, 1981-2011, (%)

	1981	1991	2001	2011 Biderkatzea	
EAE	21,6	26,3	32,3	37,2	1,72
Araba	3,9	8,6	16,2	23,9	6,12
Bizkaia	14,9	18,9	25,0	31,2	2,09
Gipuzkoa	39,5	45,9	51,5	53,3	1,34


Iturria: Egileak egina, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuetan oinarrituta.

Hazkundera ez da nolana hikoia. Erkidego osoan %21,6 izatetik %37,2 izatera. Araban, igoyerarik handiena: %3,9tik %23,9ra. Bizkaian, %14,9 zen aurreko ezagutzaren ehunekoia eta %31,2 2011n. Igoyerarik leunena Gipuzkoan gertatu da: ezagutza ia %40 zen 1981an eta gaur egun %53,3 da. Hazkunde hauen biderkatzeari erreparatuta beste datu esanguratsu bat antzeman daiteke: abiapuntuan euskararen ezagutza altua denean igoera zailagoa dela, Gipuzkoan gertatzen den moduan. Errendimendu marjinal beherakorrak eragiten ote dio euskarari eta sabai gaindiezin bat edukiko ote du? Datu hutsa ala joera den ikusteko adi egon beharko dugu. Are gehiago, badirudi datu hau interesgarria izan litekeela, ehuneko batetik gora euskaldun berriak egitea gero eta zailagoa izan daitekeelako. Edonola ere, sabaiarena denbora kontu bat baino ez da⁴.

⁴ Euskara XXI ponentzia aurkeztu zenean, *Euskal Herrian Euskaraz Elkarteak* euskara Erkidegoan errekuuperatzeko 175 urte behar zirela esan zuen eta Nafarroan 800. Kalkulua egiteko modutik aparte, euskarak aurrera egingo badu epeak ez dira arazo.

Edonola ere, beste hipotesi bat garatu aldera, posible litzateke ere ezagutzaren hazkundea gora egitea baina abiadura geldoagoan, eta agian hori da etorkizunaren muina. Hipotesi honen arabera, euskarak gora egingo du baina gero eta erritmo motelagoan, behintzat abiapuntuan ezagutza nahiko nabarmena deneko kasuetan. Horrela, duela gutxira arte, kezka euskararen ezagutzaren igoera bazen, aspaldian erabilera eta ezagutzaren arteko jausira joan da. Hurrengo urteotan bigarren lotura hau, ezagutzatik erabilerarenera doana, bultzatu behar da, ze badirudi igoerak logika propio bat duela: goitik hasten denean ez da gehiegi igotzen; bai, ordea, azpitik hastean.

3. Grafikoa. Biztanleria eta euskarekiko harremana eskualdeka, 2011




Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Dena dela, etengabe bi aldagairekin jokatu beharrean gaudela dirudi. Alde batetik, zelan banatzen den euskaldungoa eskualdeka. Eta horren arabera hiriburuetakoez biltzen dute euskaldun kopururik handiena, baina horrek ez du gutxiesten beste eskualde batzuek egin dezaketean eta praktikoki egiten duten ekarpen estrategikoa. Are gehiago, badirudi egungo egoeran ezinbestekoa dela hurrenkeran datozen eskualdeen parte hartzea: Uro-

la Kosta, Durangaldea, Goierri, Debagoiena, Tolosaldea eta hurrengoak. Eskualde hauetan jokatzeko eta bermatzeko da euskararen etorkizun hurbila.

Eskualde hauek ez dira guztiz urbanoak biztanleria eta udalerrien biztanleria kopurutik, baina oro har kultura urbanoa eta hiri bizitza oso hedatua dago gure Erkidegoan, eta baita Euskal Herri osoan eta, ondorioz, eskualde hauetan ere. Gehienek gehiago dute urbanotik landagunetik baino. Horregatik, eskualdeko datuak beste modu batera aurkeztu eta nahastuta euskararen intentsitate indizea sor genezake, baina aurretik alde aurreko urrats bat erakutsi gura dugu, euskararen ezagutza tasa eta euskaldunak eskualdeka nola banatzen diren ikusteko. Euskaldun tasa handiena Markina-Ondarroa eskualdeak du, baina euskaldunetatik %2,6 baino ez. Erabakigarriagoa izan liteke ikuspuntu honetatik Urola Kosta euskaldunen %6,8 barne sartuz eta bertako biztanleria osoaren %76,1ek euskara ezagututa. Antzeko egoeran daude Durangaldea, Goierri, Debagoiena, Tolosaldea, Gernika Bermeo, Debabarrena eta abar, ez baitiogu bakarrik parametro bati erreparatu behar, biek sortzen duten emaitza bateratuari baino.

4. Grafikoa. Euskaldunen banaketa eskualdeka. EAE. 2011. Zenbaki absolutoak




Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Horregatik, intentsitate indizeak sintetizatzen du aldagai bien uztardura eta hortik identifika genitzake eremu geografiko estrategikoak: gune trinkoak eta dispersiodunak. Indize hau lortzeko aurreko bi aldagaiak erabiliko ditugu. Horrela, eskualde bakoitzak duen euskaldun tasa eta euskaldunetatik zenbat barne hartzen duen jakinda, bi tasak biderkatzen ditugu eta ematen duten batuketa orokorra 100 oinarrira erreduzitzen dugu. Taula gainean (3. taula) erakusten ditugu urratsak emateko jarraitu dugun prozedura: A: ezagutza tasa; B: zenbat euskaldun barne hartzen duen eskualdeak; indizea =

$$\frac{(a \times b) \times 100}{\sum a \times b}$$

5. Grafikoa. Euskaldunen banaketa eskualdeka eta eskualde bakoitzeko euskararen ezagutza tasa, 2011, (%)



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

3. Taula. Euskararen intentsitate indizea eskualdeka, 2011, (%)

	Biztanleria	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak	A: Ezagutza %	B: Euskaldunen portzentaia	A X B : Biderketa	Indizea
Donostialdea	314.917	138.990	84.686	91.241	44,1	17,6	777,1	17,2
Bilbo Handia	850.643	204.717	244.042	401.884	24,1	25,9	624,1	13,8
Urola Kosta	70.905	53.958	9.160	7.787	76,1	6,8	520,1	11,5
Debagoiena	60.268	38.135	11.472	10.661	63,3	4,8	305,7	6,8
Goierri	65.418	39.310	12.500	13.608	60,1	5,0	299,2	6,6
Gernika-Bermeo	44.915	32.404	6.828	5.683	72,1	4,1	296,1	6,6
Tolosaldea	45.934	32.606	7.253	6.075	71,0	4,1	293,2	6,5
Durangaldea	95.003	46.607	22.975	25.421	49,1	5,9	289,6	6,4
Debabarrena	53.305	31.263	11.093	10.949	58,6	4,0	232,3	5,1
Markina-Ondarroa	25.735	20.869	2.465	2.401	81,1	2,6	214,4	4,8
Arabako Lautada	249.108	56.992	65.209	126.907	22,9	7,2	165,2	3,7
Plentzia-Mungia	52.878	26.154	14.732	11.992	49,5	3,3	163,9	3,6
Bidasoa Beherea	74.025	30.414	19.743	23.868	41,1	3,9	158,3	3,5
Arratia-Nerbioi	22.869	12.526	4.841	5.502	54,8	1,6	86,9	1,9


	Biztanleria	Euskaldunak	Ia euskadunak	Erdaldunak	A: Ezagutza %	B: Euskaldunen portzentaia	A X B : Biderketa	Indizea
Kantauri Arabarra	33.636	9.677	9.420	14.539	28,8	1,2	35,3	0,8
Enkartzioak	31.147	7.103	8.473	15.571	22,8	0,9	20,5	0,5
Gorbeia Inguruak	8.559	3.611	2.061	2.887	42,2	0,5	19,3	0,4
Arabako Errioxa	11.326	2.442	2.477	6.407	21,6	0,3	6,7	0,1
Arabako Ibarrak	5.840	996	1.469	3.375	17,1	0,1	2,2	0,0
Arabako Mendialdea	3.155	665	663	1.827	21,1	0,1	1,8	0,0
EAE	2.119.586	789.439	541.562	788.585	37,2	100,0	4.511,6	100,0

Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Exhebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Lortzen den indizearen arabera, euskarari legozkiokeen kontuetan Donostialdeak Bilbo Handiari nagusigoa kentzen dio eta azken honi asko hurbiltzen zaio Urola Kosta. Bai eskualde honek eta baita bere atzetik datozenek barne hartzen duten euskaldunen kopuruko zifra baino altuagoa lortzen dute intentsitate indizean, beraz estrategikoak dira euskara eta hiriaren arteko talkan. Besteak beste, Debagoiena, Goierri, Gernika-Bermeo, Tolosaldea, Durangaldea eta beste zenbait, Arabako Lautadaren aurretik agertzen dira. Baina, garrantzizkoenak, esan moduan, Donostialdea eta Urola Kosta dira.


Panorama hau osatzeko, hiriaren errealitatea eta hiriburuek jokatzen duten rola ezin da ukatu eta bizi izan duten bilakaera esanguratsua azpimarragarria da: Bilbok hirukoiztu egin ditu euskaldunak, Donostiak bikoiztu eta Gasteizek zortzi aldiz biderkatu, (6. eta 7. grafikoak).

6. Grafikoa. Euskararen ezagutzaren bilakaera hiriburu eta gainontzeko hiru udalerri kopurutsuetan, 1981-2001



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

7. Grafikoa. Hiriburu eta udalerrri kopurutsuenetako euskararen ezagutzaren bilakaera, EAE, 1981-2011, (%)



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.


Ehunekoetan ere gora egin du euskararen ezagutzak eta 1981eko egoerarekin erkatuta, Bilbon eta Gasteizen laurden batek daki euskara eta Donostian %40k.

Gainontzeko udalerrri kopurutsuenek normalean lurraldeko dinamikaren eredua jarraitzen dute. Horrela,

1. Barakaldo bezalako udalerrri bat Nerbioi ibarreko ezker aldean gertatu denaren erakusle da. Abiapuntua, dinamika eta prozesu guztia oso modu antzekoan garatu dute eskualde honetako udalerriek. Udalerrri hauetan euskara praktikan ez egotetik %20 ingurura igo da.
2. Beste muturrean, oso ezagutza altuagoetatik hasitakoek igoera leunagoa ezagutu dute.
3. Praktikan ia euskaldun elebakarrak zirenak euskaldunen ehuneko txikitu egin dute.

4. Eta, azkenik, badaude zenbait udalerri hazkundera atzerakada txiki bat pairatu dutenak 2001 eta 2011 artean, atzerriko immigrazioa eta gune erresidentzialen ezarketaren ondorioz, seguruenik.
5. Oso nabarmen ikus litezke prozesu hauek, 10.000 biztanletik gorako udalerri guztiak kontuan hartuta eta 1981etik 2011 artean ezagutza tasetan bizi izan duten bilakaera aztertuta (Ikusi 1. eranskina).
6. Donostiak ere beste eredu bat erakusten du: euskaldunena da talderik kopurutsuena, ia euskaldunak eta erdaldunen aurretik dago zenbaki absolutuetan. Eredu hau Gipuzkoan hedatuago dago, baina Bizkaian ere gertatzen da -Galdakao, Durango- (8. Grafikoa).

8. Grafikoa. Euskara dakitenek talde kopurutsuena direneko ereduak



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Egoeraren erretratu hau bukatzeko, hiru mapa erantsiko dira (2. eranskina): bata, euskaldunak lurralde osoan nola banatzen diren ikusteko; bigarrena, kanpo immigrazioaren banaketarena eta, hirugarrena eta garrantzikoena, euskararen bermearen geografia erakusten duena, eta ikusten den moduan gaur egun oraindik bermagunetik kanpo geratzen dira faktikoki hiriburuak. Donostia, neurri batean, bermagunearen alboan edo ia barruan legoke.

Hiri munduak eta mundu hiriak

1. Gai honen inguruan, ez da erraza ezer berririk esatea. Datuok ikusita, badirudi teorikoki behintzat hirian eta epe luzean jokutzen dela euskararen biziraupena. Argi dago hirietan presentzia nabarmenagoa lortu ezean errenkan ibiliko dela eta momentu oro ahaleginak non egin eta nola garatu erabakitzen aritu beharko dute hala instituzio-buruek nola gizarte eragileek. Agian, errezeta eta teoria itxi bat baino, *work in progress* bat izango da euskararen etorkizunaren bermearen nolakotasuna. Euskararen etorkizuna eta hiriarekiko harremana anibalentziaz josia dago, eta agian hitz honek beste edozeinek baino hobeto azaltzen du datorkigun ibilbidea.

Printzipioz errazagoa dirudi hiriek eta batez ere hiriburuek udalerrri txikiagoetan euren dinamika irradiatzea, alderantziz baino. Azken bi mendeak modernotasunarenak izan dira. Berdin du gaur modernotasun berantiarrean egoteak. Esana dago, berantiarrean honek modernizazioaren modernizazioa dakarrela, prozesuen abiaduraren azkartzea eta gizarte-egitura eta instituzioen suntsiketa erlatiboa.

Modernotasunaren ezaugarri bat hiri-kulturaren garaipena izan da; egun, biziagotu baino ez da egiten izaera hau. Euskadi, euskaldunak eta, oro har, abertzaleak estrabikoak dira, eta kultur- eta politika- eskariak egiteko begi batetik iraganeko izaeran sustraitu eta legitimatzeko tradizioa begiratu behar badute, begi bizkorrenak helburua etorkizunean kokatzen du. Euskaldunek (areago euskaradunek) janzkera tradizionaletan joera postmaterialistak ezkututzen dituen taldea osatzen dute. Begiratu baino ez zaie egin behar balioen inguruko ikerketei⁵. Modernoegia da Euskal Herria, nahiz eta bere sektore batek eta kanpoko ugarik helburu nazionalistak antigualekoak kontsideratzen dituen. Egungo hutsalkeria edo sinplekerien eremuko uste ezarri bat. Askok uste du unibertsalista izateak antiabertzalea izatea eskatzen duela eta partikularistak halabeharrez atzerakoiak direla. Baina honetan ez dut astirik alferrik galtzeko.

⁵ Javier Elzo eta Maria Silvestre (Zuz.), *Un individualismo placentero y protegido. Cuarta encuesta europea de valores en su aplicación a España*, Deustuko Unibertsitatea, 2010.

Izaera moderno honek Euskal Herriko lur eremu ia guztia kutsatzen du eta zaila da hiri-kulturaren *continuumean* egon litekeen marra banatzailerik ikustea. Euskal kultura oso da modernoa. Edukiei dagokienean ez dago euskal hedabideak baino modernoagorik. Ezin liteke aurkitu euskal kulturaren –eta zer esan, esaterako, bertsolaritzan– baino gai modernoagorik⁶. Azken urteotan kultura honek euskal kultura inbaditu eta bere egin du, beraz hiri munduak aspalditik daude euskarara helduak⁷. Egungo euskalduna akzioz edo omisioz modernoa da.

Arazoa ez dago euskal kulturaren eta euskaraz egiten denaren edukian, ze esaterako euskal eliteek unibertsitatean zientzia egiten dute. Arazoa ez da ere nondik etorri den modernizazio hori, gazteleratik, frantsesetik edo ingelesetik, edo gure gizarte aberatsari dagokion kultura erantsitik. Berdin dio, ibilbidea egina dago. Euskara gaurkotua dago.

Bestalde, ahul agertzen da Bilbon eta Gasteizen, baina Donostiako kasua bestelakoa da eta hizkuntzarekiko harremanaren arabera taldekatzeak egiten baditugu, Donostia da hiruretatik bakarra non euskaldunen ehuneko ia euskaldunak edo bakarrik erdaldunak direnena baino handiagoa den –ikus 8. grafikoa–⁸. Beraz, Donostiarako errezeta eta Gipuzkoa osorako ia beste parametro lasaigoetatik aztertu beharra dago.

Kontua euskara ezagutzen dutenen kopurua bada, fokismoa praktikatu ote daiteke eta posible ote da hiriak inguratzea eta setiatzea? Badirudi ez dagoela indar nahikorik ezta masa kritikorik ere. Eta momentuz, ezta beharrik ere. Honen guztiaren ondorioz, hiriburuek neurri handi batean prozesu endogenoekin indartu beharko dute, euskararen hedadura barruko dekanazioak ekarriko du, eta arretaguneak eta indarrak banatu beharko dira hiri eta landaguneen artean. Hiriak irabazteko ezin dira udalerriri eta eskualde

⁶ Bertsolaritzak azken 10 urteotan ezagutu duen gai berrikuntza oso adierazgarria da. Soziozentrismoa nagusitu da eta ikaragarria da, nahiz eta bertsolari emakumeek zalantzan jarriko duten, genero ikuspegiak ekarri dion eraldaketa.

⁷ Atxagak hitz egin zuen *Euskal Hiriaz*.

⁸ Ez dago esan beharrik euskara dakien orok gaztelera dakiela. Betiereko perfekzioaren ordeze goera duin eta progresiboekin konformatzea eraginkorragoa da.

estrategikoak babesik gabe utzi. Bakoitzari berea, eta estrategia lokalizatu eta girotuak sortu behar dira.

Babesak bikoitza beharko du izan: instituzionala, eskualde hauetan gizarte prozesuek euskara eta bere erabilera elikatzen jarrai dezaten eta, soziala, hiri eta kultura urbanoaren indar koertzitiboak eskualdearen barne prozesuak galgatu edo ahuldu ez ditzan. Alde instituzionaletik, udalerrri eta eskualde hauen dinamika suspertu eta indartzea dakar, euskararen intentsitate maila mantentzeko gaurdaino agian izan ez ditugun programa eta plangintzak asmatuz eta sendotuz. Sozialki, euskara harrotuz eta euskaldun izatearen balioa gizartean zabalduz.

Euskalduntasunari eta euskaldun izateari legezkiokkeen betebeharrei izaera tragikoa kendu behar zaie eta hiztun izatearen nahikotasuna agertu behar da. Arazoa, arazoetako bat, ezagutza eta erabileraren arteko jauzian badago, hitz egitearen balioaren bideak bila ditzagun, bere eguneroko normaltasunean, beste inolako sakralizaziorik gabe. Iraganekoa den jarrerari, herrieta-koak hirietakoen aurrean konplexuz beterik egon izanaren ondorio linguistikoei, buelta eman behar zaio eta solas soilaren balioa aldarrikatu. Horretarako gizarte prozesu erabakigarriak ezarri behar dira, eskualde hauetan arruntena eta berezkoa euskaraz solastea izan dadin.

2. Zentralitatea halabeharrez egungo Autonomia Erkidegoan jarri behar da, berau delako euskararen bilakaera babestua daraman gune politiko eta administratibo bakarra. Besterik da, galdetzea ia egin behar zen guztia egin den eta behar zuen erritmoarekin. Ez dugu sekula jakingo. Baina eginikoak ondo erakusten du zer-nolako aldea dagoen babesa edo aldeko hizkuntz-politika izan edo/eta liberalismo kulturean oinarritu. Nafarroarekin edo Iparraldearekin konparatzea nahikoa da. Iparraldean eta Nafarroan euskara Erkidegoko egoerarik kaskarrenaren mailan balego pozteko arrazoiak leudeke. Hiru lurraldeen -Nafarroa, EAE eta Iparraldea- arteko aldeak hizkuntz-politika ezberdinen ondorio dira; euskararen kontra aritzea edo kontutan ez hartzea ere hizkuntz-politika da-eta.

80. hamarkadaren hasieran, antzeko posiziotan zeuden udalerrri asko eta adibidez konparagarriak ziren Tutera eta Barakaldo, Gasteiz eta Iruñea. Ikasteko motibazioak eta euskararekiko atxikimenduak ekarriko zituen gero

beste hainbat ñabardura, baina abiapuntu antzeko batek egin dena baloratzeke eta ez egiteak zer suposatzen duen jakiteko argibideak ematen dizkigu. Instituziorik eta instituzionalizaziorik gabe ez dago etorkizunik. Joera anti-instituzionala indartsua izan da euskal kulturaren eta askotan nahaste handiarekin instituzionalizazio politikoa, hizkuntza eta kultur politika eta erakundetzearen beharra ere inpugnatu dira.

3. Kezkatzeko datu ugari dago, baina ez halaberrez hiriarri dagozkionak, lurralde osoari baino. Adinari lotutakoak, desagertzen doazen belau-naldiak, horien ordezkariak, atxikimendu automatikoa edo erreflexiboa, eta abar.

Baina, hirien arazoa hiztunen kopurua bada, euskararen arazoa bikoitza da: 1) Nola ugaltu hiztun kopurua, eta 2) dakien pertsona batek zergatik hitz egiten ez duen. Lehen arazoa, denbora kontua da, hezkuntza sistematik etorriko da batik bat; beraz, konfiantzaz jokatu eta hezkuntza sistema etengabe hobetu beharra dago. Bigarrenak zeresan gehiago eman du, asko idatzi da, analisi sakonak egin izan dira, baina ezin dugu: 1) gupida gabe jokabide hori salatu eta, batez ere, 2) bide edo azalpen errazik proposatu.

Arrazoi soziologikoen eta sare sozialek hobeto azaltzen dute hiztun isilaren egoera, borondate edo arrazoi pertsonalek baino. Ez dut honen inguruan inolako zalantzarik egiten. Hitz egitearen beharraren diskurtsoa guztiz presente dagoenean, hiztungaiek egiten ez badute ezinezkoa zaielako da. Gizarte koertzioen ezagutza beti mugatua da. Gizakiok gizarte jokoan aritzen gara eta edozein hizkuntzatan beronen erabilera dotoreago eta zuzenagoa duen pertsona baten aurrean mututu edo isildu egiten gara. Isiltasunaren espiral batean sartuak gaude eta horri buelta emateko tresnak aurkitu behar dira, bestela euskaraduna (berria edo zahar alfabetatu gabea) ez da hiztun bilakatuko.

Prozesu konplexuak azalpen errazekin ezin dira argitu. Praktika kulturalak praktika politikoak dira. Bourdieuk aspaldian idatzi zuen luze eta ondo hitz egiteak esan nahi zuenari buruz. Bourdieuk zioen⁹: «bikaintasun lin-

⁹ Pierre Bourdieu, *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Akal, Madril, 1985

guistikoa bereizten duten ezaugarriak bi hitzetan labur daitezke, distintzioa eta zuzentasuna». Oso interesgarria da Bourdieuren liburuaren azpiztitulua: «hizkuntz trukaketen ekonomia». Alabaina, gune atomizatuak, pertsona bakartiek, erabilera intermitenteek ezin dute komunitate lagungarrikeri sartu. Immigrazio prozesu historikoak aztertzen edo birgogoratzen direnean, «auzoko euskalduna» oso ohikoa zen Barakaldo eta inguruko udalerrietan oraindik 90. hamarkadaren hasieran¹⁰. «Euskaldun» honi euskara bera ere ez zitzaion eskatzen, abizen euskaldunak nahikoa ziren-eta.

Hirietan, ez edukitzearren, ez dugu ezta «auzo euskalduna». Ez dugu gune trinkorik, eta baleude ez genuke jakingo nola epaitu beharko genituzkeen: zer da egokiago, ghetizazioa ala ezarketa sakabanatua? Askotan, ezberdintasun kulturalak edo etnia bat mantentzeko modurik aproposena lur eremu bat harresi handiekin banantzea/babestea da, ez baitago beste erremediorik. «Harresi altuek auzotar onak egiten dituzte» esan ohi da eta horrela funtzionatu izan da Estatu Batuetako hainbat hirietan. Ba ez da hori euskararen egoera, eta gainera behartuta dago etengabeko zehaztugabetasun geografiko berezko batean garatzen, jakin gabe trinkotzea edo sakabanaketa den aproposena. Arazo ikus litekeena, agian aukera da. Batek daki!

Zer beharko luke izan? Hiri guztirako eredu ala hobe enklabeetan lortuko du biziraupena? Lanak hain handi eta ugariak izanda, ez dago atsedenerako astirik eta bietan ekin behar da. Baina bestalde ezin zaio gizarte bati edo gizarte bateko sektore bati beti militantziaren jarrera mantentzea eskatu. Antropologiak momentu sakratu eta profanoak bereizi behar direla frogatua du. Ernest Gellner antropologo handiak komunismoari eta marxismoari ikusten zien akatsik handiena bi eremu horiek bereizi ez izana da, dena sakratua zelako edo bilakatzen zelako, baita eguneroko bizitza ere. Ezin dugu horraino behartu hiztuna, atsedena beharko du¹¹. Seguruenik, magikotu dadin euskarak errelato berri bat behar du, berreskuratzearen mitologia

¹⁰ Egun datorren atzerriko etorkin batek euskararen errealitatea presenteago du Espainiatik duela hirurogei urte etorri zirenek baino.

¹¹ Euskaldun izatea oso nekeza izaten da. Ruper Ordorikak kantatzen duen moduan «Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den, Hobe nuela hautatzea Munduko hiritar izatea», *Zaindu duzun maite hori* kantatzen.

agortua dago eta. Horregatik, euskarari bizi diren edo euskarara hurbildu diren hiritarrei bekatuan bizitzea permititu beharko zaie, munduaren zama (edo euskararen salbazioa) eta erantzukizuna eramatea ez baita erraza.

4. Badirudi, gaurdaino behintzat, hiriaren dinamika euskararen aurka doala. Esan ohi da eta historikoki halaxe izan da «hiriaren aireak libre egiten gaituela». Besteak beste, hiriak euskaratik askatzeko balio digu gaur egun, askatasun ikusezin eta erantzukizun gabekoa delarik gainera. Aurreko belaunaldi euskaldunentzako, konplexua sortzen zeneko tokia zen hiria, onarpena bakarrik arrote edo ezjakinaren rola betetzetik zetorrelarik¹². Ondorioa? Isiltasuna!

Hiztun osoa ez denarentzako, hiria hainbat koertzioetik urruntzeko ezkultureku aproposa da, aproposena, hirian baino ez gara (edo izan gaitzke) anonimoak eta. Anonimotasunak komunitatea errotik erasotzen du, taldekideak komunitateko muga eta ohituretatik urruntzeko aukera du-eta¹³. Urruntzea bilatzen ari bagara gizarte kontrola errotik ahul liteke hirian. Beraz, aldi berean, hiria zenbait gauza da. Gune fisiko bat da. Bizipen berri eta ugarien gunea ere. Ugaritasun eta dibertsitatearen kokalekua. Hala, modu naturalean garatzen ez den zerbaitek, etsaia dauka hirian. Hori gertatzen zaio euskarari. Aspaldian desagertuta zegoeneko espazioa berreskuratzea zaila izango du eta, agian, lortuko ez duenaren hipotesia edo bakarrik neurri batean aurrera egingo duenarena aurreikusi eta garatu beharko genuke¹⁴. Momentuz, hiria desleku¹⁵ bat izan daiteke euskarentzat, aspaldian desagertu zen eta berrerrotzen joan behar du, landare kolonizatzaile baten

¹² ETAREN biolentzia desagertuta berriro dator «basati onaren» promozioa, *Ocho apellidos vascos* pelikulak erakutsi duen moduan. Berrogei urte eta gero hau!

¹³ Oso interesgarriak dira Manuel Delgadok «in-diferentziaren» alde egiten duten hautua. Bere ustez, «diferentziara daraman eskubidea»-ren parean ezezagun izateko eskubidea ere bermatu behar da. Ezin dugu pertsonarik taldekatu bere nahiaren kontra. Ezin ditugu talde etnikoak parke tematikoak bilakatu. Immigrante batek eskubidea osoa eduki beharko luke des-senegalدارra izateko, kasu.

¹⁴ Zenbaitetan hiria, hiriburua, euskararen kokagunea izan denaren inguruan zalantzak bidezkoak dira.

¹⁵ Marc Augé. *Los no lugares. Espacios del anonimato. Una antropología de la sobremodernidad*, Gedisa, Bartzelona, 1993. Bereziki, hirugarren kapitulua. Deslekua identitate-, harreman- edo historia-tokitzat ulertu ezin den lekua da.

antzera. Legeak lagundu diezaioke noski, baina aurreko landareak ordezkatzeko edo aurrekoen artean kokapen arruntak eta estrategikoak bilatzeko gaitasunean datza bere arrakasta edo porrotaren emaitza¹⁶.

Hiriaren dinamikak gainera erantzukizuna leundu eta desagerrarazi egiten du, hartzuna askeago sentitzen da eta lokarri afektiboa urtu egiten da. Edo urtzeko aukera gehiago ematen du¹⁷. Gune komunitarioetan halabeharrez mantendu behar diren pautak erraz alboratzen dira talde kontrolak guztiz presente ez daudenean edo modu baretuan aplikatzen direnean. Hirian gainera, joko zail baten aurrean, ia dilema batean, autokokatzen da euskara: zelan aplikatu arau komunitarioak komunitaterik ez dagoen tokian. Hiriak, beraz, jokamolde oso aukerakoa permititzen dio pertsona euskaldunari, kontrolik gabekoa eta horrek euskara erabili beharretik libratu egiten du. Hor dator magikotzearen beharra osakin afektiboa indartzeko eta erabilerarako jauzia ahalbidetzeko. Nola lortu? Auskalo! Patxadaz eta konfiantzaz.

Anbibalentzia etengabe batean mugitu beharrenden ondorioz, euskarak hirietan egoera sakabanatua ezagutzen du eta, era berean, erreferentzia nagusia balitz bezala funtzionatu behar du, gutxiengo oso aktiboak eta enklabeak sortuz. Sektore askoren hautesmatean halaxe da: euskaratik oso urrun bizi diren pertsona askok, gainerrepresentazioaren¹⁸ jarrerari esker, euskararen irrupzioari dominazio kutsua hartuko dio¹⁹.

¹⁶ Euskarak kopurua, beraz, hartzun arruntak, eta eliteak behar ditu hirietan.

¹⁷ Euskararekin balio digu Zygmunt Baumanek egungo gizartea ezaugarritzeko asmatu duen kategoría: «modernotasun likidoa». Komunitateak «jokaera solidoak» eskatuko lituzkeen moduan, hirian aukera gehiago dago eta portaera likidoaren aukera zabaltzen da: «Tarteka euskaraz hitz egin nezake, baina euskaratik ezkutatu egin naiteke ere».

¹⁸ Psikologia sozialak erakutsi du «berria» edo «eskasa» denaren kopurua gainerrepresentatu egiten dugula. Oro har, sentitzen duguna ikusten dugu; nekez, dagoena. Esaterako, arrazistek etorkinak nonahi eta neurritz kanpo ikusten dituzte, eta gainera inguratuta sentitzen dira. Oso interesgarria da Arjun Appaduraireren *El rechazo de las minorías. Ensayo sobre la geografía de la furia* liburuko laugarren kapitulua (*El temor a los números pequeños*), Tusquets, Bartzelona, 2007, 67-110 orrialdeak.

¹⁹ Euskara osasuntsu dagoenaren inpresioak eragin negatiboa izan dezake euskaldungoan, eta izaten du, des-arduratzeko aukera ematen dielarik. Gainerrepresentazioa euskaldunen edo euskarara inkorporatu direnen artean hedatu ez dadin eta salbaziobidean dagoela uste izanik norberaren erantzukizuna ez apaltzeko, publizitate zuzeneko kanpainak egitea mesedegarria izan daiteke.

5. Talde mailan, hiria ezinbestez eremu minatua da euskararentzako eta erraz elika dezake *neurotikoen aliantza*. Charles Taylor kanadiar aditu eta teoriko komunitaristak dio Québec bezalako guneetan, eta gureak badu horretan nolabaiteko antza, talde baten ametsak aurkakoaren amesgaiztoak direla, eta alderantziz. Beraz, edonon errezeloa agertzen da.

Mekanismo honek hirietan makina bat min eta arazotxo sortzen ditu egunerokotasunean. *Praktika egokidun* bilduma bat beharko genuke²⁰. Honelako egoerek, eta oro har *neurotikoen aliantzak*, ba ote dute erregulazio posiblerik? Egoera delikatuak izaten dira eta normalean maila pertsonalean eragiten dute eta jarrerak -positiboak batzuk, negatiboak gehienak- sortzeko oso egokiak izaten dira. Horrelako egoeretan, eskari duinak erantzuteko justiziak espazio eskasa izaten du. Duintasunaren orde *arrazoizko egokitzeak* behar dira²¹.

6. Beraz, hirian ugari, ikusgarri eta kontzentratuta aurki litezke euskara behar ez duten, nahi ez duten edota euskaratik urruntzen diren taldeak. Hiriak euskarari erresistentzia forma anitzetan kontra egin diezaioke. Hirian hobeto antzeman daitezke euskararen aldeko eta kontrako sektore sozialak. Soziologikoki ez dira gizarte taldeak, agregatu estatistikoak baino, ez baitute sarritan talde bat osatzen dutenaren kontzientzia, ezta jokabide amankomun adosturik, eta horrela jarrai dezatela. Baina, azken finean taldeak bailiran jokatu edo des-ekiten dute. Identifika ditzagun sektoreak. Sektore hauek euren praktika kulturaletan batzuetan klase posizioekin bat datoz, beste batzuetan hizkuntzak berak hainbat sektore barne hartzen ditu eta etorkinen kasuan inposatu egiten da beren posizio soziala jatorriaren gainetik²². Hona hemen identifikatu litezkeen sektore-klase-hizkuntz portaearak.

²⁰ Oso ohikoa den egora mingarri bat tabernari bati euskaraz egitean gertatzen da, praktika inkriminatorioak normalean pobreei zuzentzen zaizkielako. Noski eskaria egiten duenak ere bere burua desleku etengabearen ikusten du.

²¹ Gérard Bouchard eta Charles Taylor, *Etorkizuna eraikitzea. Adiskidetzeko garaia*, Ikuspegi, Bilbo, 2010. Québec-en garatu zen Bouchard/Taylor txosten eredugarrian adibide ugari ditugu.

²² Batez ere, hierarkia sozialaren azken tokian daude, etorkinak direlako eta baita klase behekoena edo sektore pobreena direlako.

6.1. Hirian argiago ikusten da euskara ezertarako behar ez duen sektore bat. Besteak beste, enpiriko eta faktikoki behar ez duelako, oso erraz eta inolako arazo barik garatzen du egunerokotasuna eta euskararen beharra ez du nabaritu ere egiten. Sektore honek entzuna omen du euskara martxa onean berreskuratzen ari dela, eskoletan erabiltzen dela, poztu ere egiten da norbaitek dakienean, baina hor amaitzen da euren atxikimendu guztia. Ez egotearren, batzuetan ez daude kontra ere, baina beren praktikarekin erresistenteak dira, oso neurri handian aurrekontzientea edo kontzientea delarik jarrera hau. Sektore honek euskararekin inolako harremanik ez izatean, tirabirarik ere ez du askotan. Arazo handiago dute euskara beharrezko edo puntuagarri duteneko sektoreek, euskarak euren mugikortasun goranzkoan mesede edo kalte egin diezaiekeenean. Euren seme alabak hirietatik kanpo dauden goi klaseko zentroetara deslokalizatzen dituzte, euskararen presentzia guztiz marjinala delarik. Sektore honek kapital ugari du eta nolabaiteko goi klase bat osatzen du. Sare sozialak ditu, eta baita kapital ekonomiko eta kultural handia. Beraz, euskarari dagokionean errealitate paralelo batean bizi dira eta bizi daitezke. Beraz, ez dute behar euskararik, ez dute seme-alabentzako eskatzen, eta euskaratik urrun eta euskararen kontra bizi litezke. Eransten den 9. grafikoan kapital ekonomiko gehien eta kultural dezentea dutenak dira. Badago tartean, klase altuaren sektore bat, bozka abertzalea eginda ere, egiten ez duena euskararen hautua. Normalean, hauen seme-alabak aurreko gizataldekoekin ezkontzen dira, birprodukzio ekonomiko-sozialari kulturalari baino garrantzia handiagoa ematen dietelako.

6.2. Badago beste sektore bat, profesional eta lizentziadunena, euren seme-alabentzako euskara ereduak aukeratu dituen, eta aurrekoaren beste kapitalak ez baditu ere, ez dira askoz txikiagoak, behintzat kapital kulturalari dagokionean. Sektore honek goranzko mugikortasuna bizi du. Gaur egun klase ertain sendo bat da eta badute kapital kulturala, eta euskara kapital honetan gehitzen duten beste osakin bat da. Euskaldunekin batera, hirietan estrategikoenak dira. Momentuz, gurasoak dira, erdaldunak, profesionalak asko edo gehienak, seme-alabak euskara eruedetan matrikulatu dituzte eta *curriculum ezkutua* eta osatzen dituzten gizarte sareak igorriko dizkiete. Denboraren poderioz eta estatus sendo bat mantentzen badute klase ertain altua bilakatuko dira eta, etorkizunean, «aristokrazia kultural»

gisa jokatu dezakete, ez agian eurak, baina bai euren seme-alabak. Sektore honen sendotasuna Gipuzkoako euskaldungoaren parekoa da: ekonomiko-ki oso ondo kokatuak daude, profesionalak dira, ikasketa tasa altua dute eta kontsumo kultural neurrikoa ere. Bidaide indartsu bat bilatu ahal du euskarak sektore honetan, baina bidea luzea eta geldoa da, seme-alabengana transferitzen dena. Seme-alabak hiztun osoak bilakatu daitezten, gurasoenganako kanpaina neurtu eta ondo zuzenduak helarazten asmatu behar da.

6.3. Kapital kultural eta kapital ekonomikoaren arabera, ondoren eta aurrekoaren parean, askotan euskaldungoa legoke: klase altu, ertain eta behekoaz osatua dago. Altukoa zati txiki bat, ertaina ugaria eta behekoa eskasa. Gizarte egituran oso ondo kokatua dago, maila intelektual handikoa da, ekonomikoki sendoa, eta ezaugarri hauek gora egiten dute euskararen ehuneko altuenak dituen Gipuzkoan. Oro har, egituraren aldetik euskaldunek ez dute arazo handirik eta printzipioz euskara harrotzeko nahikoa gizarte baliabide dute. Sektore honetan estrategikoa da hezkuntzan eta administrazioaren maila guztietan ari den azpisektore ugaria. Hauen eta zenbait sortzailearen esku dago euskara eta bere gaitegia berri eta gaurkotzea. Jarrera eta baloreei dagokienean oso modernoa da sektore hau.

6.4. Azkenik, hirietan eta euskal herrian, euskara periferia sozial eta geografikoetara hedatu da, gutxitan hiriaren zentrogunera. Zentrogunean aurretik aipatu ditugun sektoreak daude. Behe klase gehiena, hezkuntzaren bidez, euskarara ailegatu da. Azpisektore honek ez du gizarte botererik eta ez dira erreferentzialak, baina kopuruaren ikuspegitik euskararentzako ezinbestekoak dira, hiztun hazkundera besteak beste hortik etorriko da eta. Euskara behar dute ezinbestez, berari esker goranzko mugikortasuna bermatu dezakete eta. Eta euskarak behar ditu ezinbestez.

Hauen azpitik eta oro har euskararen geografia sozialetik kanpo etorkinak daude, eta baita euren seme-alabak, baina honek ez du horrela -fatalitate ekidinezin modura- zertan izan behar. Immigrazioaren kopururik handiena hirietan dago eta normalean bi erronka daude biztanleria honetik: 1) Batez ere, A eredura joaten dira eta gehienetan inolako hezkuntza berrikuntzarik ez duten zentroetara, beraz hemen badago zeregina instituzioetik eta gobernutik, eta 2) immigrazioak euskararen arazo batzuk indartzen

ditu, baina ez du berririk sortzen²³. Programa integrala eskatzen du immigrazioa eta euskararen arteko harremanak, mugimendu batean bi helburu betetzeko: gizarte-inklusioa eta hizkuntzarena ere. Harreraren prozesua bukatuta eta hizkuntz aniztasunean hierarkia logikoak ezarrita, bada edo heldu da interbentzio integral honi aurre egiteko unea.

Hurrengo taula honetan, sektore bakoitzak euskararekin duen harremana zehazten dugu. Egia esan ez dugu ikerketa zehatzik honen inguruan eginik, beraz intuizio informatu batetik egiten da ezaugarritzea. Edozelan ere, beste gai batzuetarako balio badu (identitatea, ideologia, estatu forma, eta antzekoetarako), euskararako ere abiapuntu gisa balio digu. Sektoreka euskara eta bere eskaintza zatitu beharrean gaudelakoan nago, eskaintza bereiziaz eginik, eta horrek inbertsio ekonomiko handia, ikerkuntza sakonak eta publizitate kanpaina zuzenduak eskatzen ditu.

4. Taula. Euskararekiko hurbilpena sektore/klase eta kapital ezberdinen arabera

Sektoreak	Kapitalak			Euskarara hurbildu
	Ekonomikoa	Kulturala	Soziala	
Goi klasea	Handia	Handia	Oso handia	Oso gutxi / Ia ezer
Hiri klase ikasia	Dezentea	Handia	Handia	Erdizka
Euskaldungoa	Dezentea	Handia	Handia	Erabat
Behe klasea	Eskasa	Eskasa	Eskasa	Ia erabat
Immigrazioa	Oso eskasa	Oso eskasa	Eskasa	Gutxi


Iturria: Egileak egina.

Egoera hau zientifikoki aztertzeaz dago, eta ez legoke txarto sektore hauetan -klase eta azpiklaseetan- euskararekiko zer-nolako diskurtsoak eratu eta mantentzen dituzten ezagutzea.

Grafikoki honela geratzen dira klase sozialen euskararekiko posizio sozialak:

²³ Erramun Osa eta Xabier Aierdi, «Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?», *Euskera*, 54 lbkia., 3, zenbakia, Bilbao, 2009, 1433-1452 orrialdeak.

9. Grafikoa. Euskararen gizarte geografia



Iturria: Egileak egina.

7. Ondorioz, euskara, klase sozialak eta etniak elkar topatzen duteneko bidegurutzetako konplexuan kokatuta dago ere. Praktika kulturalak praktika politikoak dira beti, eta politikak gure gizartean ez du lubaki ideologikorik, identitatekoa baino. EAEn ez dago momentuz tokirik talka ideologikoetarako. Datu batzuk: gurutzatzen ditugunean identitate subjektiboaren bost posizioak (euskalduna baino ez -V/E-, euskaldunago -+V/Ego-, identitate bikoitza -D/B-, espainolago -+E/Ego-, espainiarra baino ez -E/E-) eskala ideologikoarekin (ezker-eskuin) eta eskala nazionalistarekin (euskal nazionalista-espainiar nazionalista) eta zenbait urtetako bilakaera egiten dugunean (2007-2014), zer ikusten dugu?²⁴

²⁴ Eskala bietan (0= abertzaletasuna edo ezkerra; 10= espainolismoa edo eskuma) identitate era bakoitzak eta erkidegoak batz bestez ematen duten puntuazioaz ari gara.

1. Ez dagoela borroka ideologikorako aukera handirik. Gizarte honek ongizate maila oso altua du, balore modernoak oso hedatuak ditu eta oro har kutsu sozialdemokrata. Horrela 3,5 eta 5 artean kokatzen dira bost identitate subjektiboak. Ez dago polarizazio ideologikorik. Bizi estiloak edo gehienez klase ideologiko ahulak ditugula dirudi. Distantzia ideologiko handiena 2,8tik (2012ko inkesta) 5,6ra (2011koa) doana da. Ezker-eskuineko eskalaren bataz bestekoan, 3,7an dago Erkidegoa; beraz, euskal gizarteak ezkerrera modu leunean jotzen du. (3. Eranskina ikusi).
2. Baina, nazionalismoaren eskala kontuan hartzen badugu, polarizatu egiten da egoera, eta 8 puntuko distantzia agertzen da, 1,2tik 9,2rako eta Erkidegoaren bataz bestekoa 3,8 edo 4 da²⁵. Hau da, gure erkidegoak egungo Autonomi Estatutuaren subiranotasuna baino gradu handiagoa nahi du, baina urrunegi joan gabe. Gure herriak *etnokrazia* nahi du, ez independentzia²⁶. Bertakoek («gureek») gobernatu dezatela, hor amaitzen da abentura (4. Eranskina ikusi).


Urte bateko adibidea hartuta, esaterako 2014koa, 2 puntutan aldentzen gara ideologikoki identitate subjektibo ezberdinetakoak eta 6,7 puntutan nazionalismoan, eta hizkuntza (euskara), gainontzeko objektu politiko-kultural erabakigarri guztiak bezalaxe, adostasunik gabeko edo zaileko lubaki

²⁵ Antonio Rivera, Patxi Lópezen Gobernuako Sailburuordeak, Eva Larrauri kazetariari 2010eko azaroaren 14an, esaten zion: «El Contrato Ciudadano por las Culturas, el plan estratégico que impulsa el departamento, va camino de no alcanzar el consenso, declaraba: Nuestra intención es que el Contrato salga adelante. El problema no es si de partida debe alcanzar un acuerdo mayoritario o no. Sabemos cuál es la posición de las Diputaciones, una postura estrictamente política, pero lo importante es que el documento se mejore con las aportaciones de los sectores, de la ciudadanía, del futuro Consejo Vasco de la Cultura, y que se ponga a funcionar. Discutimos y perdemos mucho tiempo en debates parapolíticos que no tienen esencia y retrasamos las oportunidades de desarrollo. El punto de confrontación es de referencias: nosotros hablamos de ciudadanos, y la palabra produce urticaria a los nacionalistas, que prefieren hablar de comunidad, palabra que a los que no somos nacionalistas nos genera cierta zozobra. ¿El que hace una película o edita libros tiene que estar dependiendo de si el Gobierno y la Diputación son partidarios de una cosa o de la otra?», *El País del País Vasco*, 6. orri.

²⁶ Walker Connor, «Democracia, etnocracia y el Estado Multinacional moderno: paradojas y tensiones», in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Vitoria-Gasteiz, 1989, 111-130.

kultural-identitario honetan sartuta egongo da beti. Ez da orain arte erraza izan, eta etorkizunean halaxe izango da. Hau da, borroka ideologikoa sako- na izan ezin den moduan, identitate-borrokak hartzen du haren lekukotza. Beraz, identitatea espainolago edo identitate bikoitza dutenak eta goi mai- lako posizio ekonomikokoak euskarari lepoa ematen diotenak dira.

10. Grafikoa. EAEko nazionalismo- eta ideologi-eskalak identitate subjektiboaren arabera, 2014



Iturria: Egileak egina, 2014ko Immigrazioaren Barometroan oinarrituta, Ikuspegi.

Gainera, zoritxarrez, gure historian eta ulerkera etnikoan badago hutsu- ne oso nabarmen bat: *euskaltasuna*²⁷ sortu barik dago eta, txarrena, ezin da sortu. Sabino Aranarengandik hasita logika etnikoa bakarrik formalki alda- tu da, ez errealitate materialean. Agian, maila pertsonalean posible da, bai- na kolektiboki ez da egon izan. Horrela, hemen *abertzaleak* eta *espainolistak* daude²⁸. Euskaltasunak, euskaltzaletasunak, euskara suspertzen lagun deza- ke, baina dagoen jauzi etnikoarekin euskara batik bat abertzaleena baino ez dela kontsideratuko da. Abertzale sutsuek inplizituki hala uste dute eta aurkari indartsuek euskaratik urruntzeko egoera hau baliatu egiten dute, euskara baztertze sinbolo modura erabiltzen dela esanez. Gainera aber- tzale askoren kontraesana -euskara idealki maitatu, baina ez ikasi, ez eta

²⁷ Jarrera modura oso ahula da eta soziopolitikoki eraiki ezin den posizio soziala da.

²⁸ Banaketa hau oso presente egoten da abertzaleen planteamendu bitarretan, egunerokotasu- nean eta teorikoki.

gutxiago erabili, modu erritualean ezpada- oso ondo datorkie izaera sinbolikoa sinesgarri izan dakien.

Sektore aurkariak erakartzeko logika etniko hau apurtu eta ordezeko bat asmatu behar da, bestela ezagutzaren hazkundearen sabaia nabarmenagoa izango da, eta honelako egoeretan justiziaren printzipioak ez du inolako eraginik eta ikuspegi errealista batetik txikiak eman behar du amore beti. Abertzale izateko ez da euskara jakin behar, bozka abertzalekoek euskara ikasi izan balute hirietan askoz egoera osasuntsuagoan egotea ekarriko luke²⁹. Erabakigarriena ez da euskara, bozka ondo edo egoki ematea baino. Herri bakoitzak bere historia propioa du eta Bourdieuk behin eta berriz esango duena aplikatu liteke hemen: ezerezetik zaila zerbait ateratzea. Hone-tan ere euskarak anibalentzian jokatu behar du, abertzale eta ez-abertzale izan eta era berean despolitizatu beharra. Funanbulismo jokoetan trebatu beharra dago.

9. Hiriak esan dugun moduan bizi estilo propio bat du, behintzat hala esaten da. Hiria nahasmenaren tokia da, beraz,

1. lehenengo eta behin hiri mundua euskarara helduta dago eta nolabait euskara bera ere kolonizatu du. Hiri mundua modernizazioaren emaitza bada, euskararen edukien lidergoa daramatenek aspaldi hor kokatuta bizi dira. Areago, esaten denaren kontrara, gaur egun sektore modernoena euskara, abertzaletasuna eta ezker ideologikoa metatzen dutenek islatzen dute. Aspalditik, euskarak ez du erreferentzia nagusia iraganean; beste kontu bat da nola jokatzeko eta erabiltzeko den tradizioa. Beraz, herritartu beharrean, euskara hiritartu egin da azken 50 urteotan, kulturaren ulerkera integralenean: ohitura sinpleeneta-

²⁹ Eta eguneroko praktika sozialean (soziologikoetan) abertzalea izatea euskaldun izatea da. Termino honen inguruan joko logiko ugari egin genitzake (euskaradunak, baskoak, ...), baina euskaldun euskaradun ez-abertzalea ez-euskalduntzat edo espainol(azo)tzat irainduta, joko linguistikoek ez digute ezertarako balio. Logika linguistikoa eta soziopolitikoa ez dira gauza bera, eta politikan posible ez dena ez da posible hiztegian. Ez du merezi lerro gehiago idaztea kontu honen inguruan, eta gutxiago identitate, gainidentitate, identitate metatuen inguruko nahasketa ulertezinak, sarri gure artean egiten den moduan. Irakurri David Anaut, *Txokotik zabalera*, Alberdania, Irun, 2006, 15-24 orrialdeak.

tik arte bikainenetara. Horregatik, «ciudadano, citizen edo citoyen-ne» hitza itzultzeko «hiritarra» da hitz zuzena, ez «herritarra». Terminologikoki «herritar» hitzak ukatu egiten du errealitate praktikoan esan gura duena, baina euskaradunaren mundu- eta ideologi-ikuskerak inkontzientearen ondorioa dira.

2. Honek guztiak eta hiriarekiko kontaktuak kalitate eskasagoko euskararako dakar, behintzat Gipuzkoa ez den gainontzeko lurraldean³⁰. Hizkuntza kalitatea sakrifikatu behar da ezinbestean, hizkuntza kontuetan ez dago prozesu linguistikorik soziologikoen gainetik gerta litekeenik. Hizkuntzak, batik bat, gizarteek ahal/nahi dutena izaten amaituko dute. Berriro ere ez da funtsean borondate kontua, aukera soziologikoena baino. Horrela, alde batetik irabazten dena (hizkuntza hiritartu eta hiri mundua bere egin) bestetik galera da (kalitatea eskastu).
3. Hipotesi honetatik abiatuta eta gerta litekeena aurreikusita, bide berri-tzaileak aztertzen joatea ezinbestekoa da eta epe ertain eta luzean kalitatea eta hedadura uztargarri izan daitezen tresnak sortu behar dira.

10. Bestalde, hiriak hizkuntzaren estatusa kaltetu egin dezake eta bere des-komunitarizazio prozesua azkartu. Adin eta belaunaldi kontuek adierazten digute euskara modu mekanikoan erabiltzen dutenak desagertzen doazela eta horien ordez datozen askok euskara ikasia dakarte eta modu erreflexiboan praktikatzeko dute. Soziologian elkargotik (*gemeinschaft*) gizartera (*gesellschaft*) doan jauzia da, komunitatetik gizaki bakunera, afektutik kalkulura. Automatismoen ordez kalkulua, eta nahitaez, honekin batera ekonomia kognitiboa, erabiliko da momentu bakoitzean errazena egiten den hizkuntza erabiltzeko. Gehienetan, oraindik ere eta tarte luzean, ezinbestez gaztelera³¹.

³⁰ David Anaut, *Txokotik ...*, 79-88 orrialdeak.

³¹ Andu Lertxundik Kike Amonarrizen *Tribuaren berbak* telebista-programan oso adierazpen interesgarriak egin zituen. Euskararen adierazkortasunean maizago entzuten dugun gaztelera eragiten duela esaten zuen. Anduren ustez gatzak eta piperraren bila gaztelaniara joaten gara, eta arazoa belarrian edo entzuten denean datza. «Gure belarriek euskaraz baino gaztelera askoz gehiago jasotzen dute egunean zehar eta horren ondorioz esaldi erdaldunak ateratzen zaizkigu gure

Teorikoki, hizkuntza bati gerta lekiokoen egoerarik hoberena bere hiztunek hizkuntza hori zergatik erabiltzen duten ez jakitea da, beraiena delako, izan delako, eta hitz egiteko modu naturalena zaielako. Gizarte eraikuntza guztiak naturalizazioari esker indartu eta egonkortu dira. Egoera horietako hiztunek dakitena praktikatu dute. Dakitena egin. Egoera ideala da hori.

Hiztun honen ordez beste hizkuntza bat euskara bezain ondo edo hobeto dakiena dator eta honek hainbat buruhauste sortuko du, eta bizi ere. Zertarako ekin gutxitua den hizkuntzan, ezelako ahaleginik gabe, eta errazago, beste bat badu? Osagai edo ikusmolde normatiboetatik aparte egoera honek hausnartua izan behar du, arazo erradikalek neurri sakonak behar ditu eta. Galdera honi erantzun ezean, azalpen gisa borondate edo justizia kontueta-
ra joko dugu, eta horietan ez dago soluziorik. Ondorioz, hiria komunitate bilakatu behar dugu euskararako, jakinda ere kontrakoa erraz gerta litekeela: landagune guztia gazteleraz hiritartzea.

11. Hiri mundu eta mundu hiri joko honetan, hiriak irabazi ez arren, oso inportantea da udalerrri eta eskualde erabakigarriak ez galtzea. Baten amestean ezin da bestea ahuldu. Euskararen bermea Gipuzkoako tamaina erdiko udalerrietan eta Donostian dago momentuz. Bitartean eskolak euskaradunak egiten jarraitu behar du eta horren guztiaren ondorioz euskararen aldeko dekantazio prozesu berriak sortuko dira.

12. Amaitzen joateko aipatzen ez diren zenbait konstante kontuan hartu beharrekoak dira, berriro ere prozesu materialetatik abiatu gaitezten:

- I. Oso seguruenik, prozesu hau guztia Estaturik gabe, biztanleriaren gehiengo abertzale izan gabe³² eta mundu-hizkuntzen inertziaren kontra garatu behar da. Ez dirudi erraza.
- II. Egiturak, errelatoak eta babesa behar ditu euskarak hirian.


hizketetan». Bere ustez, EITBK hizkuntza premietan pentsatu behar du eta Eskolak ahozko-tasunaren aldeko iraultza egin beharko luke. Bere tesia honako hau zen: «finkatzen badugu ahozko-tasuna, finkatu dugu hiztuna», EITB, *Tribuaren Berbak*, 2015eko maiatzaren 5eko emisioan.

³² Ez dira hauteskundeetako datuak eta sakoneko joerak nahastu behar. Hauteskundeetan abertzalegoa nagusi izan arren, ez-abertzaleak abertzaleak baino gehiago dira EAEn. Zer esan Nafarroa edo Iparraldean?

- III. Euskararen garapena zaila eta zalantzia izan da historikoki, eta horrela izaten jarraituko du. Herri a-normalek, historia a-normalak dituzte eta ekimen eta ekinbide a-normalei ekin behar diete. Hori da oso handien artean txikia izatearen patua.
- IV. Zein izan liteke subjektu eragilea? Hurrengo grafikoaren mezua (11. aren) mezua gehiago da paradoxikoa anibalentea baino. Ezker abertzaleari -soziologikoari behintzat- dagokio burgesia nazionalaren lana egitea. Praktikan egiten du, orain bere lana dela asumitu behar du. Grafiko honek posizio ideologikoak eta identitate subjektibo metatuak (espainolago, bikoitza, euskaldunago) gurutzatzen ditu, eta gure erkidegoko talderik kopurutsuena soziologikoki ideologiaz ezkertiarra eta identitatez euskaldunagoak osatzen du: %25,9. Lau-tik bat gizarte posizio horretan autokokatzen da.

Beraz, udalerrietan eta batez ere Gipuzkoan hain ohikoa izan litekeen posizioa posible ote da hirietara ere eramatea? Eraman ala ez, politikan ezkertiar denak kulturaren burgesiaren papera jokatu beharko du, gura ala ez!

11. Grafikoa. Gizarte sektore metatuak identitate nazional subjektibo eta ideologia eskalaren arabera



Iturria: Egileak egina, Immigrazioaren Barometroan oinarrituta, 2009, Ikuspegi.

13. Euskarak hiria irabazteko anbigualentzia ugariko prozesuetan aritu beharko du eta gorabehera askorekin sortzen ari zaio berreskurapenaren prozesua gidatu eta lideratu dezakeen subjektu sozial indartsu bat. Beraz, pazientzia, lasaitasuna, diskurtso berriak, helburu egingarriak seinalatu beharko dira, egungo eskualde erabakigarriak mantenduz eta hiriak sendotuz. Non dago berreskurapen honen sabaia? Zaila da esatea, baina, sekula lortu ez arren, berreskurapenak izan behar du helburua. Perspektiba honetatik zaila egiten zait zenbait iritziren kondeszendentsia ilustratua ulertzea³³. Badirudi toki guztietan egin izan denak, jakinda ezin litekeela burutu Euskal Herrian ez eta erkidegoan ere, beldurtu egiten dituztela bizitza barkatzen diguten errealista maltzur hauek. Gainera, irribarre irabazlearen harrokeriarekin, alde zurretik eraiki duten aurkariaren irudiari ea borroka nahi duten zirrikaka eta galdezka datoz. Eskerrak euren buruak gizatiartzat dituztela!

Working in progress honetan, urratsak etengabe errebisatu beharra dago baina badirudi bide egokia hartu dela, abiadura ere ez da txarra, eta txango honek merezi du.

³³ Duela gutxi oso kapitulu interesgarri bat irakurri diot Matías Múgicari eta, oro har, bere deskripzio soziologikoarekin erabat ados banator ere, garaileak duen segurtasunean oinarritua, kondeszendentsia kutsu bat nabari diot artikuluan. Esaterako, gehiegikeria iruditzen zait ondoko argudioa, eta bere artikuluko hasiera baino ez da: «Pues bien: cuando los nacionalistas, o su sector más lingüísticamente exaltado, dicen, y lo dicen a menudo, que para asegurar la pervivencia del euskera a largo, y aun a corto, plazo es imprescindible la independencia de España, tienen probablemente razón: sin tener las manos libres, la pervivencia real (no icónica) del euskera es, en mi opinión, como en la suya, altamente problemática. Tampoco con ella, desde luego, estaría nada asegurado, y de eso hablaremos en un apartado posterior, pero al menos habría alguna posibilidad. Es cierto que los nacionalistas tienden a continuación a no detallar para qué necesitan tener las manos libres, es decir, cuáles son esos medios que ahora, debido a nuestra pertenencia a España, no pueden movilizarse y que la independencia les permitiría emplear. Y no lo dicen, claro está, porque estos medios son de tal naturaleza que confesar que se proponen emplearlos los dejaría en mal lugar; incluso, quizás, les enajenaría votos. Pero en la afirmación misma, básicamente, creo que tienen razón». Hain ezezagunak izan daitezke bitarteko horiek? Ez dira Estatu guztiak erabili izan dituztenak? Aproposenak diren ala ez beste kontu bat da. Arrazoizkoak diren egungo ikuspegitik besterik da, baina ezin zaio kritikatu abertzaletasun bati abertzaletasun guztiak egin duten gauza berberarengatik. Denek egin izana ere ez da zentzuzko argudioa, denek gizarteari kalteak eta sufrimenduak ekarri izan baitzkiote, baina hortik batzuen kasuan bakarrik bitarteko horiengatik ikaratzera bide luzea dago. (Matías Múgica, «Lengua y secesión. Política lingüística y el futuro del País Vasco», in ZZ.EE., *La secesión de España. Bases para un debate desde el País Vasco*, Tecnos, Madril, 2014, 199-233 orr.). Nolanahi ere testu honen inguruko hausnarketa zabalago prestatzeko asmoa dut.

Eranskinak


1. Eranskina. EAEko 40 udalerrri kopurutsuenak (10.000 biztanle baino gehiagokoak) euskararen ezagutzaren hazkundearen arabera antolatuta, 1981-2011

	1981	1991	2001	2011	Biderkatu
Barakaldo	1,3	4,2	9,8	18,3	13,83
Trapagaran	1,6	7,8	14,9	22,2	13,72
Sestao	1,5	5,1	11,2	18,6	12,15
Santurtzi	1,8	5,5	12,1	19,8	10,77
Portugalete	2,2	6,3	12,7	20,0	9,21
Gasteiz	3,4	7,5	14,9	22,5	6,62
Laudio	5,6	13,7	21,7	28,5	5,09
Bilbao	6,2	9,6	15,5	23,0	3,68
Basauri	6,5	10,7	17,1	23,2	3,59
Arrigorriaga	10,2	18,4	26,3	32,9	3,21
Leioa	10,2	15,4	21,8	29,5	2,89
Getxo	9,9	14,3	19,9	27,7	2,80
Ermua	12,1	15,6	24,3	29,9	2,47
Erandio	10,5	12,7	17,8	24,3	2,33
Errenteria	19,5	24,5	32,5	37,8	1,94
Donostia	21,2	27,3	34,7	40,6	1,92
Irun	18,8	24,3	32,4	35,9	1,91
Lasarte-Oria	23,3	32,4	37,0	40,0	1,72
Sopelana	24,7	28,3	33,3	41,9	1,69
Pasaia	23,7	26,9	33,5	38,2	1,61
Galdakao	24,8	29,6	38,6	38,9	1,57


	1981	1991	2001	2011	Biderkatu
Durango	33,6	38,6	45,3	48,9	1,46
Hernani	39,8	48,5	54,7	57,4	1,44
Andoain	36,4	45,2	50,2	52,4	1,44
Arrasate	39,1	49,1	55,9	54,6	1,40
Beasain	40,0	51,1	58,3	55,8	1,39
Eibar	37,6	46,6	51,8	51,2	1,36
Tolosa	50,7	57,9	64,5	66,1	1,30
Amorebieta- Etxano	43,8	48,6	53,8	52,9	1,21
Elgoibar	51,1	56,2	60,9	58,1	1,14
Gernika-Lumo	59,6	65,4	69,3	67,6	1,13
Zarautz	64,0	70,1	71,4	70,0	1,09
Bergara	62,2	66,3	70,0	66,3	1,07
Hondarribia	57,1	58,2	60,5	60,0	1,05
Azkoitia	73,0	76,9	80,0	74,5	1,02
Azpeitia	83,0	87,5	87,8	83,6	1,01
Oñati	74,0	78,3	79,3	74,6	1,01
Bermeo	72,8	76,8	75,7	72,7	1,00
Mungia	55,1	58,6	55,1	53,2	0,97

2. Eranskina. Euskara eta immigrazioaren mapak eta euskararen bermearen egungo lurraldea


Euskararen mapa



Immigrazioaren mapa




Euskararen bermearen egungo lurraldea




Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

3. eranskina. EAEko eskala ideologikoa identitate subjektiboaren arabera, 2007-2014 (0=Ezkerra; 10= eskuma)



Iturria: Egilea, 2007-2014ko Immigrazioaren Barometroetan oinarrituta, Ikuspegi.

4. eranskina. EAEko nazionalismo eskala identitate subjektiboaren arabera, 2007-2014. (0= euskal nazionalismoa; 10= espainiar nazionalismoa)



Iturria: Egilea, 2007-2014ko Immigrazioaren Barometroetan oinarrituta, Ikuspegi.

Erabili diren zenbait testu

ANAUT, David, *Txokotik Zabalera*, Alberdania, Irun, 2006.

APPADURAI, Arjun, *El rechazo de las minorías. Ensayo sobre la geografía de la furia*, Tusquets, Bartzelona, 2007.

AUGÉ, Marc, *Los no lugares. Espacios del anonimato. Una antropología de la sobre-modernidad*, Gedisa, Bartzelona, 1993.

BAUMAN, Zygmunt, *Modernidad líquida*, FCE, Mexiko, 2003.

BOUCHARD, Gérard eta TAYLOR, Charles, *Etorkizuna eraikitzea. Adiskidetzeko garaia*, Ikuspegi, Bilbo, 2010.

BOURDIEU, Pierre, *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Akal, Madril, 1985

CONNOR, Walker, «Democracia, etnocracia y el Estado Multinacional moderno: paradojas y tensiones», in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Vitoria-Gasteiz, 1989, 111-130.

DELGADO, Manuel, *Sociedades movedizas. Pasos hacia una antropología de las calles*, Anagrama, Bartzelona, 2007.

ELZO, Javier eta SILVESTRE, María (Zuz.), *Un individualismo placentero y protegido. Cuarta encuesta europea de valores en su aplicación a España*, Deustuko Unibertsitatea, 2010.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. *Euskara, XXI. mendeko hizkuntza bizia, egunerokoa eta noranahikoa, Oinarriko Txostena*, HPS, Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza, 2008, Gasteiz.

MÚGICA, Matías, «Lengua y secesión. Política lingüística y el futuro del País Vasco», in ZZ.EE., *La secesión de España. Bases para un debate desde el País Vasco*, Tecnos, Madril, 2014, 199-233 orr.

OSA, Erramun eta AIERDI, X., «Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?», *Euskera*, 54 libkia., 3. zenbakia, Bilbo, 2009, 1433-1452 orrialdeak.

Euskara hirian: indar gidari bila

El euskera y la ciudad: en busca de una fuerza motriz

La langue basque et la ville: à la recherche d'une force motrice

The Basque language and the city: seeking a driving force

ZUBEROGOITIA, Aitor
Mondragon Unibertsitatea

ZUBEROGOITIA, Pedro
Botikazar BHI

Noiz jaso: 2015-04-20
Noiz onartua: 2015-07-20

Euskera. 2014, 59, 2. 545-571. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu honek euskara eta hiriaren arteko harremana aztertzen du. Harreman horri ikuspegi diakronikotik erreparatu zaio lehenbizi, industrializazioarekin batera euskal hirietan ernaturiko euskararen aldeko diskurtso eta jardunei arreta jarrita. Hizkuntzaren aldeko unean uneko indar gidaria identifikatuta eta azken urteotako aldaketa soziodemografikoen berri emanda, Euskal Herriko mendebaldeko hiru hiritako (Bilbo, Getxo eta Gasteiz) zenbait ekimen eta esperientzia garaikide deskribatu dira hurrena. Aurrera begira jarrita, amaitzeko, hurrengo hamarkadan ekosistema hiritartu berrian euskararen indar gidari izan daitezkeenak aktibatzeke norabide posible batzuk irudikatu dira.

Hitz-gakoak: euskara eta hiria, indar gidariak, Bilbo, Getxo, Gasteiz.

Este artículo analiza la relación del euskera con la ciudad, y lo hace en primera instancia desde un enfoque diacrónico, centrándose en los discursos e iniciativas a favor de la lengua que emergieron en las ciudades vascas a partir de la industrialización. Una vez identificadas las principales fuerzas motrices de cada momento histórico y tras dar cuenta de los cambios sociodemográficos de los últimos años, se describen actividades y experiencias contemporáneas desarrolladas en tres ciudades de la parte occidental del país (Bilbao, Getxo y Vitoria-Gasteiz). Finalmente, se han esbozado algunos apuntes que pueden servir para activar las futuras fuerzas motrices del euskera en el nuevo ecosistema urbano en el que se ha de desenvolver la lengua.

Palabras clave: euskera y ciudad, fuerzas motrices, Bilbao, Getxo, Vitoria-Gasteiz.

Cet article analyse la relation qu'entretient la langue basque avec la ville, premièrement, par une approche diachronique, en se concentrant sur les discours et les initiatives en faveur de la langue, qui ont émergé dans les villes basques, à partir de l'industrialisation. Après avoir identifié les principaux moteurs de chaque période historique et en tenant compte des changements socio-démographiques de ces dernières années, nous avons décrit les activités et les expériences contemporaines de trois villes de la partie occidentale du pays (Bilbao, Getxo et Vitoria-Gasteiz). Enfin, nous avons esquissé quelques suggestions pouvant servir à activer de futurs moteurs de la langue basque, dans le nouvel écosystème urbain dans lequel doit se développer la langue.

Mots-clés: Basque et la ville, forces motrices, Bilbao, Getxo, Vitoria-Gasteiz.

This article analyzes the relationship of the Basque language with the city. It offers first a diachronic approach, focusing on speeches and initiatives in favour of the language that have emerged in Basque cities since industrialization. Then, it identifies the main driving forces of each historical period and, after accounting for socio-demographic changes in re-

cent years, activities and contemporary experiences in three cities in the western part of the country (Bilbao, Getxo and Vitoria-Gasteiz) are described. Finally, some points are made that may serve to future driving forces for Basque in the new urban ecosystem in which it has to develop.

Keywords: Basque language and the city, driving forces, Bilbao, Getxo, Vitoria-Gasteiz.

Aldaketa soziodemografiko sakonak ezagutu ditu Euskal Herriak azken urteotan: Uriak seinalatutako moduan (2014), duela 30 urte ez bezala, euskaldunak etxe elebidunetan sakabanatuta daude nagusiki, euskararik ez dakiten lagun askorekin bizikidetzan, eta, horrez gain, euskaldun guztien erdia baino gehiago Euskal Herriko sei udalerritan bizi dira: Bilbo, Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Getxo eta Irunen, hain justu.

V. *Mapa Soziolinguistikoa-k* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2011a) eskainitako datuetan oinarrituta egin zituen baieztapenok Uriak. Mapa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argazkiaren berri ematen du. Argazkiaren ikus-eremua zabaldu guran, urte berean kaleraturiko beste ikerketa biren emaitzak aipatuko ditugu segidan: izan ere, EAEko informazioa ez ezik Euskal Herri guztikoa damaigu V. *Inkesta Soziolinguistikoa-k* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2011b), eta Nafarroakoa *Mapa Sociolinguístico de Navarra-k* (Euskarabidea, 2011). Bi lan horietan ageri denaren arabera, urbanizazio-prozesua motelagoa da bai Ipar Euskal Herrian (Lapurdi barnealdean eta Nafarroa Beherea eta Zuberoan baino euskaldun gutxiago bizi da BAMen), bai Nafarroa Garaian (hala ere, euskaldunen bilakaera nabarmen doa goraka Iruñean: Nafarroako hiriburuan %5 dira elebidunak 65 urtetik gorakoen artean, eta %18,8 16-24 urte bitartekoen artean).

Ñabardurak ñabardura, joera nagusia euskaldunen hiritartzearena izanik, artikulu honen helburua da, batetik, identifikatzea zeintzuk izan diren euskararen indar gidariak euskal hirietan, eta, bestetik, iraganean euskarari bizi-indarra transmititu zioten bulkada horiek moteldu-antzean sumatzen ditugun honetan, deskribatzea Euskal Herriko mendebaldeko hiru hiritan (Bilbo, Getxo eta Gasteiz) ernaturiko dinamika interesgarri batzuk. Behin hori eginda, iraganeko esperientziak eta hiru hiri horietan antzemandako mugimenduak gogoan, euskarari ekosistema hiritar berrian leku eroso batzatzeko norako posible batzuk aipatuko dira erremate modura.

1. Nondik gatozen: hiria, euskararen galbide

Josu Larrinagak bere doktorego-tesian (2013) aipaturiko kontzeptu bati erreferentzia eginez abiatuko dugu atal hau: *irekiera simbolikoari*, alegia. La-

rrinagaren arabera, irekiera sinbolikoa da lurraldean dauden hegemonia kulturalak deseraiki/berreraikitzen direneko unea. Euskarari dagokionez, XIX. mendearen bigarren erdialdea da hegemonia kulturalak deseraiki/berreraiki zireneko momentu giltzarri horietako bat. Larrearen iritziz:

Industria eta Aitzinamenduaren itzalpean, baina kontrabandoz, ekartzen digute, ez elez bai obraz, euskaldunen zokoratze sozial eta politikoa, iduriarazten aipatu prozesu hau berez sortua dela, jainko ttipi baten manuz edo zientziaren argitan hala emana. (...) Eskuara ala progresoa? Biak beretu gogo baitzituzten -baitituzte- kinka horretan. Aurretiaz, progresoareen igarleen asmoak: ezinbestekoa indar produktiboen prozesu baragaitza. (...) Kasurik hoberenean, euskaldungoa sinpatiaz tratatu dutenotan, erorikoa, ezinbestekotzat jotzen dute (...) (Larrea, 1998: 33)

Humboldt eta Reclus aipatzen ditu Larreak prozesuaren ekidinezintasunaz mintzo direnen adibide gisa, eta, horrez gain, Campionen berbak ere biltzen ditu, ideia fatalista horiek zelan azaldu ohi ziren deskribatzen duten berbak (Larrea, 1998: 34). Sobera ezagun da, horren harira, Unamunoren Bilboko XX. mende hasierako hitzaldia (ikus horri buruz Aranbarri, 2000), eta gisa berean hitz egin zuen Barojak berak ere (1901) urte hartan bertan.

Zein izan zen euskaldun-jendearen jarrera prozesu horren guztiaren aurrean? Arrese Beitiaren «Ama euskeriari azken agurrak!» olerki sarituak (1879) ilustratzen du oro har bazterretan nagusi zen larrimina. Plano politikoago batera etorrira, garaiko foruzaleek diskurtso jakin bat eraiki zuten horren inguruan:

Lehenengo mendearen akabailan, egitura politiko berriek bere dotrina eskola, kaserna, Afrikako gerlak eta prentsaren bidez zabaltzen zutela, foruzale karlista eta liberalek eratu zuten imaginario *fin de siècle* bat euskal klase azpiratuen kontsumorako. (...) Ama euskara, semeek ahantzia; erderazale egin zirelako, zigor bezala Foruen galera. Forurik gabe umezurtz, biluzik gainera, harkaitzak eta mendiak direla euskara, foru eta moral katolikoaren azken gordelariak. Ama, Euskara esan nahi baita, beti eri. Euskara dohakabea, Gernikako arbolaren oinean dago, indarge, etzanik, atsotua edo Bizkaia bezala, hiltzeaz. Baso eta oihanak soilduak, arbolak hostorik gabe, euskal

semeak nigarretara emanak. Atarramendu onik ez basamortu bilakatu zaigun paisaian. (Larrea, 1998: 35).

Aurrerabidea eta industrializazioa izan ziren aldaketa handia eragin/ekarri zutenak, eta bata zein bestea *topos* konkretu batean gorpuztu ziren: hirian.

Lehen Karlistaldian -Durango salbu- Hiria zen etsai, orduko klase nazional bakarraren etsaia, Hiriaren kontrako sentimen horiek plazaratu zituzten gure koblakariak:

Zerra, zerra, Bilbao hire portaliak, / Jar beitez, jar harmetan hire begiraleok! / Egin zak auhen, egin, hiri superra! Erori behar baituk, erori lurrrerat!

Edo, laburrago, *Detzagun xeheka hiriak!* Ehunen bat urte berantago, Oxobik *Eskualduna*-n izkiriartzen zuen: «Euskaldunen gogoia ez othe da nahasia, zikindua, itsas-bazterretik eta hirietatik heldu zaizkigun lege mota guziez? Nola atxik gogoia garbi?» (1935/IV/3). Eta artikulu berean: «Ez ginuke Baiona, Eskual Herri etsenplu nahi». Eta Bilbo? *Bilbo mutiri!* karlisten kantetan. Ez ote zuen, bada, Oteizak Bilboren kontra izkiriatu 1960/70 urteotan? (Larrea, 1998: 36).

Ez zen aurrerago ere aipatuko dugun Oteiza izan Bilbo madarikatu zuen bakarra. Hara zelan mintzo zen Unamuno (2002: 153), berbarako, XX. mendea hasi berritan: «Siempre que podíamos nos íbamos al monte, aunque sólo fuese a Archanda, a execrar de aquel presente miserable, a buscar algo de la libertad de los primitivos euscaldunes que morían en la cruz maldiciendo a sus verdugos y a echar la culpa a Bilbao, al pobre Bilbao, de mucho de aquello.» Urteak geroago, berriz, hari beretik tiraka jarraitu zuen Arestik (in Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 180-181): bateko «(...) euskera etsaia bakar bat dago, Bilboko kapitalismoa (...)», besteko «Bilbaogatik kexatzeaz ez naiz inoiz kantzatzen (...)», hurrengo «askaotik sendejara / bilbaon / esperantza / oso mehar, ilun eta laburra / da»...

Kontuak kontu, euskara hil hurran sumatzen zen hartan, arrisku horri aurre egiteko erantzun-modu bi erne ziren Bilbon bertan XIX. mendearen hondarretan: sabindarrek sustaturiko erantzun erromantiko-aberkoia bate-tik, eta Resurreccion Maria Azkueren inguruan mamituriko erantzun kulturalista bestetik.

(...) gorpu zen arima gabeko hezur hutsez [mintzatu zitzaigun] Azkue, 1891n: «*Erbesteko hamarrakaz lotu eta eskubide urtetsuen hautsaz itota dandarrez eroan dala Bizkaiaren arimea Euskal Herrira: gugan bere hazurrutsa itzi dabe*». Hortaz bada bizkaitar deputatuei eskainitako *euskal izkindea*, eskatuz, bide batez, Azkueren lehen liburu hura Bizkaia zenaren «*hil-oheganean*» jartzeko, «*Bizkaia berbixtu dadinera-ko*», bizkaitarrek gogo-bihotzez «*maite baitute bere ama laztana*». Ez da konpainia makala Bizkaia zenaren ondoan, hizkuntza «*zendu*», hizkuntza «*hil*» baten gramera bat: *euskal izkindea*. Azkueren asmoa Bizkaia defuntuari «*bizi barria eta ez hilkorra emon ahal izatea*». (Larrea, 1998: 37).

Jakina da Aranaren lorpen handiena giroan antzematen zen ezinegona katalizatzea eta behar zen erantzunari forma ematea izan zela. 1880ko hamarkada amaieran diskurtso integrala eratu zuen euskal herritarren larriminei konponbidea emateko asmoz eta hurrengo hamarkadako lehen urteetan doktrina berria zabaltzeari ekin zion. Abertzaletasunaren eta independentismoaren sorrerak lurrikara indartsua eragin zuen eta epizentroa Bilbon kokatu zen, non bestela. Mezu berria guztiei zuzendua zegoen baina, hizkuntzaren etorkizunari dagokionez, hazi zabaldu berriak gaztediaren lur emankorretan eman zituen fruiturik oparoenak.

Hiriko gazte askok orduan hartu zuten euskararen bidea. Hautu hori, edozelan ere, ez zen oinarritu soilik Abandokoaren ekarpenean. Euskal Pizkundearen lehen urrats horiek askoz ahulagoak izango ziren Azkueren lan eskergaren faltan. Resurreccion Mariak institutu probintzialeko euskara katedra eskuratu zuen 1888an eta bertan jarraitu zuen (mende hasierako tarte batean izan ezik) 1920ra arte. Hamarkada horietan zehar, ehunka bilbotarri gramatikaren oinarriak irakasteaz gain, Azkuek martxan jarri zituen bi aldizkari, akademia bat, antzoki txiki bat eta beste hamaika ekimen. Berba batean, hazi desberdinek (bata politikan oinarritua, bestea kultur arlokoa) bat egin zuten gazte hiritar abertzaleak euskaraz bizitzeko aukerak sortzen hasi zirenean. Keperin Xemein izan zen horietako bat, eta, berak zioen bezala (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 61), belaunaldi berria erabilerara jauzi egiteko beste adoretu zen: «*Mutillen artian talde bat sortu zan, alkarrekin beti euzkeraz egiten ebenak, naiz-ta bilin-bolaka eginda be*».

Mugimendu hori Bizkaiko hiriburuan mamitu arren, ez zen mugatu Bilboko Zazpikaleetara. Batetik, goi mailako erakundeen sorrera eragin zuen: Eusko Ikaskuntza 1918an eta Euskaltzaindia 1919an. Bestetik, Donostian ere Pizkundeak indar berezia hartu zuen Aitzolen gidaritzapean eta, neurri apalagoan, baita Iruñean ere. Ezaugarriei dagokienez, bi azpimarratuko ditugu: mugimendu hiritarra zen, eta garaiko adierazpide politiko, sindikal eta sozialei estuki lotuta zegoen. Hortaz, hiruzpalau hamarkadatan euskarak Euskal Herriko hirietan zuen presentzia handitzea lortu zuen eta maila nazionaleko egiturak sortu zituen. Hilzorian izanikoak sasoia berreskuratu behar zuela zirudien, baina bidea okertu egin zen.

1936ko gerrak moztu zuen Euskal Pizkunde labur hori, errotik moztu ere, hainbestearino non hurrengo urteetan Hego Euskal Herrian apenas izan zen euskal kultur adierazpenik bizitza publikoan. Azkue izan zen basamortu hartan ureztatze-lanei ekin zien lehenetarikoa, gerraoste beteian Euskaltzaindia berriz martxan jartzeko lanei buru-belarri lotuta (ikus horri buruz Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 126 eta 139-142). Irigoienen arabera, beldurra galtzen hastea izan zen lehen lana garai zail haietan: «Gerra amaitu eta segidan ni eskolan hasi nintzen. Gure eskola-giroan euskara guztiz galarazita zegoen. Beldurra zen nagusi. (...) Euskara-kontuan, niretzako, lehenengo beharra izan da beldurra kentzea» (Irigoien, in Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 146-147).

Alberdik (2000) deskribatzen du zelán, behin beldurra galtzen hasita eta Erregimenaren beraren larderia apur bat nasaituta, satorrak baino lurperago zeuden haiek apurka-apurka burua ateratzen hasi ziren. Momentu horretan, 1960ko hamarraldian batik bat, bigarren irekiera sinboliko batekin egiten dugu topo: erdararen hegemonia kulturala hein batean deseraiki eta euskal kulturaren loraldi bati bide eman zion mugimendu batez ari gara. Mugimendu hori bi tankeratako erantzunek hauspotu zuten:

- Abangoardia berria osatuko zuten erantzun aurremodernoak ditugu batetik; horietan aitzindari izan zen Oteiza (1963), zeinak, iraganera begira jarrita (cromlech neolitikoa izan bere bere pentsamenduaren totem nagusienetako bat), imajinario oso bat eraiki eta lur-jota zegoen euskaldun-jendearen autoestimua altxatzen asmatu zuen. Erantzun au-

rremoderno horien zakuan sartzeko modukoak dira, halaber, 1965 ingurutik 1972ra bitartean euskal kulturaren ikur ezagunenetakoak izan ziren *Ez Dok Amairu* taldekoen zenbait adierazpide, hala nola ordura arte ia erabat bazter utzia zen txalapartaren erabilera edota aspaldiko motibo zuberotarrekin osatutako unibertsoa (ez alferrik, mugimendu honen izena bera ere tradizio mitiko-alegorikotik dator, Azkueren *Euskalerrriaren yakintza* liburuko Martin Errementariaren ipuinetik jaso baitzuen Oteizak).

- Erantzun aurremoderno horien aldamenean, diskurtso moderno, konpaktu, trinkoa mamitu zuten beste batzuek. Arestiren harriaren metaforak irudikatzen du ondoen arrakala bako diskurtso hori, etorkizun hobe batekiko fede hori. Existenzialismoak eta engaiamenduak blaituriko gazteek egitura eta produktu berriak sortzeari ekin zioten, eratzen hasi berria zen euskara batua ikur modura hartuta: euskalduntze- eta alfabetatze-eskolak, euskara ikasteko metodoak, hiztegiak, argitaletxeak (Lur), diskoetxeak (CINSA), testuliburuak (Iker taldekoen *Saioka* saila), egile garaikideen lanak taularatzen zituzten antzerki-taldeak (Jarrai, Kriselu), «Gazte Naiz» saila *Zeruko Argia* aldizkarian...

Aipatzekoa da, era berean, neurri handi batean fenomeno hiritarra izan zela hori ere: Kursaalgo sotoetan erne zen *Ez Dok Amairu*, Donostian zuten kuartel nagusia Lur eta Jarrai-koek, Bilbon zegoen kokatuta CINSA, hantxe ari zen Aresti ere bazterrak astintzen, hantxe zebiltzan Kriselukoak, hiztegitintzan zein gau-eskoletan zihardutenak, Iker taldekoak...

Bulkada aurremoderno zein moderno horien ondorioz, astindua eman zion *gaztedi berriak* ordura arteko kultur munduari. Batzuen zein besteen jardunak izan zuen eraginik. Euskalduntze-alfabetatzeaz mintzo, adibidez, hara zer dioen Edurne Brouardek:

1980ko hamarraldian sekulako *boom*-a izan zen matrikulazioetan; egin kontu garairik onenetan, hamarkada erdialdean, 5.000 ikasle geneuzkala Bilbon (...) *Boom* hura apur bat fiktizioa ere bazen: asko ziren hiruhileko baterako izena eman eta gero bueltatzen ez zirenak, edo moda hutsagatik apuntatu eta laster nekatzen zirenak... Hamarkada amaieran egoera egonkortu egin zen, eta, argazkia erreialago

bihurtzeaz batera, matrikuletan beherakada handi samarra izan genuen: euskara ikastera zetorrena horretara baino ez zetorren jada, ez beste ezertara. Gogoan dut, horren harira, zelan Errekaldeko garaie-tan [Bilboko Errekalde auzoko AEKren euskaltegian aritu zen Brouard] batzuk beti *Egin* besapean zekartela etortzen ziren, nahiz eta eskolak gauzez izan; euskara ikastea mugimendu orokor baten parte bat gehiago zen orduan askorentzat. Gaur egun gauzak asko aldatu dira (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 268-269).

1980ko hamarraldi amaieraz ari dela, «euskara ikastera zetorrena horretara baino ez zetorren jada» dio Brouardek. Izan ere, 1980ko hamarraldian erakundetze berriaren lekuko izan ginen Hego Euskal Herrian, eta, Euskal Autonomia Erkidegoan behinik behin, erakunde berrien sorrerak ondorio zuzenak izan zituen: «1980ko hamarraldian (...), ofizialtasunarekin, gauzak asko aldatu ziren, euskara diru-bide bihurtu zelako asko eta askorentzat (...) zabaltze handia egon zen, hainbat idazle, itzultzaile, irakasle... agertu ziren bat-batean» (Llerandi in Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 251).

Lanpostua eskuratzeko hizkuntza-profila egiaztatu beharrak motibazio pragmatikoak nabarmen igotzea ekarri zuen. Bi tipo idealekin egiten dugu topo, honenbestez, 1980ko hamarkadan: batetik, erakundetze berria onartzen ez zuen sektore bat, bertako kideek hizkuntza nagusiki motibazio identitarioak tarteko ikasten/aldezten zutela; bestetik, ofizialtasun eratu berriak sustaturiko erakundeen titulu eta eskabideak betetze aldera euskara ikasten zihardutenak.

Horiek horrela, aurrez aurre zeuden bi polo joan ziren osatzen, horietako bakoitzak bere dinamika eta ekimenak sustatzen zituela: 1970eko hamarkadan sortutako gau-eskolak AEKn elkartu ziren bitartean, Eusko Jaurlaritzak HABE sortu zuen 1983an; 1980an eratutako EAEko gobernuak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza jarri zuen abian, eta herri-mugimenduak, aldiz, Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) eratu zuen 1983an, euskalgintzako erakundeak koordinatzeko eta euskararentzat plangintza orokorrak bultzatzeko asmoz; hainbat euskaltzalek *Euskaldunon Egunkaria* proiektuari ekin zioten hamarkadaren erdi aldera, eta Jaurlaritzaren Kultura Sailak antzeko egitasmo bat diseinatu zuen... Bi polo horien arteko talka Hego Euskal Herri osoan gorpuztu bazen ere, hiriak

izan ziren borroka-zelai printzipal, bertan biltzen baitziren batzuen zein besteen indar nagusiak.

Polarizazio hori gainditzeko dinamika, berriz, tamaina ertaineko hainbat herritan (Arrasate, Durango, Eibar...) hasi zen, baina laster bota zituen erroak hirietan ere. Ika-mika guztien gainera pentsamolde eta tipologia desberdinetako euskaldunak batzea eta euskara beste dinamika batzuen periferiatik diskurtsoaren erdigunera ekartzea izan ziren lehen euskara elkar-teen oinarri sendoenak. Intuiziotik hazitako bide berri horri ekarpen teoriko garrantzitsua egin zion Sánchez Carriónnek, 1987an argitaratutako *Un futuro para nuestro pasado* liburuarekin. Eguneroko praktikek eta oinarri teori-koak bat egin zuten une horretan *tsunami* txiki bat eratu zen euskal hirietan. Orduan sortu ziren hiriburuetak euskara elkarteak eta tokiko komunika-bideak, batzuk zein besteak herri-ekimenaren lanari esker. Udaletatik heldu zitzairen babes, salbuespenak salbuespen, mugatua izan bazen ere, 1990eko lehenengo urteetan bazirudien haizeak hizkuntzaren alde jotzen zuela: eus-kaltegietan aurreko hamarkadan baino jende gutxiago zebilen arren milaka ziren urtero-urtero izena ematen zutenak, *Egunkaria* bera ere irakurleak irabazten eta bere lekua egiten ari zen, Bilbo erdian Kafe Antzokia leku erreferentzial bihurtu zen...

Kontuak kontu, dinamika horri Kontseiluaren 1997ko kanpainarekin heldu zitzaion amaiera. Urte horretako Gabonetan milaka euskaltzale bildu ziren Euskal Herriko bost kirol-zelaitan. Ekitaldia oso ondo atera zen, bazi-rudien hurbil zegoen mende berriak aurrerakada nabarmena ekarriko ziola euskarari baina aurreikuspenak, honezkero ederto dakigunez, ez ziren bete.

2. Non gauden: motorrak gripatuta?

Euskara elkarteak euskarari zentraltasuna emateko lanean ari ziren bitar-tean, urteak ziren jada postmodernitatea ate-joka ari zitzaigula. 1970eko hamarraldiaren bigarren erdian hasita, Arestiren harria harea bihurtuta antzeman zitekeen *Etiopia*-n (Atxaga, 1978), liburu horretan ageri zen an-fora hautsia bere lehen diskoko ikono nagusi bihurtu zuen Ruper Ordori-kak, Franco hil berritan «*Nik ez dut amets haundirik / zeru ederrik eskeintzen,*

/ etsipenaren mugetan zuekin nago bizitzen. / Nik ez dut solas lodirik etorkizunaz egiten / bat-bateko librakuntzaz ez dut aspaldi sinisten» abesten zuen Letek...

Dena dela, bulkada militanteak gasolina-horniketa lanean jarraitu zuen hurrengo urteetan, eta hala jarraitzen du oraindik, baina testuingurua ez da duela 30-40 urtekoaren parekoa, ezta hurrik eman ere: artikulua honen hasieran aipaturiko aldaketa soziodemografiko sakonei erantzekoak dira azken urteotako migrazio-mugimenduak, eta ezin ahantzi berauen poderioz kulturantzatasunaren eta eleaniztasunaren presentzia areagotu egin dela Euskal Herrian. Horrez gain, globalizazioaren zein unibertso birtualaren eta sare sozialen eraginez, espazioaren eta identitatearen gaineko pertzepzioak ere ez dira duela urte batzuk bezain monolitikoak, ez behinik behin gazte-jendearen kasuan (ikus horri buruz Díaz, 2014). Garai likidoon eraginak jendearen bizipenak aldatu egin dituela, azken batean:

Garai batean, arrazoi identitarioak, politikoak, folklorikoak... medio, tentsioz bizi zen euskararekiko harremana. Euskaltzaleak lubakietan zeuden, militantzia eta atxikimendua gotorrak ziren. Gaur egun, gero eta zailagoa da (bakarrik) euskararen militante izatea. Erakargarritasun gutxi du. Kontraesana dirudi, baina errazagoa, naturalagoa eta erakargarriagoa dirudi Zalduondoko bertsolaria, Hala Bedi irratiko esataria edo Gaztetxeko antolatzailea izateak euskaltzale izateak baino. Eta denak dira euskaraz bizitzeko plataforma egoikiak (Agirre, 2015: 86).

Brouardek arestian zioen moduan, euskara ikastera doazen ikasle asko eta asko horretara baino ez doaz jada, ez Oteizaren ildotik euskal arimaren bila edota Arestiren aitaren etxea defenditzera. Euskara elkarteetan ere antzeman da joera hau, bereziki azken hamar urteotan: hasierako lantalde zabalak mehetuz joan dira, segidarik ezak jendea kezkatu du, bazkideak jarrerara aktiboak albo batera utzi eta kuota ordaintzera mugatu dira. Geldoaldia iristearekin batera ugaritu egin dira gogoetarako foroak eta adituen eta arituen hausnarketak. Nola lortu euskara gazteentzat erakargarri bihurtzea? Zein da erabilera pizteko zapaldu beharreko tekla? Zergatik ez da handiagoa euskarazko produkzio kulturalaren kontsumoa?

Badago galderok erantzutera ausartu denik ere; horien artean bi aipatzearen, Amonarriz (in García, 2013) eta Etxegoien (2004) aukeratu ditugu. Ña-

bardurekin izanagatik, biek ala biek uste dute gako berriak hizkuntzaren arlo estetiko eta ludikoan bilatu behar direla, hiztuna gustura aritu behar dela berba egiterakoan eta jolasak jardunaren zati esanguratsu bat hartu behar duela, bereziki gazteen kasuan. Inor gutxik ukatuko du euren ekarpenak (eta bestelako ildoak jorratu dituzten beste askorenak) balagarriak direla, baina ez dirudi erdi itzalita dauden motorrak martxa betean jartzeko besteko indarrik dutenik (bereziki botere-guneak ez badira buru-belarri inplikatzeko ildo horien alde).

Horri gagozkiola, ilusio antzutzat, inora ez garamatzen liluratzat jo du Ariznabarretak euskara biziberritzeko asmoz osaturiko zenbait saio eta diskurtso:

Euskaldunok urruti beharko genuke utopiko inozo izatetik; baina, paradoxikoki, abaildu zaigun epelkeria ideologikoaren ondorioz imajinetan ezkutatzeko zaigu hurbileko izadia. (...) Perbertsoa, espazio diglosikoan euskaldunari eskatzen zaion sedukzio ariketa ridikulua. (...) Hipokrita, gure kulturarekiko begirada xamur antropologiko aingerutar hutsala. (...) (Ariznabarreta, 2012).

«Epelkeria ideologiko» hori astindu nahian, botere-harremanetan, izaera kolektiboan eta motibo identitarioetan indarra jartzen duen diskurtso berria ere hasi da erretzen ezarian-ezarian (ikus, adibidez, Arbelaitz, Eizagirre eta López, 2015). Ugaritzen ari dira, era berean, euskara hautu pertsonal hutsaren esparrutik atera nahi dutenen esanak. Horien adibide ditugu, esate baterako, Lorea Agirrek aurtengo Korrikaren amaierarako prestatutako mezuan ageri ziren berbak: «(...) euskal hiztunona auzi politikoa da, (...) auzi publikoa da (...)».

Bada, azkenik, trakzio-lanaren premia aitortuta ere, euskarazko jarduna ahalik eta modurik naturalenean bideratzea hobesten duenik; Zalbidek (2007) «bide batezko euskalgintza» deritzo jarrera horri («berariazko euskalgintza» litzateke haren aburuz hautu militanteagoaren aldekoa). Hona bide batezko euskalgintza horren aldeko adibide txiki bat: «Ados, behar dugu «nukleo gogor» bat, berme instituzional eta sozialen bila lan egingo duena. Baina, euskaraz bizitzeko hautua ohartu gabe egiten duen jende euskaltzale gero eta gehiago dago. Eta ez daukagu behin eta berriz euskaltzaleak direla gogorarazten jardun beharrik» (Agirre, 2015: 86).

Edozelan ere, motibazio identitario, ludiko, estetiko zein pragmatikoeak hauspotuta, kontua da euskarak mendebaldeko gune hiritarretan irabazi dituela azken urteotan bere hiztun berrietako asko, besteak beste gune horietan esperientzia interesgarriak burutzen ari direlako. Berauen berri izango dugu hurrengo puntuan.

3. Mendebaldeko esperientzia hiritarrak:

Euskarak aurrera egingo badu, aise ondoriozta daiteke hirian aitzinatu beharko dela: hiriek hartu duten pisu demografikoak zein lurraldearen antolaketan eta bizimodu-ereduen zabalkundearen duten garrantziak hala pentsatzera garamatzate, ezinbestean. Hori horrela, Euskal Herriko mendebaldeko hiru hiritako esperientzia batzuen apunteak bilduko ditugu segidan, hausnarketarako material modura.

3.1. Bilbo: ahalmen handiko metropolia

2014ko abenduan iritsi zaigu albistea: Alondegiaren izen berria AZ izango da, hau da, Azkuna Zentroa. Eraikinari alkate ohiaren izena jarri izanak batzuen aurkako jarrera eragin du, zenbaiten ustez durangarra ez baitzen izan euskarak Bilbon eduki duen lagunik handiena. Albistek badu, ordea, bere ifrentzua: Bilbo erdiko azpiegitura kultural nagusienetakoak euskarazko izena izango du etorkizunean. Hizkuntza-paisaia aldatzeaz harago doa izen-emate hau, hiriko eraikin nagusien bataioa hiriaren zuntzik sentiberena ukitzera heltzen den esangura sakoneko ekintza baita (horri buruz jardungo dugu aurrerago, 4.1 puntuan). Ezin jakin, hori bai, gertaera hori inflexio-puntu baten adierazle izango ote den.

Hausnarrean jarrita, duela ia hogeita hamar urteko garaiak datoz gogora. Jose Maria Gorordo alkateak, bere agintaldia hastearekin batera (1987an), hiria euskalduntzeko plangintza zehatza garatzeari ekin zion. Bi urte lehenago sortutako Euskara Zerbitzua Koldo Celestino Herri Batasunako zinegotziaren ardurapean geratu zen eta hiru lan-ildo jorratu zituen hurrengo urteetan: Udala bera barrutik euskalduntzea (hizkuntza-eskakizunak ezarri,

kiroldegiak elebitasunera ekarri etab.); kanpora begirako lana (gurasoentzako eskolak eskaini, Euskal Txokoak sortu...) eta, azkenik, herri-taldeekin elkarlana. Hirugarren ildo honen barruan kokatzen dira bai hainbat hitzarmen (tabernariekin, sindikatuekin, merkatariekin), bai *Asfaltoan ere bai* bezalako kanpainak.

Bide emankorra izan zen hura eta, akatsak akats, kontsentsu zabala lortu zuen. Bazirudien euskarak hamarkada luzeetako estigma gainetik kenduko zuela udal-agintearen eta herri-ekimenaren arteko aliantzari esker. Ez zen hala izan ordea. EAJren baitako barne-tirabirak zirela medio Gorordok alkatetza utzi behar izan zuen eta, hurrengo agintaldian, 1987an abian jarritako prozesua indarra galduz joan zen, ia desagertzearaino.

Ondoren etorri zena ondo ezaguna da: batetik, Udala, tarteka ekimen interesgarriak garatuz, hamar urte bete berri duen *Harrapazank* kasurako, baina, oro har, plangintza zehatzik gabeko ekimenak bultzatzen, motel eta lotsatu antzean (gogoan dugu, adibidez, *El euskera amable. Orain bai, horrela bai* merkataritzara zuzendutako kanpaina: oharkabea izan arren, mezu horrekin euskara desatsegin bat ere bazegoela aditzera eman zuen Udalak, eta, horrez gain, euskara sustatzeagatik barka-eskean zebilela ematen zuen); bestetik, herri-ekimenetik jaiotako hiruzpalau proiektu independente, euren arteko koordinazio bakoak eta, desberdintasunak desberdintasun, eragin mugatukoak. Horren ondorioak begi-bistan daude: ezagutzak nabarmen gora egin arren D ereduari eta euskaltegien lanari esker (Eustaten 2011ko datuen arabera, euskaldunak %22.10 dira hirian eta euskaldun hartzaileak, berriz, %21.80), baina erabileraren datua %3 bueltan dago kateatuta (*Prest*, 2012; Soziolinguistika Klusterra, 2011).

3.2. Getxo: elkarlana ipar

Bestelakoa da Uribe Kostako hiriburuaren egoera. Ezagutza-datuak Bilbokoak baino apur bat hobek badira ere (Eustaten arabera 2011n %28 ziren euskaldunak eta %32 euskaldun hartzaileak), erabilera altuagoa da (Soziolinguistika Klusterraren arabera, %9koa 2011n, goranzko joerarekin). Zer dela-eta alde hori erabileran Bilbotik Getxora? Honako hau izan daite-

ke fenomenoa azal dezakeen arrazoietakoa bat: Getxon, Bilbon ez bezala, Udalak eutsi egin dio duela urte batzuk hasitako bideari.

Izan ere, 2001ean hiriko udal gobernuak, Iñaki Zarraoa EAJko alkatea buru zela, Euskara Zerbitzua sortu zuen. Bilbon bere garaian martxan jarritako lan-ildo berberei ekin zieten Getxon ere. Udal barrura begirako Erabilera Plana, kanpora begirako egin beharrekoak (hitzarmengintza, helduen euskalduntzea, etab.), eta, hirugarrenik, elkarlana udalerriko talde eta elkarte euskaltzaleekin (UK aldizkaria, ALBE bertso-eskola, Bizarra Lepoan Euskara Elkarte etab.). Azken bi ildoak lantzerakoan indar berezia jarri zuten aisialdian eta kirolean. Ume eta gazteen erabilera-datuei erreparatuta (eurak baitira bi esparru horietako protagonistak), asmatu egin zutela ematen du, udalerriko batez bestekoen gainetik baitaude.

Edozelan ere, Getxoren kasuan nabarmentzekoak dira ondorengo bi puntuak: bata, urte hauetan zehar botere-gune politikoaren eta herri-ekimenaren arteko elkarlana gauzatu dela (azpimarratzeko moduko kontua, batez ere aintzat hartuz gero zein zaila den honelako sinergiak lortzea Euskal Herrian); bestea, apustuari eutsi egin diotela, koiuntura guztien gainetik eutsi ere. Desberdinen arteko elkarlan hori artikulatzen hasi dira Gasteizen ere, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

3.3. Gasteiz: lidergo partekatua urratzen?

Datu soziolinguistikoei erreparatuta, atentzioa ematen du Gasteizen azken urteotan izaniko bilakaerak:

Gasteizko biztanleen artean 5etik 3 erdaldun elebakarrak dira (%57). Elebidun hartzaileak (...) %18 dira. Euskaldunak, berriz, biztanleriaren %25 dira (...). 1986tik 2006ra laukoiztu da euskaldunen portzentajea. (...) 1996etik 2006ra, euskaldunen portzentajeak 11 puntu egin du gora [55.075 euskaldun orotara] eta elebidun hartzaileen portzentajea ere hazi egin da (...) [41.353 elebidun hartzaile]. Erdaldun elebakarren portzentajeak, beraz, behera egin du (12 puntu). (Euskaraba, 2009: 3).

Alabaina, 2006ko datu horiek 2011koekin alderatuz gero, Arabako hiri-buruan euskaldunen kopuruak apur bat behera egin zuela egiazta daiteke:

2006ko 55.075 euskaldunak 52.298 ziren 2011n; haatik, beste 60.851 «ia-euskaldun» ageri dira 2011n, 2006ko 41.353 «elebidun hartzaile» haiek baino dezente gehiago (ikus Eustat, 2011).

Bilakaera, beraz, euskararen aldekoa da oro har: euskaldunak eta elebidun hartzaileak kontuan hartzen baditugu, hamar gaztetatik zortzi (%78) gutxienez elebidunak edo elebidun hartzaileak dira (Euskaraba, 2009: 3). Bilakaera horretan zerikusi zuzena du B eta D ereduak izaniko hazkuntza, baina garrantzitsua da, era berean, helduen euskalduntze-alfabetatzearen eragina, urtero 6.000 lagunetik gora baitira Gasteizko euskaltegi-tan eta autoikaskuntza-zentroetan euskara ikasten dutenak (Euskaraba, 2009: 7-8). Araban 5 euskaldunetik 4 (%79,3), bestalde, euskaldun berriak dira: eskolan edo euskaltegian euskalduntutakoak, alegia (Euskaraba, 2009: 17). Ezagutzak gora egin izanagatik, ordea, erabilera-tasak oso apal segitzen du: %2koa 1989an, %4koa 2006an, eta %3.1ekoa 2011n (Al-tuna, 2011: 567-568).

Datuak horiek izanik, Agirreren ustez esan daiteke «aldaketa handia eta ikusgarria izan dela Arabakoa, euskararen aurrerabidean»; Gasteiz izan da bere iritziz aldaketa horretan «tropelburu». Bertako Mintzalagun «programa erraldoia» eta abiatu berri den Oihaneder Euskararen Etxea jartzen ditu esanikoaren adibide modura. Jardun horien atzean bi ardatz daudela azal-tzen du: batetik, gizarte-ekimenez diharduen euskalgintza, eta, bestetik, erakundeetatik antolaturiko ekimenak (Agirre, 2015: 74 eta 81).

Herri-mugimenduaren inguruan antolaturiko euskalgintzaz, euskara el-karte arabarrak «nahi baino egitura ahulagoak» izan direla dio, eta neurri batean «kontra (eta eroso?)» jarrera presente izan dela iradokitzen du. Ho-rrez gain, euskalgintza herritarrak azken urteotan erakundeekin interloku-zio zuzenagoa izateko aukera izan duela dio, baina horrek «gizarte-mugi-menduen erlaxazioa eta desaktibazioa» ere eragin du bere ustez (Agirre, 2015: 77, 79 eta 80).

Aginte publikoei dagokienez, Arabako Foru Aldundiak euskalgintzaren nukleo gogorraren sustatzaile nagusi izan beharko lukeela dio, baina pun-tuan eransten du erakundeei gehiago konprometitzea falta zaiela eta uzkur ageri direla herritarrei erabakiguneetan parte hartzeko aukerak eskaintze-

rakoan. Horren aurrean, «benetako lan banaketa erreala» eta «bi norabide-tako hurbilketa» aldarrikatzen ditu (Agirre, 2015: 82-85).

Kultura-aldaketa hori gorabehera bakoa ez dela izango iragarriagatik, etorkizuna hortik urratu beharra dagoela deritzo, bide horretan Gasteizen inauguratu berri den Oihaneder Euskararen Etxea probaleku egokia izan daitekeela gaineratuta. Izan ere, Oihanederren espazioa eta denbora partekatzen dituzte Udaleko Euskara Zerbitzuko lau teknikariek eta gizarte-ekimenez abiatutako Lazarraga Kultur Elkarteko lagunek (Gasteizen euskarari eta euskal hitzunei euren proiektu, produktu eta dinamikak erakusteko/garatzeko leku duina eskaini gura dien kafe antzokiaren egitasmoa sustatzen diharduen elkarte da berau).

Aipaturiko guztiak (datu soziolinguistikoek zein herri-mugimenduen eta erakundeen arteko elkarlanak) eta azken boladan erne diren beste zenbait ekimenek (Hirinet euskara hutsezko web gasteiztarra, herrialde guztian astero-astero zabaltzen den *Alea* aldizkaria, euskarari gero eta leku gehiago eskaintzen dion Hala Bedi Irratia...) adierazten dute zerbait mugitzen ari dela EAEko hiriburuan.

4. Aurrera begirakoak

Badugu euskaraz bizitzeko gai dela badakigun masa kritiko gero eta zabalago eta anitzagoa, euskalgintzak antolatzen duenaren xede-talde egoki izan daitekeena. Badugu euskaraz bizitzeko hautua modu kontzientean egin duen jende-multzo zabala ere (batzuk, majo sufrututa, euskaltegitik atera berriak; gero eta gehiago, etxean aurreko belaunaldietatik euskara jasotzeko zortea izan dutenak). Badugu eskura eta erabilgarri dituen sormen-bideak euskaraz natural erabiltzeko gai den artista kuadrilla ederra ere. Badugu kapital publikoa. Norekin lan egin, norentzat, eta nor bidelagun hartuta. Eta badugu lanerako prest dagoen eta formazio egokia duen talde bat ere, «nukleo gogor» izateko bidean doana (Rober Gutierrezek egoki gogorarazten duen moduan, horietako asko euskal hitzun berriak, horrek dakarren onura nabarmenarekin). Kapital publiko zabal eta barreiatua hitzun komunitate trinko bihurtzeko lan egingo duena. (Agirre, 2015: 86-87).

Goiko aipuak aditzera ematen du euskararen lurraldearen gune batzuetan gutxieneko masa kritikoa osatzen ari dela. Masa kritiko hori aktibatze aldera pentsaturiko kontzeptu eta norabide batzuk deskribatuko ditugu hurrengo lerroetan:

4.1. Kartografiatu mapak

Azurmendik (1975) azaldutako moduan, arrazoiak baliatzen bagara ere, pertsonok animaliak gara funtsean. Eta gauza jakina da zer egiten duten animaliek, euren senari jarraiki, lurralde bat eurenganatu gura dutenean: lurralde hori markatu, bertako bazterrak oro erregistratu eta identifikatzeko eta, horrez gain, espezie bereko gainerako kideei euren eragin-eremuaren berri emateko. Halaxe jokatu beharko genuke geuk ere: euskararen lurraldea nazioarteko fenomeno eta pertsona eredugarrien izenekin eta, batez ere, euskal kultur ondaretik ateratako erreferentziekin markatu behar genuke (honi buruzko hausnarketa sakonagoa in Unzalu, 2011); haatik, Arestik bere «Bilbaoko kaleak» ospetsua idatzi zuenetik urte dezente igaro den arren, euskara arbuiatu, edota are, zanpatu izan zuten jeneral, konde, almirante eta politikarien izenak zein beronen garapena oztopatu duten gertara konkretuei erreferentziak ugariak dira oraindik Euskal Herriko kale-izen-degietan. Eta beste Azurmendi batek (1993) herri-jakituriak lehenagotik formulatua (*izena duen orok du izana*) koxka bat estututa zioen moduan, gauzak izendatzea berauek sorgintzea da, berauei bizia ematea, bilbadura konplexu bat ehuntzen laguntzea.

4.2. Eratu gune neuralgikoak, sarea josi

Behin mapak kartografiatuta eta norbere eragin-eremua zehaztuta, garrantzitsua da eremu horretan esangura-ekoizle izango den gune neuralgikoa erakitzea, hiltunen topagune ez ezik hainbat joan-etorriren iturburu bihurtuko den espazioa. Egia esan, bigarren betebeharrak horrek lehenengoak baino pisu handiagoa izan beharko du etorkizuneko hirian. Zerumugara begiratu aurretik, baina, azter dezagun labur-labur arlo honetan orain arte egindako bidea.

Duela 110 urte Bilboko Euzko Gaztediko euskaldunek lantalde bereizi moduan elkartzeko euren egoitzako gela bat hartu zutenetik, ia eten barik egon dira euskaraz bizitzeko lekuak (egun arnagune deitzen ditugunak) euskal hirietan. Horien bertsio eguneratua duela hogeitaz urte abiatu zen Bilboko Kafe Antzokiarekin eta, berezitasunak berezitasun, azken urteotan beste zenbait joan dira sortzen (Plateruena Durangon, Doka Donostian, Lazarraga Elkartek eginkizun duen proiektua Gasteizen, Müllerrenea Deustun, etab.). Horien lehen betebeharra da hiztunei eskaintzea praktika-rako eremuak eta, aldi berean, kalitatezko kultura-emankizunak.

Urte hauetan denetarik egon da gune horien ibilbidean. Bakoitzak ikusi beharko du balorazioa egiterako orduan zenbateko tartea hartzen duten argiek eta zenbatekoa itzalek, baina guztiak bat etorriko dira ondorengoa-rekin: gune itxi eta erabat babestua eraikitzea edo kanpoko eraginetara guztiz zabaltzea (horrek dakartzan arriskuekin), horra hor gune hauei tentsioa eragin dieten bi muturreko aukerak. Honelakoetan ohi den moduan, bien arteko oreka lortzean datza gakoa.

4.3. Hizkuntza-praktikak ingurunean barreiatu

«Ekarri euskara plazara, eztabaidara, basatzara, ur abisaletara. Lokaztu, busti, kutsatu (...) Leku hartu leku eginez. Ateak irekiz, harresiak bota. Aterpeak eraiki, taldetasuna josi» zioen Lorea Agirrek (in *Argia*, 2015) Korrikaren 19. ekitaldiko amaieran irakurritako mezuaren zati batean. Horra hor lortu beharreko jokaldi gaitza: harresiak eraistearekin batera aterpeari eustea. Zaila bai, baina horixe da dugun aukera bakarra XXI. mendeko Euskal Herri hiritartu honetan. Guneak sare bihurtzea da eginkizuna, aterpe izateari guztiz utzi barik, jakina. Eskaintza guztia leku fisiko bakar batean kontzentratu beharrean, hamaika hizkuntza-praktika desberdin hedatu behar dira hirietako kale, txoko, bilgune eta plazetan zehar. Arnaguneak eutsi behar dio sinergia-proposamenen iturburu-izaerari, baina euskarak dozenaka bidelagun eta gune-lagun bilatu beharko ditu plazan bere lekua hartzeko. Litekeena da horietako batzuekin tarteka euskaratik atera behar izatea eta elkarriketa elebidunak (euskaldun hartzailerekin) edo itzulpenak

erabili behar izatea. Bidean aurkituko ditugu tresnak eta metodologiak, argi dagoena baita etorkizuneko testuinguru hiritarrak konplexuak izango direla (hala dira dagoeneko) eta euskaltzaleoi etengabe moldatu beharra egokitu-tuko zaigula.

Baina ez dezagun gal artikulu honen haria. Zein izango da orduan etorkizuneko indar gidaria? Duela hilabete batzuk, azken hamarkadotan indarrean egon den paradigma eraldatu ahal duen proposamena egin zuen Pello Jauregik. Jauregik dioenez (in Rodríguez, 2014), ezinezkoa da hiztunen multzo nagusia motibazioetik (eta, bere ustez, berdin-berdin da zein izenlagun jarri motibazioari) erabilerara mugiaraztea. Bideak, hain zuzen ere, kontrako norabidean funtzionatzen du, hau da, portaeratik, jokamoldetik motibazio-ra. Beraz, lortu beharrekoak euskaraz funtzionatzen duten testuinguruak dira bere iritzi. Horiek lortuta, berauetan mugituko den hiztuna motibatuta sentituko da, ezinbestean, eta orduan bai, orduan erabilerarako jauzia emango du berak ere.

Corago aipatu dugun Korrika 19ren amaiera egunean Arkaitz Zarraga euskara irakasleari eginiko elkarrizketa argitaratu zuten *Berria* egunkarian. Zarragak (in Goikoetxea, 2015) orain aipatu dugun gogoeta berbera plazaratu zuen, funtsean: norbanakoak euskaldundu bai, baina bereziki testuinguruak eta esparruak euskaldundu behar direla. Gogora ditzagun, era berean, Lorea Agirrek (in *Argia*, 2015) egun horretan irakurritako mezuaren berbak, euskararen auzia auzi publikoa dela aldarrikatuz. Izan ere, testuinguruak euskalduntzeak *polis*-eko eragileez berba egitera behartzen gaitu, ezinbestean.

4.4. Herri-ekimenaren eta erakundeen lana uztartu

1980ko hamarraldiaz aritu garenean herri-mugimenduen eta erakunde ofizialen arteko tirabirez jardun dugu, eta aipatu dugu zelan hamarraldi amaieran euskara elkarten jardunak polarizazio hura gainditzen eta zubiak eraikitzen lagundu zuen. Garai hartan Arrasaten gertaturiko fenomeno bat aipatuko dugu segidan, erakusten duelako zertzuk emaitza izan ditzakeen gizarte zibilaren nerbioaren eta erakundeen ahalaren uztardurak. Deiane

Arrietak jaso du (2005) zertan zen euskarazko prentsaren kontsumoa Arrasaten *Arrasate Press* sortu baino lehen: *Argia*-k 143 ale saltzen zituen zenbaki bakoitzeko, *Ipurbeltz*-ek 148, *Aizu!*-k 65, *Jakin*-ek 58 eta *Elhuyar*-ek 55. *Arrasate Press* sortzean, aldiz, berehala hasi zen 1.700 ale zabaltzen *Arrasate* guztian, eta urtebetera 7.000 ziren astero banatzen zituen aleak. *Arrasate Press* sortu zuen AED elkartearen eta Udalaren arteko sinergiek egin zuten posible hazkunde esponontzial hori. Ikusi dugu, halaber, zelan Bilbon, Getxon zein Gasteizen jauzi kualitatibo esanguratsuak eragin dituen bi indar horien arteko batuketak (beti ere elkarren izaera eta autonomia errespetatuta). Garrantzi estrategikoa dauka, beraz, ildo horretan sakontzeak, hurrengo aipatuko ditugun bi adibideek erakusten duten moduan.

Korrika 19ren amaiera-ekitaldian elkarlanean prestaturiko irrati-telebista saioa da horietako bat: goiz horretan elkarrekin aritu ziren beharrea Bilbon EiTB, *Berria*, Hamaika Telebista, Uriola eta beste zenbait komunikabide, eta Euskal Herri guztira zabaldu zen horren emaitza. Elkarlan egokiaren bigarren adibideak 2015eko apirileko azken egunetara garamatza, ordurako Loraldia festibala antolatu baitzuten Bilbon hainbat lagunen artean, Anton Abadiak sustatutako Lore Jokoak gogoan zituztela. Festibala euskarazko kulturaren eta artearen adierazpide guztien topaketa izan zen eta ikuskizunak Bilboko eraikin nagusietan eskaini ziren (Azkuna Zentroa, Euskalduna Jauregia, Arriaga Antzokia etab.). Udalak eta Aldundiak ekimena lagundu zuten eta, antolatzaileen arabera, hurrengo urteetan festibalaren egitaraua aberatsagoa eta garatuagoa izango da. Ezin uka hirian arrasto sakona uzteko itxura daukala, eta hori ez zen posible izango gizarte zibilaren eta aginte publikoen arteko gutxieneko elkar-ulertze barik.

4.5. Erabakiguneetatik lidergoa

Herri-ekimenaren eta erakundearen arteko uztarduraz jardun dugu aurretian. Funtsezkoa da bi eragile horietako bakoitzaren lana, eta funtsezkoa da, era berean, erabakiak hartzen diren guneetan dagoenak, kudeaketa hutsera mugatu beharrea, tarteka aurrerapausoak proposatzea, norabide berriak markatzea, jauzi kualitatiboetarako oinarriak jartzea. Ekimen indibidualei

euren meritua aitortuta ere (erreparatu adibidez Gaizka Garitano Eibar Futbol Taldeko entrenatzailearen berbei in *Uztarría*, 2015), modu serio, jarraitu eta iraunkorrean aldaketa kualitatiboak eragin nahi badira ezinbestekoa da erabakiguneetatik trakzio-lana egitea. Horri dagokionez, azpimarratzeko modukoa da UEMAren eskariari erantzunez EITBko zuzendaritzak «urratsak» agindu izana ETB2n apurka-apurka euskara sartzeko eta euskaldunak kate horretan erdaraz berba egitera ez behartzeko (ikus Urkizu, 2014), azpimarratzekoa den bezala Gipuzkoako Foru Aldundia (2014) egiten ari den ahalegina euskarari lehentasuna emateko.

4.6. Itun soziopolitikoa (hegemoniaren bila aniztasunean)

Artikuluia amaitzeko unea heldu zaigu. Azken mendean zehar euskararen aldeko ekimenen atzean izan diren indarrak identifikatzen saiatu gara. Era berean, aurrera begira jarrita, norako posible batzuk ere zirriboratu ditugu. Bideak egon badaude, bertatik abiatzeko prest dagoenik ere bai (ibilian dabilzanak ere ugari dira dagoeneko). Zer falta zaigu orduan? Aterki sendo bat, bidean harrapatu ahal gaituzten ekaitz eta haizeteetatik babesteko. Euskara babesteko itun soziopolitiko iraunkorraren eskaerak urteak ditu jada eta berau gauzatzeko une egokia izan daitekeela deritzogu. Badakigu etorkizuna eleaniztuna izango dela. Mugaren alde banatan nagusi diren frantsezaz eta gaztelaniaz eta gure artera etorri berri direnek ekarritako mintzairez gain, ingelesa ere ia eguneroko berbeta bihurtu zaigu. Hiruzpalau hizkuntza jakitea dagoeneko ez da gutxi batzuen pribilegioa, Babelek gure artean sus-traiak bota baititu. Gizarte poliedriko hau kohesionatuko duen porlana euskara izan dadila proposatzea jendartearen gero eta eremu zabalagoak onartzen duen eskaera da, eta eskaera horri itun forma ematea dagokie gure politikariei. Esanikoaren erakusgarri da Bilboko Udalean 2014ko Euskararen Egunari begira alderdi guztien artean landutako akordioa; alderdien arteko tirabirak direla medio akordio hori azkenean erabat gorpuztu ez bazen ere (ikus horri buruz Larrabe, 2014, eta Larrinaga eta Lopategi, 2014), ipar bat markatzen du. Aurtengo hauteskunde-ziklo hau ere pasatuko da eta iritsiko da gaiari lasaitasunez heltzeko unea. Momentuz prozesua ez da heldutasun-puntura iritsi, baina ziur berandu baino lehenago kontsentsu

zabala lortuko duen ituna ikusiko dugula, euskarak, osasuntsu biziko bada, ezinbesteko dituelako bai desberdinen arteko hitzarmena, bai erakunde eta alderdien arteko unean uneko liskar politikoetatik babestuko duen akordio zabala.

Bibliografia

AGIRRE, Manex, 2015, «Arabako euskalgintza: kapital publikotik hiztun komunitaterantz», *Jakin*, 206, 73-88.

ALBERDI, Pedro, 2000, *Satorrak baino lurperago*. Irun: Alberdania.

ALTUNA, Olatz, 2011, «Euskararen kale erabilera Gasteizen», *Euskera*, 56 (3), 557-576.

ARANBARRI, Iñigo, 2000, *Gure mendea: ehun urte euskal kulturari*. Lasarte-Oria: Argia. Hemendik jaso: <http://www.argia.eus/mendea/kronikak/kronikak.htm>

ARBELAITZ, Lander; EIZAGIRRE, Estitxu; LÓPEZ, Axier, 2015, «Hizkuntzaren presioa alde aldatzera goaz», *Argia*, 2.455, 43-46.

ARGIA, 2015, «Korrikako lekukoan Euskal Herria zeharkatu duen mezua: Bagara nor», *Argia*. Hemendik jaso: <http://www.argia.eus/albistea/korrikako-lekukoan-eskuz-esku-euskal-herria-zeharkatu-duen-mezua-bagara-nor>

ARIZNABARRETA, Larraitz, 2012ko urriaren 28a, «Euskal distopiaz», *Berría*. Hemendik jaso: http://www.berria.eus/paperekoa/1513/004/001/2012-10-28/euskal_distopiaz.htm

ARRESE BEITIA, Felipe, 1879, «Ama euskeriari azken agurrak!». Hemendik jaso: <http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/ArreseBeitiaKantaria004.htm>

ARRIETA, Deiane, 2005, «Arrasate Press: hamasei urte tokiko prentsaren aitzindaritzan», in ARRIETA, Mikel et al. *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta geroa*. Bilbo: EHU. Hemendik jaso: http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/libros_gratuitos_en_pdf/Ciencias_Sociales/Kazetaritza%20euskaraz%20oraina%20eta%20geroa.pdf

ATXAGA, Bernardo, 1978, *Etiopia*. Bilbo: Pott.

AZURMENDI, Joxe, 1975, *Gizona abere hutsa da*. Arantzazu: EFA.

AZURMENDI, Mikel, 1993, *Nombrar, embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco*. Irun: Alberdania.

BAROJA, Pío, 1901, «El Vascuence». Hemendik jaso: <http://hispanismo.org/senorios-vascongados/7628-del-liberal-baroja-curioso-articulo-sobre-el-euskera.html>

DIAZ, Koldo, 2014, *Faceguk. Euskal identitatearen eraikuntza soziala etnografia digitaletik aztertua*. [Doktorego-tesia]. Leioa: EHU.

ETXEGOIEN, Fermin, 2004, *Neurona eta zeurona. Hizkuntza estetika bezala*. Iruñea: Pamiela.

EUSKARABA, 2009, *Datu soziolinguistikoak* [lan-dokumentua]. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. Hemendik jaso: <http://www.euskaraba.com/fitxategiak/fckeditor/Gasteizko%20Datu%20Soziolinguistikoak%28eus%29.pdf>

EUSKARABIDEA, 2011, *Mapa Sociolingüístico de Navarra*. Pamplona: Gobierno de Navarra. Hemendik jaso: http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/mapa-sociolingüístico-2011_informe-2.pdf

EUSTAT, 2011, «Euskal AEko urte 2ko eta gehiagoko biztanleak egoitza duten udalerriaren (>=40.000 bizt.) eta adinaren arabera; euskara-maila orokorra kon-tuan hartuta. 2011». Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemendik jaso: http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0010600/tbl0010647_e.html#axzz3UvUSKRYJ

GARCIA, Adrian, 2013ko maiatzaren 5a, «Euskararekin jolasteko hamaika modu badaudela erakutsi dugu» [Kike Amonarrizi elkarrizketa], *Berria*. Hemendik jaso: http://www.berria.eus/paperekoa/1598/028/001/2013-05-05/euskararekin_jolaste-ko_hamaika_modu_badaudela_erakutsi_dugu.htm

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, 2014, «Euskarari lehentasuna emateko dekretua onartuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak». Hemendik jaso: <http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/1702/euskarari-lehentasuna-emateko-dekretua-onartuko-du-gipuzkoako-aldundiak>

GOIKOETXEA, Garikoitz, 2015eko martxoaren 29a, «Pertsonak barik, testuinguruak euskalduntzera joan beharko litzateke» [Arkaitz Zarragari elkarrizketa], *Berria*. Hemendik jaso: http://www.berria.eus/paperekoa/2244/009/478191/2015-03-29/pertsonak_barik_testuinguruak_euskalduntzera_joan_beharko_litza-teke.htm

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA, 2011a, V. *Mapa Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jasoa: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/v_mapa_sociolinguistikoa/eu_def/adjuntos/V%20%20Mapa%20EU.pdf

———, 2011b, V. *Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik jasoa: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf

LARRABE, Ainhoa, 2014ko abenduaren 3a, «Euskara normalizatzeko agiri bat sinatu du Bilboko Udalak», *Berria*. Hemendik jasoa: http://www.berria.eus/paperekoa/2040/008/001/2014-12-03/euskara_normalizatzeko_agiri_bat_sinatu_du_bilboko_udalak.htm

LARREA, Jose Maria, 1998, «Lili baten errautsa (edo haizeak nola baitu kea barreiatzen)», *Zenbat Gara*, 3, 32-37.

LARRINAGA, Josu, 2013, *Ttakun eta Scratch. Euskal pop musikaren hotsak. Nazio-identitatearen birdefinizioak eta disidentzia kulturalak euskal gizartearen eraldaketan*. [Doktorego-tesia]. Leioa: EHU.

LARRINAGA, Gaizka, LOPATEGI, David, 2014ko abenduaren 13a, «Gaztelaniaren Bilbo», *Berria*. Hemendik jasoa: http://www.berria.eus/paperekoa/1832/021/003/2014-12-13/gaztelaniaren_bilbo.htm

OTEIZA, Jorge, 1963, *Quousque Tandem...!, interpretación estética del alma vasca*. Donostia: Auñamendi.

PREST!, 2012, «Euskararen erabilera Bilboko kaleetan ia ez da igo azken 22 urteetan», *Prest!*, 139. Hemendik jasoa: <https://prestaldizkaria.wordpress.com/2012/07/16/euskararen-erabilera-bilboko-kaleetan-ia-ez-da-igo-azken-22-urteetan/>

RODRÍGUEZ, Txerra [*Garaigoikoa* modura sinaturiko artikulua], 2014ko abenduaren 1a, «Urratzaileak» [Blog mezua]. Hemendik jasoa: <http://blogak.com/garaigoikoa/urratzaileak>

SÁNCHEZ CARRIÓN, José María, 1987, *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. Donostia.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, 2011, *Hizkuntzen kale -erabileraren VI. neurketa. 2011*. Hemendik jasoa: <http://www.sociolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emitzen%20txostena.pdf>

UNAMUNO, Miguel, 2002, *Recuerdos de niñez y de mocedad*. Bilbao: Bibliotex, *Deia* bilduma.

UNZALU, Galder, 2011, «Sugea dantzan: *she's in fashion*-etik Bilbao euskaraz-era», *Bat*, 78, 71-96.

URIA, Iñaki, 2014ko urriaren 25a, «Irismena eta itomena», *Berria*. Hemendik jaso: http://www.berria.eus/paperekoa/1832/023/003/2014-10-25/irismena_eta_itomena.htm

URKIZU, Urtzi, 2014ko azaroaren 13a, «ETB 2n euskara sartzeko bidea “ibili ahala” egingo dutela agindu dute», *Berria*. Hemendik jaso: http://www.berria.eus/paperekoa/2273/036/002/2014-11-13/etb2n_euskara_sartzeko_bidea_ibili_ahala_egingo_dutela_agindu_dute.htm

UZTARRIA, 2015, «“Euskaldunen iraultza txiki” eske» [Gaizka Garitanoren hitzaldiaren kronika], *Uztarría*. Hemendik jaso: <http://uztarria.eus/aktualitatea/1426070921>.

ZALBIDE, Mikel, 2007, «Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia», *Euskera*, 52 (3), 877-1008.

ZUBEROGOITIA, Aitor; ZUBEROGOITIA, Pedro, 2008, *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburu eta euskara: XX. mendeko historia*. Bilbo: Bilboko Udala.



Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan XIX. Jagon jardunaldiaren ondorioak

ALEMAN, Sagrario
Sustapen batzordeko burua

OSA, Erramun
Sustapen batzordeko idazkaria

Ukaezinak dira XX. mendearen erdialdetik hona Euskal Herrian izan diren aldaketa sakonak eta, horien artean, nabarietako bat bizimoduarena izan da; izan ere, hiriak bilakatu dira euskal hiztunen bizigune nagusienak. Horren ondorioz, jenderik gehien biltzen duten hirien eta hiriburuen bizimoduak baldintzatuko du euskararen irakaskuntzaz gain, bere transmisioa eta erabilera.

Kezka horrek bultzatu du Euskaltzaindiaren Sustapen batzordea «Euskararen biziberritzea Euskal Herriko Hiriburuetan» jardunaldia antolatzerara, bertan parte hartzen duten guztien artean, errealitate horren inguruan gogoeta egiteko eta, batik bat, egoera berri honen aurrean bide eta baliabide egokiak irekitzen eta asmatzen joateko.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren eta Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatearen agur-hitzen ondoren, Jean-Baptiste *Battitu* Coyos Jagon sailburuak, jardunaldiaren egitaraua, helburuak, aztergaiak eta hizlariak aurkeztu ditu.

Segidan, Xabier Erize soziolinguistak eta Sustapen batzordeko aholkulariak moderaturiko saioan, Jon Aizpurua Sustapen batzordeko kideak hitza hartu eta *Euskal Herriko hiriburuetakoko bilakaera soziolinguistikoa, 1991-2011* izenburua izan duen hitzaldia eman du. Nabarmendu duenez, hiriburuek garrantzia handia dute euskara biziberritzeko, hiriburuetan geroz eta zerbitzu eta herritar gehiago pilatzen direlako, eta horrek hizkuntzaren aldeko eta kontrako joeretan eragiten du. Bilakaera soziolinguistikoari buruz ari-tzean, hiru euskal herritarretatik bat Euskal Herriko zazpi hiriburuetakoa

batean bizi dela nabarmendu du. Ezagutzari dagokionez, hiriburuak erdaldunak dira oro har, Donostia eta Donibane Garazi izanik elebidun gehien dituztenak (%40). Nolanahi ere, nahiz eta hiriburuak erdaldunak diren, elebidun ugari bizi da hiriburuetan (euskaldun elebidunen laurdena), Bilbo eta Donostia izanik gehien biltzen dituztenak. Edozelan ere, ezagutza ez da homogenea hiri bakoitzean, ez eta adin-taldeetan ere.

Hiriburuak bizitokizat dituzten elebidunen ezaugarriez ere jardun du J. Aizpuruak. Gehienek lehen hizkuntza erdara dutela adierazi du, ezaugarri horrek euskara baliatzeko duten gaitasunean eragiten duela, eta hortaz, erdaraz errazago moldatzen direla. Hiriburuetakako errealitatea ez da bera. Donostian, esate baterako, oraindik gehiago dira gaztelania lehen hizkuntza gisa dutenak, nahiz eta hori, irakaskuntzaren ondorioz, aldatzen ari den. Baiona, Angelu eta Miarritze deituriko eremuan, ostera, lehen hizkuntza euskara duten arren, frantsesez euskaraz baino hobeto moldatzen dira. Jarreretan ere aldeak daude hiriburu batetik bestera, euskarak presentzia zabalagoa duen hirietan aldekoagoa baita jarrera bestelakoetan baino.

Patxi Juaristi euskaltzain urgazleak eta Sustapen batzordeko kideak gidaturiko saioan, Eduardo Apodaka eta Xabier Aierdi Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek jardun dute. Hauek, *Hizkuntza praktikak hiri-mundu eta mundu hirietan* izenburua izan duen gaia jorratu dute, bakoitzak bere ikuspegitik. Hiriek jendeak, zerbitzuak, bideak eta botere-harremanak pilatu eta erdal hiria nazio hiriaren oinarri dela adierazi du Apodakak. Halaber, hirietakoa euskara arrotz duen mundua ere badela nabarmendu du. Bere ustez, askotariko koloreak barruratzen dituzten hiriak dauzkagu begien aurrean. Horiek horrela, euskarari erreferentzialtasuna eta aitzindarritza eman beharra dago behar duen tokia eta arnasa hartuko baldin baditu.

X. Aierdik hiriak euskararako irabazi beharraz hitz egin du, baina euskarak mendez mende irautea lortu duen tokiak atzean laga gabe, herriak ahaztu gabe, alegia. Arrazoiak ere eman ditu hirietan egin beharreko lanaren garrantzia nabarmentzeko; hiriburuetan elebidunen ehuneko eskasa den arren, euskaldun kopururik altuena haietan bizi da; gainera, euskara beharrezko ez den tokian edo ikusten ez den tokian bizi da; aurkako sektore indartsuak eta aldekoen ahulezia erabatekoa den eremuan bizi da. Garbi dago,

azken batean, euskaraz bizitzeko hautua eginez gero, horretarako behar beste elebidun ez dagoela hiriburuetan. Ondorioz, lan handia dago eginkizun euskararen aldeko giroa sortzeko, hiztun kopurua hazteko eta euskara bera belaunez belautan iraunarazteko.

Ostean, Euskaltzaindiak gidatzen duen Euskararen Historia Soziala egitasmoaren barruan, Juan Madariagak paraturiko «Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII» izenburua daraman liburuaren aurkezpena egin da. Aurkezpenean, Mikel Zalbide egitasmoaren zuzendariak ere parte hartu du, bai eta argitalpena ahalbidetu duen Olasoko Dorrea Sorrerakundea elkartearen ordezkariak ere.

Andres Iñigo euskaltzainak eta Sustapen batzordekideak gidaturiko zatian, Aitor Zuberogoitia eta Pedro Zuberogoitia, Mondragon Unibertsitateko eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak hurrenez hurren, *Euskara hirian: indar gidari bila* izenburua izan duen hitzaldia eman dute. Bi-biek euskara kontuetan nondik gatozen, indar-gidari nagusiak, motelaldiaren arrazoiak, bai eta susperraldia ekarri dezaketen esperientziak zeintzuk diren ere izan dute hizpide. Haien aburuz, gizartea ez dago geldi, etengabe mugitzen ari da eta etengabe bilatu behar dira euskara bultzatu dezaketen indar-gidariak. Horiek horrela, aurrera begirako kontuez jardun dute: hizkuntza-paisaiaren garrantzia, arnaguneak eraikitzearen ezinbestekotasuna, kalera ateratzeak daukan urgentzia, sinergiak uztartzea eta lankidetzaren bideak eraikitzea, sektorialtasuna gaindituz trakzio funtzioa bete beharra, aniztasuna abiapuntutzat hartuz hegemoniaren bila urratsak egin beharra, eta abar izan dituzte hizpide.

XIX. Jagon jardunaldiari Kike Amonarriz soziolinguistika eta telebistako esatariak gidaturiko mahai-inguru batekin eman zaio amaiera. Solasaldian, Baionako, Bilboko, Donostiako eta Iruñeko udaletako ordezkariak hartu dute parte, eta bakoitzak azaldu du euskararen eremuan dituen lehentasunak, baliabideak, zerbitzuak, bai eta programa nagusiak ere. Ikusi denez, hiriburu bakoitzean euskararen aldeko politiken garapen-maila oso diferentea da, bai baliabideetan, bai borondateetan ere, eta alde esanguratsuak daude toki batetik bestera.